

KGK

Krisialdia eta gazteen emantzipazioa European Azterketa bat ongizate-estatuaren ereduetatik

KGK

Krisialdia eta gazteen emantzipazioa Europar

Azterketa bat ongizate-estatuaren
ereduetatik

EUSKO JAURLARITZA**GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA
Gazteria eta Kirol
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Dirección de Juventud
y Deportes

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>

Argitaraldia: 1.a 2015eko urtarrilla

Ale-kopurua: 500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1-01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Jordi Bosch Meda

Koordinazioa: Gazteen Euskal Behatokia

Itzulpena: IZO (Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala)

Bildumaren diseinua: Canaldirecto • www.canal-directo.com

Azaleko irudia: EkipoPO

**Maketazioa,
fotokonposaketa eta
inprimaketa:** RGM, S.A.

ISBN: 978-84-457-3364-6

D. L.: BI 368-2015

Aurkibidea

AURKEZPENA	11
SARRERA	13
Helburua	13
Metodologia	13
Egitura	14
1. KRISIAREN KAUSAK, ONDORIOAK ETA HEDADURA	15
1.1. Sarrera	15
1.2. Finantza-krisia	15
1.3. Higiezin burbuila	16
1.4. Zor subiranoaren krisia	18
1.5. Ondorio sozialak	20
2. ETXEBIZITZA-POLITIKAK, GAZTEEN ENPLEGUA ETA EMANTZIPAZIOA EUROPAN	25
2.1. Sarrera	25
2.2. Europako etxebizitza-sistemak emantzipazioaren eta krisiaren aurrean	25
2.2.1. Europako etxebizitza-sistemak: esparru teorikoa	25
2.2.2. Europako etxebizitza-sistemak eta ongizate-estatuaren ereduak	26
2.2.3. Krisiaren ondorioak Europako etxebizitza-sistemetan	27
2.2.4. Europako gazteen emantzipazioan eragindako ondorioak	28
2.3. Enplegu-politikak eta gazteen langabezia Europar Batasunean	28
2.3.1. Enplegu-tasen eta langabeziaren bilakaera	28
2.3.2. Lan-baldintza berriak: aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak	31
2.3.3. Europako Erkidegoko enplegu-politikaren aurrekariak: malgu-segurtasuna	34
2.3.4. Europar Batasunaren gaur egungo programa, gazteen langabeziari aurre egiteko: Gazte Bermea eta Ikastunentzako Programa	35
2.3.5. Enplegu-politiken alorreko gastu publikoa Europan	36

2.4. Krisiaren inpaktua Europako emantzipazio-prozesuetan	38
2.4.1. Metodologia-kontuak	38
2.4.2. Europako gazteen etxebizitza-emantzipazioa: alderdi orokorrak	38
2.4.3. Emantzipatu gabeko gazteak: lan- eta prestakuntza-egoera, eta emantzipatzeko aukerak...	40
3. KRISIA ETA EMANTZIPAZIOA EREDU SOZIALDEMOKRATIKOAN: FINLANDIA ETA SUEDIA	43
3.1. Ongizate-estatu sozialdemokratikoa	43
3.2. Etxebizitza-sistema sozialdemokratikoa.	44
3.2.1. Alderdi orokorrak	44
3.2.2. Finlandiako etxebizitza-sistema	44
3.2.3. Suediako etxebizitza-sistema	45
3.3. Europako iparraldeko herrialdeetako gazteen enplegurako politikak	46
3.3.1. Alderdi orokorrak	46
3.3.2. Finlandiako gazteen enplegurako politikak.	48
3.3.3. Suediako gazteen enplegurako politikak.	50
3.4. Emantzipazio-eredu sozialdemokratikoa	53
3.4.1. Alderdi orokorrak	53
3.4.2. Finlandiako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak.	53
3.4.3. Suediako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	55
4. KRISIA ETA EMANTZIPAZIOA EREDU KORPORATIBISTAN: FRANTZIA ETA BELGIKA.	57
4.1. Ongizate-estatu korporatibista	57
4.2. Etxebizitza-sistema korporatibista.	57
4.2.1. Alderdi orokorrak.	57
4.2.2. Frantziako etxebizitza-sistema.	58
4.2.3. Belgikako etxebizitza-sistema	60
4.3. Herrialde korporatibistetako gazteen enplegurako politikak.	61
4.3.1. Alderdi orokorrak	61
4.3.2. Frantziako gazteen enplegurako politikak.	61
4.3.3. Belgikako gazteen enplegurako politikak	63
4.4. Emantzipazio-eredu korporatibista	66
4.4.1. Alderdi orokorrak	66
4.4.2. Frantziako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	66

4.4.3. Belgikako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	68
5. KRISIA ETA EMANTZIPAZIOA EREDU LIBERALEAN: ERRESUMA BATUA ETA IRLANDA.....	71
5.1. Ongizate-estatu liberala	71
5.2. Etxebizitza-sistema liberala	71
5.2.1. Europako etxebizitza-sistema liberalaren alderdi orokorrak	71
5.2.2. Etxebizitza-sistema britainiarra.....	72
5.2.3. Irlandako etxebizitza-sistema	73
5.3. Ereduliberaleko gazteen enplegurako politikak	74
5.3.1. Alderdi orokorrak	74
5.3.2. Erresuma Batuko gazteen enplegurako politikak.....	74
5.3.3. Irlandako gazteen enplegurako politikak	77
5.4. Emantzipazio-ereduliberala.....	79
5.4.1. Alderdi orokorrak	79
5.4.2. Erresuma Batuko gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak.....	79
5.4.3. Irlandako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak.....	82
6. KRISIA ETA EMANTZIPAZIOA EREDU MEDITERRANEOAN: ITALIA, ESPAINIA ETA EUSKADI....	87
6.1. Ongizate-estatu mediterranea.....	87
6.2. Herrialde mediterraneoetako etxebizitza-sistema	87
6.2.1. Alderdi orokorrak	87
6.2.2. Italiako etxebizitza-sistema.....	88
6.2.3. Espainiako etxebizitza-sistema	89
6.2.4. Euskadiko etxebizitza-sistema.....	90
6.3. Herrialde mediterraneoetako gazteen enplegurako politikak	91
6.3.1. Alderdi orokorrak	91
6.3.2. Italiako gazteen enplegurako politikak	92
6.3.3. Espainiako gazteen enplegurako politikak	94
6.3.4. Euskadiko gazteen enplegurako politikak.....	98
6.4. Emantzipazio-eredu mediterranea	101
6.4.1. Alderdi orokorrak	101
6.4.2. Italiako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	101
6.4.3. Espainiako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	104

6.4.4. Euskadiko gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	107
7. KRISIA ETA EMANTZIPAZIOA KOMUNISMO OSTEKO EREDUAN: TXEKIA ETA HUNGARIA	109
7.1. Komunismo osteko herrialdeetako ongizate-estatua	109
7.2. Komunismo osteko etxebizitza-sistema	110
7.2.1. Alderdi orokorrak	110
7.2.2. Txekiako etxebizitza-sistema	111
7.2.3. Hungariako etxebizitza-sistema	112
7.3. Komunismo osteko herrialdeetako gazteen enplegurako politikak	114
7.3.1. Alderdi orokorrak	114
7.3.2. Txekiar Errepublikako gazteen enplegurako politikak	115
7.3.3. Hungariako gazteen enplegurako politikak	116
7.4. Komunismo osteko herrialdeetako emantzipazio-eredua	118
7.4.1. Alderdi orokorrak	118
7.4.2. Txekiar Errepublikako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	119
7.4.3. Hungariako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak	122
8. ETXEBIZITZAREN ETA ENPLEGUAREN ALORREKO POLITIKA PUBLIKOEN ETA EMANTZIPAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA	125
8.1. Sarrera	125
8.2. Enpleguaren eta emantzipazioaren arteko erlazioa	125
8.3. Etxebizitza-politikak eta emantzipazioa	132
ONDORIOAK	139
Emantzipazioa mugatzen duten egiturazko dimentsioak	139
Krisialdi ekonomikoak, ongizate-estatua eta emantzipazioa	139
Ongizate-estatuaren ereduak eta emantzipazioa	140
Emantzipazioa bultzatzeko politika publikoak	141
Emantzipazioa egungo eredu ekonomiko eta sozialean	142
BIBLIOGRAFIA	145
GRAFIKO ETA TAULEN ERANSKINA	159
Grafikoen eranskina	159
Europako etxebizitzaren alderdi orokorrak	159

Etxebizitzaren alderdi fisikoak eta ekipamendua	161
Etxebizitzaren alderdi ekonomikoak	165
Etxebizitza-politika	171
Alderdi makroekonomikoak	172
Emantzipazioa	174
Europako enplegurako politika publikoen alorreko gastua	177
Europako enplegurako politiken alorreko gastu publikoaren bilakaera (2005-2010)	178
Taulen eranskina	184
Finlandia	184
Suedia	188
Frantzia	191
Belgika	195
Erresuma Batua	199
Irlanda	202
Italia	205
Espainia eta Euskadi	208
Txekiar Errepublika	211
Hungaria	214
GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA	217
Grafikoen aurkibidea	217
Taulen aurkibidea	224

Aurkezpena

Gazteen emantzipatze-prozesuak bultzatzea da gazte-politikaren helburu nagusia, eta politika hori Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Kirol Zuzendaritzak zuzentzen du, gazteen premiak zeharkako gaitzat eta beren osotasunean hartuta.

Enplegu- politikak eta etxebizitza-politikak oinarritzko tresnak dira gazteak etxebizitzaren aldetik ere autonomoak izan daitezen bultzatzeko. Eta azken urteotan, bi jarduera-arlo horietan egindako ahalegin ugari gazteen premiak asetzera zuzendu dira; krisiaren ondorioz, gazteek langabezia-tasa handiak eta etxebizitza-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak nozitzen baitituzte.

Hala, ikerketa honen bidez, Gazteen Euskal Behatokiak gai hauek azaltzen ditu: batetik, zer eragin izan duen krisiak Europan gazteen emantzipazio-prozesuetan; eta, bestetik, zer erlazio dagoen zenbait herrialdetan enplegu- eta etxebizitza-politiken eta gazteen etxebizitza emantzipazioaren artean.

Halaber, Europan izaten ari diren egoerak konparatzen ditu, testuinguru sozioekonomiko eta politika publiko desberdinak erakusten dituzten bost herrialde-taldetatik abiatuta: Finlandia eta Suedia, ongizate-estatu sozial-demokratikoaren ordezkari gisa; Frantzia eta Belgika, eredu korporatibistaren erakusgarri; Irlanda eta Erresuma Batua, eredu liberalaren adibide; Txekia eta Hungaria, sozialismoaren osteko eredu; eta, azkenik, Italia eta Espainia, eredu mediterraneoko herrialdeen egoeraren isla diren aldetik, non Euskadi ere sartuta baitago.

Gure ustez, aipatutako herrialdeetan abian jarritako politiken emaitzak aztertuta, zenbait ondorio eta ikasgai atera ditzakegu, gazteek autonomoak eta independenteak izateko duten eskubidea gauza dezaten neurri eraginkorrak ezartzen jarraitu ahal izateko.

Jon Redondo Lertxundi

GAZTERIA ETA KIROL ZUZENDARIA



Sarrera

HELBURUA

Gazteriaren etxebizitza-emantzipazioa neurri handian baldintzatzen dute honako lau aldagai hauek: egoera makroekonomikoa (batez ere, gazteen lan-merkatuan duen eraginari dagokionez), etxebizitza-horniduren mailak, faktore instituzionalak, eta etxebizitzaren merkatuaren portaera. Alderdi horietan aldaketa sakonak gerta daitezke epe luzean; beraz, gazte-belaunaldi bakoitzak arazo zehatz batzuk ditu, eta arazo horiek mugatzen dituzte, hain zuzen, bizilekua aldatzeko prozesuak.

Emantzipatzeko adina gero eta gehiago atzeratzea oso joera zabaldua da mendebaldean, baina herrialdeen arteko desberdintasun handiak daude. Alde horiek, funtsean, faktore instituzionalen ondorio dira, eta zehazki, ongizate-estatuak etxebizitzaren eta enpleguaren alorreko politikan izandako garapenaren arabera eratu dira. Izan ere, ongizate-estatuaren eredu bakoitzak bere emantzipazio-eredua dauka, gazteak laneratzeko eta bakoitzak bere etxebizitza izateko trantsizio-prozesuan eragindako zailtasunen eta erraztasunen arabera.

Testuinguru horretan, liburu honen helburua da krisialdiak Europako gazteen emantzipazio-prozesuetan duen inpaktua jakitea, eta enplegu- eta etxebizitza-politikekin eta ongizate-estatuaren ereduak duen erlazioa argitzea. Ildo horretan, ulertzen dugu ongizate-estatu delako estatuak herritarren ongizatea bermatzeko modua, zerbitzu publikoak hornitzearen bitartez, esate baterako, hezkuntzaren, osasunaren edo etxebizitzaren alorrean, edota zenbait kasutan (gaixotasuna, desgaitasuna, enplegua galtzea, erretiroa, pobrezia eta abar) pertsonen zuzeneko laguntza ematearen bitartez.

METODOLOGIA

Egindako ikerketak elkarren osagarri diren bi estrategia bateratu ditu: alde batetik, berrikuspen bibliografikoa, eta bestetik, azterketa enpiriko eta kuantitatiboa, gaiari buruz dauden datu-baseak oinarri hartuta.

Europako hiru datu-base baliatu dira, batez ere: EU-SILC inkesta (*European Union Statistics of Income and Life Conditions*), kontzeptuen arabera gastu publikoa banatzen duen Eurostaten datu-basea, eta Europako EU-LFS inkesta (*Labour Force Survey*). Lehenengoak (EU-SILC) Europar Batasuneko herrialde bakoitzaren emantzipazio-tasen bilakaera adierazten digu. Halaber, tasa horiek estatus ekonomikoarekin eta lan-estatusarekin duen erlazioa azaltzen digu, bai eta biztanleen etxebizitzaren baldintza fisiko eta ekonomikoak ere. Eurostaten gastu publikoaren banaketari buruzko datu-baseak estatu bakoitzaren lehentasunak ezagutzeko aukera ematen digu, emantzipazioarekin lotura duten arlo bakoitza kontuan hartuta, bereziki etxebizitza-politika eta enplegu-politika. EU-LFS inkestak, berriztar informazioa ematen digu lan-merkatuak krisiaren aurretik eta krisialdian izan duen bilakaerari buruz. Amaitzeko, iturri horiek guztiak osatzeko, kontuan hartu da Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) Bizi Baldintzei buruzko Inkesta, Euskadiko gazteriaren emantzipazio-prozesuak eta etxebizitza-baldintzak aztertu eta Espainian oro har eta Europan dituzten egoerekin alderatzeko.

Ikerketaren lurralde-eremua da 27 herrialdek osatutako Europar Batasuna¹ (EB-27), baina emantzipazio-prozesuak eta ongizate-estatuaren eredu bakoitzeko enplegu- eta etxebizitza-politikekin duten lotura sakon aztertu ahal izateko, hamar herrialde aukeratu dira; alegia, eredu bakoitzeko bi herrialde: Finlandia eta Suedia (eredu sozialdemokratikoa); Frantzia eta Belgika (eredu korporatibista); Irlanda eta Erresuma Batua (eredu liberala); Italia eta Espainia, Euskadi bereziki aztertuta (eredu mediterraneo); eta Txekia eta Hungaria (sozialismo osteko eredu).

Ongizate-estatuaren tipologiei dagokienez, Esping-Andersen-en sailkapena (1990) erabili da, ziur asko gai horri buruz eragin handiena izan duen lana baita. Kontuan hartu da, halaber, geroago Leibfriedek (1992) egindako zabalpena: eredu mediterraneo (edo landu gabea); bai eta Kornaik (1992) egindakoa ere: sozialismo osteko herrialdeak (edo komunismo osteko trantsizio-eredua).

Bestalde, gazte emantzipatutzat hartzen ditugu gurasoekin edo gurasotzat hartutako inorekin bizi ez diren 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteak, haien egoera ekonomikoa edonolakoa izanda ere.

EGITURA

Liburuak zortzi kapitulu ditu. Lehenengoak, sarrera gisa, krisiaren kausa eta ondorioak aztertzen ditu. Bigarrenak Europako gazteriaren emantzipazio-prozesuen ikuspegi globala ematen du, eta krisiak etxebizitza-sistemetan eta gazteen enplegu-politiketan izandako inpaktua azaltzen du. Hirugarren kapitulutik zazpigarrenera bitartekoak sakon aztertzen dute ongizate-estatuaren eredu bakoitzean nolako eragina izan duen krisiak gazteen emantzipazioan, hautatutako hamar herrialdeak aztergai hartuta. Zortzigarren kapituluak azterketa estatistiko bat egiten du, emantzipazioaren eta etxebizitza- eta enplegu-politiken arteko erlazioa argitzeko. Amaitzeko, Europan emantzipazioak gaur egun duen egoerari eta etorkizunean izango duenari erreparatuta egindako sintesi eta hausnarketak biltzen dira azken atalean.

¹ Gaur egun, 28 herrialdek osatzen dute Europar Batasuna, 2013ko uztailean Kroazia sartu zenetik. Hala ere, ikerketan aztertutako denbora lehenagokoa da. Beraz, Europar Batasunari buruzko informazio guztia EB-27ri buruzkoa da; hau da, honako herrialde hauei buruzkoa: Alemania, Austria, Belgika, Bulgaria, Zipre, Txekiar Errepublika, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Herbehereak, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Errumania eta Suedia.

1

1. Kriariaren kausak, ondorioak eta hedadura

1.1. SARRERA

Hazkunde ekonomiko handiko ia hamarkada oso baten ostean, 2007ko amaieran eta 2008ko hasieran lehertu zen Depresio Handiaz geroztik bizi izan den krisirik okerrera, eta gaur egun ere krisialdi horretan gaude oraindik. Kriariaren garrantzia eta larritasuna dela-eta, sistemiko gisa kalifikatu dute; hau da, sistema politiko eta ekonomikoaren berregituratze handia eskatzen du (Kotz, 2008), eta horrek pentsarazten du egiturazko aldaketak eragingo dituela lan-merkatuan eta enplegu- eta etxebizitza-politiketan, eta, horrenbestez, bai eta emantzipazio-ereduetan ere.

Kapitulu honetan krisi ekonomikoaren kausa eta ondorioak aztertuko ditugu, bai eta kriariaren hedadura ere, gero aztertu ahal izateko Europako gazteen lanaren eta etxebizitzaren alorreko trantsizio-prozesuetan duen inpaktua. Halaber, prozesu horrekin lotura zuzena duten politika publikoetan (alegia, etxebizitza- eta enplegu-politiketan) krisiak duen eragina aztertuko da.

Ekonomista gehienek artean² adostasun handia dago krisi hau sortu duten bi faktore nagusiei buruz. Elkarrekin estu-estu lotuta dauden bi eragile izan dira: alde batetik, higiezinaren burbuila eratu eta lehertu da, eta bestetik, finantza-sistema kolapsatu da. Gainera, bi faktore horiek hirugarren krisia sortu dute: zor subiranoaren krisia.

1.2. FINANTZA-KRISIA

XX. mendearen amaieratik 2007ra arte finantzen sektoreak berebiziko gorakada izan zuen herrialde garatu guztietan, baina bereziki Amerikako Estatu Batuetan. Ipar Amerikako bizitegien sektoreko jardura handiari eustea helburu hartuta, emandako hipoteka-kredituek gora egin zuten, higiezinaren burbuilaren abiadura bereberean. Banku- eta finantza-sistema pixkanaka desarautzeak bideratu zuen sistemaren likideziak gora egitea, bankuak eta erosleak hornituz. Finantza-produktu berriak sortu ziren, bai eta hipoteka-mota berriak ere, eta kapitalaren nazioarteko mugimenduek aurrekaririk gabeko hedapena izan zuten.

² Ikus, besteak beste, Claessens et al. (2008), IMF (2008a, 2008b), O'Quinn (2008a, 2008b), Quintos (2008), Kotz (2008), Posner (2009), Shiller (2009), Acemoglu (2009) eta Bellod (2010).

Urte haietan Amerikako Estatu Batuetan protagonismo handia hartu zuten *subprime* esaten zaien hipotekek. 2002an haien merkatu-kuota ozta-ozta iristen zen % 7ra, baina lau urte geroago Amerikako Estatu Batuetan sinatzen ziren hipoteka guztien % 25 inguru ziren (Trembley, 2009). Kaudimen urri samarreko pertsonak zituzten helburu, eta horrenbestez, ez ordaintzeko arrisku handiagoa zuten, batez bestekoarekin alderatuta. Ezaugarri hori konpentsatzeko, bankuak jartzen zituen interes-tipoak eta komisioak ere handiagoak ziren, ohikoak baino. Halaber, finantza-sistema desarautzearen ondorioz, inbertsio-produktuak mundu osoan komertzializatu ziren, batez ere bonoak, *subprime* hipoteketan guztiz edo zati batean oinarrituak. Horrenbestez, haiei lotutako arriskua hedatu zen Amerikako Estatu Batuetatik haratago.

2006ko amaieran, etxebizitzaren prezioak behera egiten hasi ziren Amerikako Estatu Batuetan, eta 2007an produktu horien kaudimen ezari buruzko zurrumurruek zabaltzen hasi ziren. Berehala, *subprime* hipotekaren berankortasunak berebiziko gorakada izan zuen, haiekin lotutako finantza-produktuen balioak behera jo zuen, eta horrenbestez burtsek behera egin zuten. Galeren eta mesfidantzen testuinguru horrek *credit crunch* esaten zaiona eragin zuen; hau da, likidezia falta larria finantza-sisteman. Erabiltzeko moduko krediturik gabe eta *subprime* hipotekek "kutsatutako" hainbat eta hainbat finantza-produktu esku artean (*eratorri toxikoak*), lehen irabazi handiak zituzten erakunde asko galerak izaten hasi ziren, edo porrot egin zuten, besterik gabe.

Finantza-sistema hain globalizatua zela-eta, krisia berehala iritsi zen Europara. Laster agertu ziren esku hartu beharreko lehenengo erakundeak, funts publiko edo nazionalizatuen bidez erreskatatu zirenak.

Finantza-sistema egonkortzea helburu hartuta, 2008tik aurrera Amerikako Estatu Batuetako gobernuak, Europar Batasunak eta Erresuma Batuko gobernuak banku-sistema erreskatatzeko onetsitako planek ez zuten konpondu kreditu-murrizketaren arazoa, eta merkatuetako likidezia-urritasunak eragin zuzena izan zuen higiezinaren sektorean. Herrialde askotan etxebizitzaren prezioa, igoera handiko urteen ostean, behera egiten hasi zen 2008tik aurrera, eta sustapen berrien proiektuak bertan behera geratu ziren. Etengabeko soka horren ondorioz, herrialde garatu gehienak atzeraldian sartu ziren urte hartan bertan.

1.3. HIGIEZINEN BURBUILA

Finantza-sistema berri horrek sortutako kredituaren hedapena higiezinaren sektorera bideratu zen masiboki. Eskaria finantzatzeko, bai eta sustatzaileen beharrak ere. Finantza-sistema produktu berriei esker handitu zen heinean, bizitegien merkatua hedatu zen, espekulazio-burbuila saihestezinak eratuz.

Amerikako Estatu Batuetako eta Espainiako burbuilak ez ziren bakarrak izan. Irlandan eta Erresuma Batuan ere, prezioen eta eraikuntza-jardueraren igoera askoz handiagoa izan zen, maila onargarria baino, eta neurri apalagoan, herrialde garatu guztietan ageri zen joera hori. Etxebizitzaren merkatu nazionalen bateratze hori zenbait ikerlanetan detektatu zen 2005etik aurrera (Otrok, 2005).


Jabetza-araubidearen bilakaera, hipoteka-zorren eta barne-produktu gordinaren arteko erlazioa, eta prezioen portaera, besteak beste, adierazle argiak dira, merkatu horien bateratze-maila eta burbuilaren globalizazio-maila jakiteko.

Higiezinaren sektoreko irabazi gehienak epe laburrean higiezinaren salerosketaren bidez lortzen direla kontuan hartuta, higiezinaren burbuilen ezaugarri bat da bizi diren etxearen jabe diren familien proportzioak gora egiteko joera duela. Eta, hain zuzen, etxearen jabe direnen proportzioak gora egin du Europa guztian eta herrialde anglosaxoietan, laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdetik hasita (Andrews *et al.*, 2011).

Salerosketen merkatuaren garapenak dakar, halaber, familiek zor handiagoak izatea, eta horrenbestez, hipoteka-zorren eta barne-produktu gordinaren arteko erlazio gero eta handiagoa, Europako herrialde gehienetan bizitasun handiagoz edo txikiagoz gertatu bezala (1.1. grafikoa).

1.1. grafikoa

GUZTIRAKO HIPOTEKA-ZORRAREN ETA BPGD-REN ARTEKO ERLAZIOAREN BILAKAERA EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN. 1998-2007




Iturria: HYPOSTAT eta European Mortgage Federation

Europar, 2000-2008 epealdian higiezin aktiboek % 9tik % 13ra bitarteko balio handitzeak izan zituzten herrialde gehienetan, baina, Espainian urteko batez besteko inflazioaren tasa are eta handiagoa izan zen: % 17tik gorakoa (1.2. grafikoa). Gorakada horiek betiere handiagoak izan ziren soldaten, produkzio-jardueraren, inflazioaren edo ekonomia errearen igoerak baino; hau da, industria, merkataritza, nekazaritza, lehengaien ustiapena eta abar baino hazkunde handiagoa izan zuen etxebizitzaren arloak.

1.2. grafikoa

ETXEBIZITZAREN PREZIOAREN BILAKAERA TERMINO NOMINALETAN EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN, 2000-2012 (2000 URTEKO PREZIOAK = OINARRIA 100)



Iturria: ELGA (OECD) 2013


1.4. ZOR SUBIRANOAREN KRISIA

Europan kiribil negatibo hori ez zen hor amaitu. Jarduera ekonomikoaren gainbeherak zeharo murriztu zituen herrialde askotako diru-sarrera publikoak, eta banku-sektoreari emandako laguntza publikoak erantsita, defizit publikoaren gorakada eragin zuen, eta horrenbestez, sektore publikoaren guztirako zorraren gorakada (1.3. eta 1.4. grafikoak).

Lehenengo unean, erantzun politikoa izan zen indarberritze ekonomikoari lehentasuna ematea, defizitaren aurretik. Horrenbestez, 2008an eta 2009an hartutako aurrez aurreko neurriek jarduera ekonomikoaren gainbehera eragotzi zuten neurri batean, horrek Europar Batasuneko estatu askoren balantze publikoak okertu bazituen ere.

1.3. grafikoa

ZOR PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA, EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN. 2000-2012 (2000 URTEA = OINARRIA 100)




Iturria: egileak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

Baina, sendotasun gutxien zuten ekonomien balizko ordainketa-etendurari buruzko zurrumurruek, batez ere gutxiespenez PIGS –*txerriak* ingelesez– esaten zaien herrialdeei dagokienez (Portugal, Irlanda, Italia, Grezia eta Espainia), Europako politika ekonomikoaren erabateko aldaketa eragin zuten. Zor-jaulkipenetan espekulazio-mugimenduak egiteko egoera apropos horretan, herrialde horiek gero eta zailtasun gehiago izan zituzten interes-tipo onargarrien bidez finantziazioa lortzeko.

1.4. grafikoa

ZOR PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA, EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDETAN. 2009 ETA 2011



Iturria: egileak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

Testuinguru berri horretan, defizit publikoaren kontrola lehentasun bihurtu zen Europar Batasunaren barruko politika ekonomikoan. Horren ondorioz, austeritate-politikak ezarri ziren, oro har, finkapen fiskala lortzeko; hau da, gastu publikoaren murrizketa, aurrekontuak orekatzeko. Gainera, Europar Batasunak eta Nazioarteko Diru Funtsak herrialde hauek erreskatatu zituzten: Grezia (2010eko apirila eta 2011ko uztaila), Irlanda (2010eko azaroa) eta Portugal (2011ko apirila). Erreskate horiek gastu publikoa doitzeko plan zorrotzei lotuta zeuden, eta horren ondorioz are gehiago murriztu zen herrialde bakoitzeko ongizate-estatua.

1.5. ONDORIO SOZIALAK


Europar Batasunak berak emandako datuen arabera, 2012an Europan (EB-27) 120 milioi pertsona baino gehiago zeuden pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan;³ hau da, biztanleriaren % 24,9 zegoen egoera

³ Eurostatek adierazitakoari jarraituz, pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonak dira herrialdeko batez besteko diru-sarreraren % 60tik beherako diru-sarrerak dituzten familietan bizi direnak, edo gabezia material larriak dituztenak, edo bizitasun gutxiko lana duten familietan bizi direnak (lanaldi osoaren % 20 baino gutxiago).

horretan. Halaber, 85 milioi bizi ziren pobrezia nazionalaren azpitik. Langabezia (1.5. grafikoa), soldaten murrizketa eta lan-prekarietatea (gaur egun, kontratu berrien erdia baino gehiago dira aldi baterako lan-kontratuak) pobretze horren faktore nagusi dira.

1.5. grafikoa

LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA EUROPAKO ZENBAIT HERRIALDEETAN, 2000-2012 (%)




Iturria: egileak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

EB-27ren barruan, pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzeko arrisku-tasa handienak Europako ekialdeko herrialdeetan dituzte: Bulgaria (% 49,3), Errumania (% 41,7) eta Letonia (% 36,6). Haien ondoren Grezia (% 34,6), Lituania (% 32,5) eta Hungaria (% 32,5) dira arrisku-tasa larriak dituztenak (1.6. grafikoa).

1.6. grafikoa

POBREZIA EDO GIZARTE-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEEN PORTZENTAJEA GAZTEEN ARTEAN (16-24 URTE) ETA BIZTANLERIA OSOAN. EUROPAR BATASUNA, 2012




Iturria: egileak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

Pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua are eta handiagoa da gazteen artean. 2009tik aurrera gora egin du, eta 2012an 16 urtetik 24 urtera bitarteko Europako biztanle guztien % 31,1 ziren arrisku horretan zeudenak; hau da, biztanleria osoak oro har duen arriskua baino 6,2 puntu gehiago (1.7. grafikoa).

1.7. grafikoa

POBREZIA EDO GIZARTE-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA GAZTEEN ARTEAN (16-24 URTE) ETA BIZTANLERIA OSOAN. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2012



Iturria: egileak egina, Eurostaten datuak oinarri hartuta

Herrialdeei erreparatuta, gizarte-bazterketa edo pobrezia pairatzeko arriskuan dauden gazteen portzentajea oso handia da, % 45etik gorakoa, Bulgarian, Errumanian eta Grezian, eta zertxobait txikiagoa Letonian, Hungarian, Danimarkan, Espainian, Italian eta Lituanian (1.6. grafikoa). Gainera, Maltan eta Eslovenian izan ezik, EB-27ko gainerako herrialdeetan ere pobrezia edo gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua handiagoa da gazteen artean, biztanleria osoan baino. Zalantzarik gabe, gazteen langabezia-tasa handia da Europako gazteen pobretze-prozesu horren faktore nagusietako bat.



2

2. Etxebizitza-politikak, gazteen enplegua eta emantzipazioa Europan

2.1. SARRERA

Kapitulu honen helburua da Europako gazteriaren emantzipazio-prozesuen ikuspegi globala ematea, bi bide hauek baliatuta: alde batetik, zeharka, emantzipaziorako giltzarrizkoak diren bi alorretan (etxebizitza-sistemak eta gazteen enplegurako politikak) krisiak izan duen inpaktua aztertuz; eta bestetik, zuzenean, gurasoekin bizi diren gazteei buruz eskura dauden estatistikak oinarri hartuta.

2.2. EUROPAKO ETXEBIZITZA-SISTEMAK EMANTZIPAZIOAREN ETA KRISIAREN AURREAN

2.2.1. Europako etxebizitza-sistemak: esparru teorikoa

Herrialde bateko etxebizitza-sistema da tartean dauden aktore guztien ekintza etengabe eta aldiberekoaren emaitza, baina, funtsean, hiru multzo handi hauen ekintzek mugatzen dute: familiak, eskaeraren aldetik eta etxebizitzaren erabiltzaile gisa; eraikitzaileak, sustatzaileak eta finantza erakundeak, eskaintzaren aldetik; eta sektore publikoa, arauketan eta etxebizitza-politikaren diseinuan eta egikaritzean (zuzenean edo zeharka) erantzukizuna duen aldetik. Horrenbestez, honako faktore hauen mende dago: testuinguru sozioekonomiko eta demografikoa, denboran zehar gauzatutako etxebizitza-politikak, etxebizitzaren merkatuaren ezaugarriak, arloko legedia eta hiri-plangintza.

Etxebizitza-sistemen arteko desberdintasun eta antzekotasunak sakon aztertu dira gaiari buruzko nazioarteko ikerketa konparatuen bidez. Azterlanak egiteko sarritan erabili dira, besteak beste, honako aldagai hauek: etxebizitza-parkearen egoera fisikoa, etxebizitza edukitzeko erregimenaren arabera banaketa, etxebizitzaz hornitzeko sistemak, etxebizitza sozialak esleitzeko irizpideak, etxebizitza faltaren izaera eta larritasuna, eta eskatzaileen zailtasun ekonomikoak etxebizitza eskuratzeko.

Azken hogeitun urteotan, Europako etxebizitza-sistemen zenbait sailkapen egin dira, aztergai hartutako ezaugarrien arabera. Funtsean, sailkapen gehientsuenak bi multzo handi hauetako batean sartzen dira: Esping-Andersenengandik ongizate-estatuaren ereduak oinarri hartuta egindako sailkapen tipologikoak (Castles eta Ferrera, 1996; Castles, 1998; Hoekstra, 2003), eta etxebizitza edukitzeko erregimenaren arabera egindako sailkapen tipologikoak (Kemeny, 1995, 2005; Harloe, 1995; Balchin, 1996; Castles eta Ferrera, 1996; Castles, 1998).

Etxebizitza edukitzeko erregimena ardatz hartuta egindako sailkapen guztien artean, Kemenyk (1995, 2005) egin zuen lana izan da eragin handiena lortu duena. Sailkapen hori alokairu sozialeko parkean oinarritzen da, eta bi motako herrialdeak bereizten ditu: sistema unitarioak eta sistema dualak. Unitarioetan alokairu sozialaren segmentua handia da, eta esleitzeko sistemak ez ditu soilik aintzat hartzen gizarte-egoera ahuleko taldeak, populazioaren multzo zabal bat baizik (unibertsala); horrenbestez, alokairuen merkatuan nagusi da eta gainerako aukeretan eragina du, beraz, portaera unitarioa da merkatu horretan guztian. Europako iparraldeko herrialdeak, Holanda eta Alemania sailkatu ohi dira etxebizitza-sistema unitarioak dituzten herrialde gisa, Kemenyren irizpideak oinarri hartuta. Bestalde, sistema dualetan etxebizitzaren jabe izatea gehiengoaren aukera da eta alokairu soziala txikiagoa da eta baztertuta geratzeko arriskuan daudenak ditu helburu, batez ere. Horrenbestez, segurtasun-sarearen eginkizuna betetzen du alokairu sozialak, eta alokairu pribatu eta sozialaren artean desberdintasun handia dago (dualak dira). Mota hori etxebizitza-sistema liberalaren bereizgarria da (Erresuma Batua, Irlanda), bai eta Europako hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeetako ere.

Kemenyren sailkapen horren ildotik, Hoekstrak (2009) etxebizitza-sistemak unitarioak edo dualak zirela egiaztatzeko metodo bat garatu zuen, lau irizpide hauen bitartez: (i) etxebizitzaren jabe diren familien portzentajea, (ii) jabetzako etxebizitzaren kalitatea, alokairu sozialeko etxebizitzaren kalitatearekin alderatuta, (iii) diru-sarrera gutxien dituzten familien kontzentrazioa alokairu sozialeko etxebizitzaren parkean, eta (iv) alokairu pribatu eta sozialaren kostuen artean dagoen aldea.

Hala ere, Europako herrialde askotan alokairu sozialaren etxebizitzaren parkea pixkanaka pribatizatu da, laurogei eta laurogeita eta hamarreko hamarkadez geroztik; alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzak hedatu dira, etxebizitza-politikaren tresna gisa, etxebizitza sozialak sustatu ordez, eta sektore publikoak gero eta gehiago bultzatu du jabetza. Horrenbestez, Kemenyren sailkapena Europan aplikatzea gero eta zailagoa da.

2.2.2. Europako etxebizitza-sistemak eta ongizate-estatuaren ereduak

Ongizate-estatuaren ereduaren sailkapenak ez dituzte etxebizitza-sistemak aintzat hartu; aitzitik, Esping-Andersenek (1990) egin bezala, beste alderdi batzuk kontuan izan dituzte; esate baterako, lan-merkatua, gizarte-segurantzaren sistemak eta eredu fiskala. Horren ondorioz, herrialde bakoitzaren ongizate-estatuaren ereduak herrialdearen ezaugarri buruzko argibide batzuk ematen dizkigu (Stephens *et al.*, 2010) baina ez digu balio haren etxebizitza-sistema zuzenean esplikatzeko. Hala eta guztiz ere, hainbat ikerlanek aztertu dituzte bien arteko erlazioak (ikus, besteak beste, Matznetter, 2002; Hoekstra, 2003; Stephens *et al.*, 2010). Adibidez, Esping-Andersenek egindako ongizate-erregimenen sailkapena oinarri hartuta, Hoekstrak (2003) etxebizitza-sistemak aztertzeko analisi-metodo deduktibo bat garatu zuen, ongizate-estatuaren hiru alderdi hauek kontuan hartuta: etxebizitzaren desmerkantilizazioa,⁴ diru-laguntzen eta prezioen arauketaren bidez; estratifikazioa, etxebizitza sozialak esleitzeko arauen bitartez; eta aurreko bi alderdi horien inpaktua etxebizitzaren eskaintzan.

Azken urteotan, ikerketen beste ardatz bat izan da etxebizitzaren jabetzari buruzko tasen eta ongizate-estatuaren mailen arteko erlazioa. Zeharkako behaketak oinarri hartuta, hainbat ikerlan bat datoz: etxebizitzaren jabetzaren tasa handiko herrialdeek ongizate-estatuaren maila apalagoa izateko joera dute (Castles eta Ferrera, 1996; Castles, 1998). Halaber, korrelazio handia dago etxebizitzaren jabetzaren tasa txikien eta pentsio-sistema sendoen artean, eta alderantziz (Doling eta Horsewood, 2011).

⁴ "Desmerkantilizazio" kontzeptuak adierazten du zerbitzu jakin batzuk hornitzen direla merkatu libretik kanpo.

2.2.3. Krisiaren ondorioak Europako etxebizitza-sistemetan

Krisia, eta, bereziki, aurrekontuak doitzeko egungo politikak direla-eta, Europako herrialde gehienak etxebizitza-politikan dituzten planteamenduak aldatzen ari dira. Aldaketa nagusiak honako puntu hauetan laburbiltzen dira:

- (i) Alokairu sozialeko etxebizitzaren parkearen murrizketa. Joera hori krisialdiaren aurretik ere nabarmentzen zen, eta azken urteotan areagotu da, bai etxebizitza horiek saldu eta diru-sarrera publikoak handitzeko eta mantentze- eta kudeaketa-gastuak murrizteko, bai aurrekontu-murrizketen ondorioz sustapen sozial berrien kopurua murriztu delako. Horrenbestez, etxebizitza soziala lortzeko itzarote-zerrendak handiagoak dira (Pittini, 2012; CECODHAS, 2012).
- (ii) Etxebizitzaren jabe izatea sustatzea, zenbait neurri baliatuta; esate baterako, eragingarri fiskalak eta zuzeneko diru-laguntzak, bai eta jabetza mistoak ere, adibidez jabetza partekatua (Laino eta Pittini, 2011). Herrialde batzuetan neurri horiek planteatzen dira higiezin burbuila lehertu zenean hutsik geratutako etxebizitza berrien stock handia murrizteko bide gisa.
- (iii) Gobernu zentralaren eginkizunaren murrizketa etxebizitza-politikaren prestaketan, inplementazioan eta finantziazioan, eta ahal horiek beheragoko gobernu-mailetara transferitzea: eskualdeak, metropolietako gobernuak eta udalerrriak (CECODHAS, 2012). Gehienetan transferentziekin batera ez dira bideratzen zeregin horietarako baliabide nahikoak.
- (iv) Etxebizitza sozialak sustatzeko sektorearen berregituraketa (CECODHAS, 2012).
- (v) Etxebizitza ordaintzeko laguntzen kopuruak eta zenbatekoak murriztea (zenbait sistemetan garrantzi handikoak etxebizitza alokatuetan bizi diren pertsonentzat) eta herrialde batzuetan zuten izaera unibertsala galtzea, behar handienak dituzten kolektiboak soilik helburu hartzeko.
- (vi) Etxebizitzarekin lotutako fiskalitatearen gorakada, eta, horrenbestez, hari lotutako kostuen igoera.

Etxebizitza-politikaren planteamendu neoliberalago horrek, gutxiago esku hartzen duenak, ondorio hauek ditu, besteak beste:

- (i) Etxebizitza alokatuen eredu dualen gorakada, eta, herrialdeen artean dauden desberdintasunak gorabehera, etxebizitza-sistema guztiak bateratzeko joera handiagoa.
- (ii) Etxebizitza eskuratzeko gaitasun ekonomikoa okerragotzea. Krisialdiaren aurretik, etxebizitzaren prezioen gorakada handiak sortu zuen arazo hori; baina, higiezin burbuila lehertu ondoren, arazoa gero eta larriagoa da, prezioen gainbehera gorabehera; izan ere, familien diru-sarrerak gehiago urritu dira, eta etxebizitzaren kostuei aurre egiteko laguntza publikoak ere murriztu dira (Pittini, 2012).
- (iii) Pobrezia energetikoaren arazoaren gorakada⁵, hipoteka edo alokairua edota etxebizitzako zerbitzuak berandu ordaintzea, eta ez ordaintzeagatik egiten diren hipoteka-betearazpenak eta kaleratzeak. Alderdi horiek guztiak estu-estu lotuta daude eskuragarritasun ekonomikoaren gaur egungo krisiarekin (CECODHAS, 2012).

⁵ Pobrezia energetikoa da neguko hilabeteetan etxebizitzan tenperatura egokiari eusteko gaitasunik ez izatea, arrazoi ekonomikoen ondorioz. Zenbait faktorek eragina dute: familiaren baliabide ekonomikoak, etxebizitzaren isolamendu termikoa, energiaren prezioa, eta klima. Erresuma Batuan jotzen da familia bat pobrezia energetikoa dagoela diru-sarreraren % 10etik gora erabili behar baditu neguko hilabeteetan etxean tenperatura egokiari eusteko (Marmot Review Team, 2011).

2.2.4. Europako gazteen emantzipazioan eragindako ondorioak

Higiezinen burbuilaren garaian eta hura lehertu ondoren Europako etxebizitza-sistemek izan duten bilakaera gazteen etxebizitza-emantzipazioaren guztiz aurkakoa izan da. Hazkunde ekonomikoaren urteetan, etxebizitzaren kostuaren eta gazteen diru-sarreraren arteko erlazioa, hau da, etxebizitza eskuratzeko gaitasun ekonomikoa, pixkanaka hondatu zen, etxebizitzaren prezioak gora egitearen ondorioz. Erosteko erabakia hartu zuten gazteen artean, asko izan ziren zor handitan sartu zirenak. Alokatzeari erabaki zuten gazteek, emantzipazioaren lehenengo urratsetako ohiko ziurgabetasuna (lanekoa, ekonomikoa eta geografikoa) kontuan hartuta egokia zelakoan, inflazio handiko merkatua aurkitu zuten, gero eta eskaintza urriagoa, eta, orokorrean, gero eta kalitate kaskarragoa.

Krisialdian, gazteak egoera zailean daude etxebizitzaren merkatuan: langabezia-tasa handia da gazteen artean, gazteek osatutako familietan diru-sarrerak behera egin dute, hipoteka-kredituak eskuratzeko zailtasun handiagoak daude *credit crunch*-aren ondorioz, etxebizitza-politiketan murrizketak egin dituzte, oro har, batez ere etxebizitza sozialen sustapen berrietan eta alokairua ordaintzeko laguntzetan. Testuinguru horretan bi elementu erabakigarri nabarmentzen ari dira: alde batetik, familiek emantzipazio-prozesuan laguntzeko duten gaitasun ekonomikoa eta ondarea, eta bestetik, gazteen txertaketa lan-merkatuan.

2.3. ENPLEGU-POLITIKAK ETA GAZTEEN LANGABEZIA EUROPAR BATASUNEAN


2.3.1. Enplegu-tasen eta langabeziaren bilakaera

Krisialdiaren aurretik, gazteen langabeziaren etorkizuneko bilakaerari buruzko iragarpenak oso optimistak ziren, langabezia murriztuko zuten egiturazko bost faktore nagusi hauek bat egitearen ondorioz (Contini, 2012): (i) biztanleriaren zahartzea eta erretiro aurreratuen gorakada, (ii) eskulan gaztearen kostu merkeagoa, (iii) gazteen kontratuak malgutzeko gero eta aukera handiagoak, lege-aldaketaren ondorioz, (iv) belaunaldi berrien prestakuntza-maila handiagoa, eta (v) gazteen sindikalizazio txikia.

Alabaina, errealitatea oso bestelakoa izan da. Oso denbora laburrean hainbat lantoki deuseztatu dira, eta adin-talde guztiek ez dute pairatu enpleguaren beheraldi hori bizitasun berberarekin (2.1. grafikoa). 2008tik 2012ra bitartean,⁶ EB-27ko 15 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleen enplegu-tasa bi puntu jaitsi zen: % 65,8tik % 64,2ra. Biztanleria gazte aktiboari dagokionez, askoz ere enplegu gehiago galdu dute. 15 urtetik 19 urtera bitartekoek, berez, lanean aritzeko zailtasun handiagoak izaten dituzte, eta horrez gainera, beherakada bikoitza izan zuten, lau puntukoa (% 19,0tik % 15,2ra); 20 urtetik 24 urtera bitarteko taldeak sei puntu baino gehiago egin zituen behera (% 54,9tik % 48,5era); 25 urtetik 29 urtera bitartekoak, berriz, lau puntu inguru jaitsi ziren (% 75,5etik % 71,1era), bai eta 30 urtetik 34 urtera bitartekoak ere (% 80,1etik % 76,8ra). Labur esanda, enpleguaren alorrean krisiak oso eragin handia izan du gazteen artean.

⁶ Enplegu-tasa da lana duten pertsonen portzentajea, adin-talde bereko biztanleria osoa erreferentziazat hartuta.

2.1. grafikoa

LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA.
EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)


Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Europako gazteek bizi duten enplegu-krisi larriaren beste adierazle bat gazteen langabezia-tasaren bilakaera da⁷. Hazkunde ekonomikoaren garaian, langabezia adin-talde guztietan murriztu zen, 2007ra arte, baina 2008tik aurrera, aurkako joera izan du. Harrezkero, langabezia-tasaren gorakada biziagoa izan da 15 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen artean, biztanleria aktiboaren gainerako adin-taldeetan baino. 2008tik aurrera, Europar Batasuneko gazteen langabezia-tasa izan da, gutxienez, langabezia-tasa osoaren bikoitza, eta urtetik urtera gora egin du; izan ere, 2008an % 15,6koa zen, eta 2012an, berriz, % 22,8koa. Halaber, 25 urtetik 29 urtera bitarteko adin-taldearen langabezia-tasak, askoz ere txikiagoa izan arren, antzeko bilakaera izan du: 2008tik 2012ra bitartean % 8,6tik % 13,8ra igo zen. Aitzitik, 30 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen artean, langabeziaren bilakaera 15 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleria aktibo osoaren ia berdina da (2.2. grafikoa). Oro har, EB-27ko langabezia-tasa % 10,6ra iritsi zen 2012an; hau da, balio absolutuari erreparatuta, 25 milioi pertsonatik gora zeuden lanik gabe.

⁷ Langabezia-tasa da lanik gabe dauden pertsonen portzentajea, biztanleria aktiboa erreferentziatzat hartuta; hau da, lan bila dabilen biztanleek eta lanean ari direnek osatutako multzoa erreferentziatzat hartuta. Gazteen langabeziaren kasuan, tasa hori da 15 urtetik 24 urtera bitarteko biztanleria aktiboari dagokiona. EUROSTATen irizpideen arabera, langabeak dira lanerako prest dauden pertsonak, hiru hilabeteko epean, gehienez ere, eta lana bilatzen aktiboki dihardutenak.

2.2. grafikoa

LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA.
EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)




Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Langabeen kolektiboaren barruan, bereziki kezka garria da luzaroko langabeen (alegia, gutxienez urtebete lan bila dabiltzan pertsonen) portzentaje handia. Izan ere, luzaroko langabe horien artean pobrezia, zaharkitze profesionala edo estigmatizazioa pairatzeko arriskua oso handia da (Contini, 2012).

2009tik 2012ra bitartean, luzaroko langabeziak 10 puntu baino gehiago egin zuen gora EBn, oro har, eta 15 urtetik 64 urtera bitarteko langabeen artean luzaroko langabeen tasa % 44,4ra iritsi zen (2.3. grafikoa). 15 urtetik 24 urtera bitarteko taldean gorakada oso antzekoa izan zen (9,2 puntu) baina krisialdiaren aurretik multzo horretan eragin txikiagoa zuenez, EB-27ko gazteen luzaroko langabezia % 32,4koa zen 2012an.

2.3. grafikoa

LUZAROKO LANGABEEN (12 HILABETE EDO GEHIAGO) PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, LANGABE GUZTIEKIKO, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)


Gazteen luzaroko langabezia txikiagoa izateko lagungarria den faktore bat da, lana aurkitzeko dituzten arazo handien ondorioz gazte askok berriro ikasteari ekin diotela, edo lanbide-trebakuntzarako ikastaroak egin dituztela. Horrenbestez, inaktibitate-tasak gora egin du talde horretan, eta, jakina, luzaroko langabezia murriztu da. 2012an, Europar Batasuneko 15 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen erdia baino gehiago lan-jarduerarik gabeak ziren. Haietatik % 88 ikasketak jarraitzeko edo prestakuntza lortzeko zeuden egoera horretan.

2.3.2. Lan-baldintza berriak: aldi baterako eta lanaldi partzialeko kontratuak

Krisiak, enplegua deuseztatzeaz gainera, lan-kontratu berrien baldintzak okerragotu ditu, batez ere gazteen artean. Oro har, lanaldi partzialeko kontratuen kopuruak gora egin du krisiak eztanda egin zuenetik hasita; horrenbestez, 2012an enplegu guztien % 19,2 lanaldi partzialekoak ziren. Gazteen artean, igoera hori askoz ere handiagoa izan da, batez ere 15 urtetik 19 urtera bitartekoen artean; haien lanaldi partzialeko kontratuen tasa % 42,4koa zen 2007an, eta % 50,6koa 2012an, urte hartako 15 urtetik 24 urtera bitarteko Europar Batasuneko langileen batez besteko tasa (% 31,1) baino askoz ere handiagoa. Hala ere, esan behar da kontratu horiek aukera ona direla gazteek ikasketak eta lana bateratu ahal izateko, eta, horrenbestez, lanean pixkanaka eta errazago txertatzeko. Arazoa da gorakada hori ez datorrela bat ikasten eta lanean ari diren gazteen proportzioaren gorakadarekin, gazteen enpleguaren egonkortasunik eza baizik.

2.4. grafikoa

LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ENPLEGATU GUZTIEKIKO, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012




Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Gazteen laneratzearen beste berezitasun bat da aldi baterako kontratuen joera handiagoa dela (2.5. grafikoa). 2008tik 2012ra arte, 15 urtetik 19 urtera bitarteko enplegatuen artean aldi baterako kontratuak bi puntutik gora igo ziren, % 56,3ra iritsi arte; eta 15 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen artean, % 40,2tik % 42,1era igo ziren, bi kasuetan ere Europako Erkidegoko batez bestekoaren (% 13,7) oso gainetik.

2.5. grafikoa

ALDI BATERAKO KONTRATUEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ENPLEGATU GUZTIEKIKO, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012




Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Lan-merkatuaren egonkortasun eza hori, soldatak murrizteko egiten diren politikekin batera, oso fenomeno kezkarria sortzen ari dira: pobrezia- edo gizarte-bazterketaren arriskua gero eta handiagoa da enplegua dutenen artean, eta, bereziki, gazteen artean. 2012an, Europar Batasunean lanean ari ziren 18 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen % 12,1 zeuden egoera horretan, eta langileen populazio osoaren kasuan, berriz, % 9,4 ziren (2.6. grafikoa). Fenomeno hori oso larria da, adierazten baitu gero eta pertsona gehiagok ezin dituztela oinarritzko premiak ase beren soldatekin.

2.6. grafikoa

POBREZIA EDO GIZARTE-BAZTERKETA PAIRATZEKO ARRISKUAN DAUDEN PERTSONA LANDUNEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2012



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

2.3.3. Europako Erkidegoko enplegu-politikaren aurrekariak: malgu-segurtasuna

Lanaren alorreko krisi honi ematen zaion erantzun politikoa aztertu aurretik, Europako Erkidegoko enplegu-politikaren orain dela gutxiko aurrekariak erreparatu behar zaie.

2000ko martxoan Lisboan bildutako Europar Kontseiluak definitu zuen Europako Enplegu Estrategia (EEE), Lisboako Estrategia, Lisboako Agenda edo Lisboako Prozesua ere esaten zaiona. Estrategia horrek, gero 2003an berrikusi zenak, honako asmo hauek zituen: ezagutzaren ekonomian oinarritutako hazkunde ekonomiko eutsia sortzea, lehiakortasuna hobetzea, enplegu betea lortzea, eta Europar Batasunean kohesio sozial handiagoa izatea. Labur esanda, Europako Enplegu Estrategia esku hartzeko lau ardatz hauetan oinarritzen zen: lanean txertatzeko gaitasuna hobetzea, enpresa-espirtua garatzea, langileen eta enpresen egokitzeko gaitasuna sustatzea, eta lan-merkatuan aukera-berdintasunaren aldeko politikak sendotzea.

Urte batzuk beranduago, 2007an, krisialdia hastear zegoenean, Europako Batzordeak komunikatu bat egin zuen, Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari helarazteko. Komunikatu horretan adierazten zuen nola planteatu behar zen enplegu-politika Europar Batasunean, Lisboako Tratatuan jasotako helburuak lortzeko (EEE, 2007). Bertan, Batzordea argi eta garbi ageri zen "malgu-segurtasunaren"⁸ printzipioak ezartzearen alde. Kontzeptu horrek bermatu nahi ditu, aldi berean, malgutasuna eta segurtasuna lan-merkatuan. Arlo praktikoan, Batzordeak planteatu zuen malgu-segurtasuna honela garatzea:

- (i) kontratu-xedapen malguak bideratuko dituen lan-arloko legeria; hau da, erraztasun juridiko eta ekonomikoak, bai kontratatzeko, bai kaleratzeko,
- (ii) prestakuntza- eta ikaskuntza-programa iraunkorrak langileentzat eta langabeentzat,

⁸ Europako testuinguruan, Danimarkako lan-sistema da malgu-segurtasunaren adibide paradigmaticoena, eta, neurri txikiagoan, bai eta Austriako eta Holandako sistemak ere.

- (iii) lan-merkatuko politika aktibo eraginkorrak, lanik gabeko aldiak murriztu eta lanpostu berrietarako trantsizioak bideratuko dituztenak,
- (iv) eta gizarte-segurantzako sistema oparoak, errenta egoki bermatuko dutenak, enplegua eta langileen mugikortasuna sustatuko dituztenak.

Ikusten den bezala, malgu-segurutasunak nolabaiteko oreka bilatu nahi du liberalizazioaren eta gizarte-estalduraren artean. Horretarako, eskaintzaren aldetik jokatzen du, bai eta lan-merkatuaren eskaeraren aldetik ere. Baina, Algan eta Cahuc (2009) ikertzaileek adierazi bezala, Batzordeak giltzarrizko alderdi bat ez du kontuan hartzen: erakundeen eginkizuna eta erakunde horien aldeko konfiantza. Fidagarriak ez badira eta herritarren konfiantza bereganatu ez badute, oso zaila da malgu-segurutasunak bere helburuak lortzea. Jakin badakigu, Europar Batasuneko herrialdeen barruan askotariko egoerak daudela: iparraldeko estatu sozialdemokratikoetatik hasi eta Mediterraneoko eta Europako ekialdeko herrialde batzuetara iritsi arte, azken horietan eraginkortasun- eta konfiantza-maila oso urriak dituztela.

Alabaina, komunikatu hura eman eta berehala, krisiak Europako lan-merkatua astintzeari ekin zion. Horrenbestez, Batzordeak nabarmen aldatu zuen bere jarrera, enplegu gehiago eta hobea sortzeko moduari dagokionez.

2.3.4. Europar Batasunaren gaur egungo programa, gazteen langabeziari aurre egiteko: Gazte Bermea eta Ikastunentzako Programa

Krisiak gazteen langabezian duen inpaktu handia dela-eta, Europar Batasunak zenbait aldiz berritu ditu bere planteamenduak, arazo horri heltzeko moduari dagokionez. 2009an Europar Kontseiluak onetsi zuen gazteriaren alorreko lankidetzarako zeharkako esparrua birformulatzea, bi helburu handi hauek kontuan hartuta: alde batetik, gazteentzako aukera gehiago sortzea hezkuntzaren eta lanean txertatzearen alorrean; eta bestetik, gazteen artean parte-hartze aktiboa, inklusio soziala eta solidaritatea sustatzea (European Commission, 2012a, 2012b). Geroago, 2011tik aurrera, erabaki zuen egitura-funtsak gazteen langabeziari aurre egiteko bideratzea, gazteentzako aukeren ekimenari dagokion programaren esparruan.

Alabaina, neurri-sorta nagusia 2012an eratzen hasi zen, Batzordeak emandako zenbait gomendioren bidez. Gomendio horiekin bat eginez, 2013ko otsailean Europar Kontseiluak gazteen enpleguari buruzko ekimen bat proposatu zuen, 6.000 milioi euroko aurrekontua zuena, 2014-2020 epealdirako. Ekimen hori gazteen langabezia % 25etik gorakoa zuten herrialdeentzako zen, eta Europako Gizarte Funtseko inbertsioekin finantzatzen zen % 50ean, eta gainerako % 50, berriz, berariazko aurrekontu-lerroaren bidez (European Commission, 2013a, 2013b). Arlo praktikoan, ekimen horren garapena estatu kideen eskumena da, eskualdeko eta nazioeko premia berezien arabera.

Gazteen enplegua hobetzeko eta gero eta nabarmenagoa den *ez-ez*⁹ fenomeno minimizatzeko Europako Erkidegoko programa nagusiak Gazte Bermea eta Ikastunen Prestakuntzarako Europako Aliantza dira. Gazte Bermearen xedea da enplegua galtzen duen edo ikasketak amaitzen dituen edozein gazteri bermatzea lau hilabeteko epean kalitatezko enplegu-eskaintza izango duela, edo bestela, prestakuntzan edo hezkuntzan jarraitzeko aukera izango duela. Ikastunen Prestakuntzarako Europako Aliantzak, berriz, Europar Batasuneko ikastun-kontratuen kalitatea eta eskaintza hobetzea du helburu.

⁹ Bestalde, ez-ez esaten zaie hezkuntza-sistema utzi duten gazteei: ez dute lanik egiten, ez daude prestakuntza- edo gaikuntza-programa batean. Ingelesez NEET siglak erabiltzen dira (*not employed, education or training*).

2014ko urtarrilean, 17 estatu kidek (Belgika, Bulgaria, Kroazia, Txipre, Txekiar Errepublika, Espainia, Frantzia, Grezia, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Errumania eta Suedia) Gazte Bermearen inguruko planak bidali zizkioten Europako Batzordeari, eta gainerako 11 herrialdeak (Alemania, Austria, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Estonia, Finlandia, Luxenburgo, Malta eta Herbehereak) plana definitzeko estrategiak prestatzen ari dira.

Antolaketaren arloan, programa horiek diseinatzeko eta egikaritzeko, eta egitura-funtsak eraginkortasunez eta efizientiaz erabiltzen zirela bermatzeko, Batzordeak sortu zituen, estatu kideekin batera, gazteen enplegurako ekintza-lantaldeak.

Programa-multzo horren oinarrian dagoen euskarri teorikoa da prestakuntzarako eta lanbide-trebakuntzarako sistema sendo, efiziente eta moderno batek enplegu-aukera gehiago emango dituela. Egiakzi, beste herrialde batzuetako esperientziak oinarri hartuta (Austria, Finlandia), elementu hori funtsezkoa da gazteen enplegu-tasa handiak lortzeko, baina ez da faktore bakarra. Enplegu-politika horrek eskulana trebatzeari soilik erreparatzen dio, funtsezko lau elementu hauek alde batera utzita: (i) lanaren segurtasuna, ezinbestekoa gazteek beren bizi-proiektuak aurrera ateratzeko, (ii) gazteen enpleguaren kalitatea, soldataren eta bizi-kostuaren arabera, (iii) herrialde bakoitzeko produkzio-ehunean sortutako desorekak, lantokiak eta haien ezaugarriak mugatzen dituztenak, eta (iv) estatu kideek enplegu-politika aktiboetan gastu publikorako gaitasun desberdinak, gaur egun jada diferentzia handiak adierazten dituztenak (A. 19. eranskineko grafikoa), eta handitzea konplikatu izan daitekeela aurreikusten da; izan ere, Europar Batasunak berak, bestalde, aurrekontuen herstura defendatzen du.

Gaur egun, Europako Batzordeak aho betean defendatzen du postulatu neoliberalak aplikatzea lan-merkatuan (European Commission, 2013a, 2013b), hau da, merkatu horren malgutzea sustatzen du, kaleratzeko betekizun juridikoak eta jaso beharreko indemnitazioa murriztuz edo kenduz (bereziki, kontratu finkoetatik sortutako eskubideei dagokienez) eta aldi baterako kontratuen edo antzeko konponbideen alde eginez. Aitzitik, ez du agendan sartzen lanaren segurtasuna sustatzeko inolako elementurik, lehen hala defendatzen bazuen ere, malgu-segurtasunaren testuinguruan. Horren haritik, Gazte Bermea ezin da segurtasunerako tresnatzat hartu, ez baitu langabea babesten ekonomiaren aldetik. Tejerina *et al.* (2013) ikertzaileen arabera, enpleguaren alorrean, krisiaren izaera sistemikoaren ondorioz egitura-aldaketa handia sortzen ari da. Horrenbestez, egoera horren ezaugarriak hauek dira: enplegu egonkor eta arautua, lan-merkatuaren desarautzea eta polarizazioa, eta laneko eskubideak galtzea.

Arazoa da lan-merkatuaren desoreka, lan-eskaeran ez ezik, lan-eskaintzan dagoela. Europako produkzio-ehunak berebiziko aldeak ditu, eskualdeen arabera. Langabezia-maila handiak dituzten eremuek, eskuarki, produktibitate urriagoa, garapen teknologiko txikiagoa, eta berrikuntzaren eta ikerkuntzaren alorrean gastu gutxiago dute. Gainera, krisia eragin duen kreditu-murrizketak hainbat arazo sortu dizkie ekonomikoki bideragarriak diren enpresa txiki eta ertainei. Zuzenean lan-eskaintzan (hau da, enpleguaren sorreran) eragiten duten politikarik gabe, eta langabezia-estaldura gero eta urriagoa denez, baliteke Europako Erkidegoko egungo politikak: (i) arrakasta mugatua izatea gazteen langabezia-mailan, epe labur eta ertainean, testuinguru makroekonomikoak nabarmen hohera egiten ez badu, (ii) Europako Erkidegotik kanpoko immigrazioaren gorakada handia eragitea gune aberatsenetan eta eskualde apalenetan, jada gertatzen ari den bezala, eta (iii) aurreko bi puntu horien ondorioz, eskualdeen arteko eta eskualde barruko dualizazio sozial eta ekonomikoa areagotzea.

2.3.5. Enplegu-politiken alorreko gastu publikoa Europan

Enplegu-politika da lan-merkatuaren akatsak konpontzea helburu duen esku-hartze publikoa; horrenbestez, haren xedea da biztanleria aktibo guztiak lana izan dezala, eta galduz gero, babes ekonomikoa izan dezala, beste lan bat aurkitu arte, ahalik eta azkarren.

Xede hori lortzeko tresnak bi multzotan sailka daitezke: alde batetik, lehen mailako enplegu-politikak, hau da, lan-merkatua arautzeko legegintza-ahala; eta bestetik, bigarren mailakoak izeneko enplegu-politikak, pasiboak edo aktiboak izan daitezkeenak. Enplegu-politika pasiboak dira lanik gabeko pertsonak babesten ahalegintzen direnak; esate baterako langabezia-prestazioa eta antzeko neurriak. Aitzitik, enplegu-politika aktiboak dira laneratzea sustatzea eta enpleguari eustea helburu dutenak.


Gai horri buruz eskura dagoen informazio estatistikoa baliatuta, azter daiteke Europar Batasuneko enplegu-politiken bilakaera, gastu publikoaren atal handi bakoitza barne-produktu gordinareneko zenbateko portzentajea den kalkulaturik. Hiru atal handi dira:

- (i) enplegu-zerbitzu publikoen kostua aholkularitzan, enpleguaren bilaketa aktiborako laguntzan, bitartekotzan eta abar;
- (ii) enplegu-politika aktiboak: prestakuntza, lan partekatua eta lan txandakatuaren sustapena, enplegua sustatzea, enplegua eta lanbidean berriro txertatzea bultzatzea, lantokiak sortzeko zuzeneko laguntzak, edo enpresa berriak sortzeko pizgarriak;
- (iii) eta enplegu-politika pasiboak; hau da, langabezia-sorospenak eta erretiro aurreratua hartzeko pizgarriak.

Europar Batasunean, oro har, 2008tik 2010era bitartean, politika pasiboetan egindako gastua izan da nabarmen igo den bakarra: 2008an barne-produktu gordinareneko % 0,97koa zen, batez beste, eta 2010ean, berriz, % 1,37koa. Gorakada horren zio bakarra da langabezia-sorospenetan egindako gastu handiagoa, langabezia-tasak gora egitearen ondorioz (2.7 grafikoa).

2.7. grafikoa

EUROPAR BATASUNEAN ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA (EB-27), 2005-2010



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

Hortaz, 2010era behintzat, Europar Batasunean, oro har, ez da ikusten inolako erreakziorik, gero eta handiagoa den langabezia-tasaren aurrean, enplegu-politika aktiboan egindako gastu publikoari dagokionez. 2014tik aurrera, EBko gazteen enplegurako programak bete-betean abian jartzean, politika aktiboen alorreko gastuak gora egitea espero daiteke.

2.4. KRISIAREN INPAKTUA EUROPAKO EMANTZIPAZIO-PROZESUETAN

2.4.1. Metodologia-kontuak

Atal honetan aztertuko dugu krisiak, langabeziaren igoeraren eta lan-baldintza berrien bitartez, zer-nolako eragina izan duen Europako gazteen etxebizitza-emantzipazioaren prozesuetan. Azterlan honek oinarri hartzen ditu gurasoekin bizi ez diren gazteen portzentajeak, EU-SILC inkestaren arabera, printzipalitate-tasa kontuan hartu beharrean¹⁰. Ikuspegi metodologiko bat edo bestea aplikatzearen ondorioz, emaitzak nabarmen desberdinak dira. Printzipalitate-tasak adierazten digu soilik lurralde-esparru jakin jatean familia gazteetan emantzipatuta bizi diren pertsonen buruzko informazioa. Aitzitik, kontuan hartu den adierazlea zabalagoa da, gurasoekin edo gurasotzat hartzen dituztenekin jada bizi ez diren gazte guztiak, bai herrialde berean bizi direnak, bai beste herrialde batera emigratu dutenak, bai gaztea ez den eta gurasoena ez den beste familia batean bizi direnak ere.


2.4.2. Europako gazteen etxebizitza-emantzipazioa: alderdi orokorrak

2006tik 2011ra bitartean, EB-27an, oro har, gurasoekin bizi ziren 18 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen portzentajeak puntu eta erdi gora egin zuen: 2006an % 46,7 ziren, eta 2011n % 48,3 (2.8. grafikoa). Adin-taldeei erreparatuta, emantzipazio-prozesuetan atzerakada handiena gertatu da 18 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen artean. Haien emantzipazio-tasa txikiagoa izan ohi da beti, eta gurasoekin bizi ziren gazteen proportzioak bi puntutik gorako igoera izan zuen. Horrenbestez, 2011n % 79,6 gurasoekin bizi ziren. Aitzitik, 25 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen multzoan portzentaje hori puntu bat baino zertxobait gehiago baino ez zen igo: % 27,0tik % 28,2ra.

¹⁰ Printzipalitate-tasa da familiako "erreferentziazko pertsona" diren gazteen portzentajea, adin bereko gazteen guztirako kopuruarekiko.

2.8. grafikoa

GURASOEKIN BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Alabaina, gurasoekin bizi diren pertsonen gorakada hori ez zen bat-batean gertatu 2008tik aurrera, krisiak eztanda egin ostean; aitzitik, portzentaje horren bilakaera konstantea da, pixkanaka gora egin duena, krisiaren aurretik hasi zena eta 2011tik aurrera zertxobait nabarmenagoa dena. Emantzipatutako gazteen portzentajearen krisiak izan duen inpaktu erlatiboki txiki horrek hiru esplikazio osagarri ditu:

- (i) krisi ekonomikoak jarraipena eman dio emantzipazio-krisiari; krisi hori egungo egoera ekonomikoaren aurretik sortu zen, batez ere aurreko urteetako higiezinaren burbuilagatik eta prezioen gorakada handiagatik;
- (ii) denboraren aldetik, desfasea dago krisiak eztanda egindako unearren eta emantzipazio-tasetan izandako inpaktuaren artean; beraz, aurreikus daiteke ondorengo urteetan ere gora egingo duela gurasoen etxean bizi diren gazteen portzentajeak;
- (iii) krisiak emantzipazio-prozesuetan duen benetako inpaktua askoz ere sakonagoa da. Alde batetik, emantzipazioa atzeratzea eragin du krisiak, edo gazteak gurasoen etxera itzultzea, baliabideak eta segurtasun ekonomikoa falta zaielako; baina, bestetik, enplegua suntsitzearen ondorioz, eta epe laburrean lana izateko itxaropen faltagatik, mugikortasuna handiagoa da, etxebizitzari dagokionez, lana bilatzeari lotuta, eta horrek emantzipazio-tasa handiagoak eragin ditu. 2010etik 2012ra bitartean, EBko milioi bat biztanle baino gehiagok (haien % 60 EBko herrialde bateko nazionalitatea zuten) beste herrialde batean aurkitu zuten lana. Kahanec *et al.* (2013) ikertzaileen arabera, emigrante horietako asko krisiaren eraginpeko Europako hegoaldeko gazte langabeak edo ikasleak ziren, hala nola Espainia eta Grezia, edo ekialdeko herrialdeetakoak (batez ere Bulgaria, Errumania, Lituania eta Polonia), ekonomia aberatsagoetara joan zirenak, esate baterako, Alemaniara edo Erresuma Batura. Barne-migrazio horien eragin handiaren ondorioz, joera horrek jarraituz gero, EBko lan-merkatuaren berregituraketa osoa gertatuko litzateke. Horregatik, emantzipazioan ondorio antagonikoak eragiten dituzten bi dinamikak uztartzearen emaitza da gurasoekin bizi diren gazteen portzentajeak puntu eta erdi soilik egin duela gora 2006tik 2011ra bitartean.

2.4.3. Emantzipatu gabeko gazteak: lan- eta prestakuntza-egoera, eta emantzipatzeko aukerak


Gurasoekin bizi diren gazteen lanaren eta prestakuntzaren alorreko egoeraren bilakaerari erreparatuta, aztertu dezakegu zer-nolako inpaktua izan duen krisiak bilakaera horretan. Halaber, aurreikus dezakegu, oro har, emantzipazio-ereduen etorkizuneko joera nolakoa izango den epe laburrean.

2006tik 2011ra bitartean, EBko emantzipatu gabeko gazteen multzoaren egoerak izan duen bilakaeran eragin nabarmena izan du krisiak. Epealdi horretan, honako joera hauek ikusten dira emantzipatu gabeko gazte horien artean (2.9. grafikoa):

- (i) Langabeziaren igoera nabarmena 2008tik aurrera, gurasoen etxean bizi diren 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen % 12,5era iritsi arte, 2008ko portzentajea hiru puntuz gaitduta.
- (ii) Lanaldi osoko lana duten gazteen proportzioak beherakada handia izan zuen 2008tik aurrera, % 38ra iritsi arte, epealdi guztiko balio txikiena hori izan baitzen.
- (iii) Lanaldi partzialeko kontratuak dituzten gazteen portzentajearen geldialdia, bai eta igoera txiki bat ere. Bilakaera horrek adierazten du lanaldi partzialeko kontratazioak gorakada garrantzitsua izan duela azken hamarkadan gazteen artean (2.4. grafikoa).
- (iv) Emantzipatu gabeko gazteen artean ikasleen portzentajeak gora egin du beti 2006-2011 epealdian. Gorakada horrek, gurasoen etxetik kanpo ikasketak egiteko laguntza publikoen edo familiaren laguntzen murrizketa adierazteaz gainera, honako joera hau ere adierazten du: lanik gabe geratu ostean hezkuntza-sistemara itzuli eta prestakuntza hobetzeari ekiten dioten gazteen kopuruak gora egin du.

2.9. grafikoa

18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN LAN- ETA PRESTAKUNTZA-EGOERAREN BILAKAERA. EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011 (%)




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Horrenbestez, 2008tik aurrera, emantzipatu gabeko gazteek atzera egin dute, argi eta garbi, lan-baldintzetan. Aurreikus daiteke horrek pixkanaka luzatuko duela gurasoen etxean egingo duten epealdia, edo bestela gerta daiteke lanagatik emigratzeko joerak indar handiz gora egitea aurrerantzean ere, eta horrek emantzipazio-tasak handitzen laguntzea.

Adin-taldeei erreparatuta, 18 urtetik 24 urtera bitarteko emantzipatu gabeko pertsonen artean, eta 25 urtetik 34 urtera bitarteko taldean, lanaren eta prestakuntzaren alorreko egoeraren bilakaerak eredu berberen araberakoak dira, baina bien arteko egiturazko desberdintasunekin; hau da, jarduera-tasa handiagoa (lanean ari diren pertsonak zein langabeak) 25 urtetik 34 urtera bitarteko taldean, eta hezkuntza-sisteman dauden gazteen proportzio handiagoa 25 urtetik beherako gazteen artean (2.10. eta 2.11. grafikoak). Are gehiago, bi adin-taldeen jarduera-tasen arteko aldea handiago egin da azken urteotan, hezkuntza-sistemara itzuli diren 25 urtetik beherako gazteen kopuruak gora egin duelako.

2.10. grafikoa


18 URTEK 24 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN LAN- ETA PRESTAKUNTZA-EGOERAREN BILAKAERA. EUOPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011 (%)



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

2.11. grafikoa

25 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATU GABEEN LAN- ETA PRESTAKUNTZA-EGOERAREN BILAKAERA. EUOPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011 (%)



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

3

3. Krisia eta emantzipazioa eredu sozialdemokratikoan: Finlandia eta Suedia

3.1. ONGIZATE-ESTATU SOZIALDEMOKRATIKOA

Eredu sozialdemokratikoa da Suedia, Finlandia, Norvegia, Danimarka bezalako Europako iparraldeko herrialdeen bereizgarria, eta enplegu osoa eta berdintasun-idealak lortzeko konpromiso politiko eta sozial sendoan oinarritzen da, ongizate-estatu oparoaren bitartez. Norbanakoen eskubideen eta eskubide sozialen aintzatespen zabal hori eratzeko modua dute erantzukizun kolektibo eta sozialaren maila handiagatik, eta erakunde publikoengan duten konfiantzagatik.

Eredu sozialdemokratikoan herritar izateak laguntza publikoa jasotzeko eskubide handiak ematen ditu, familiaren estatus ekonomikoa edonolako izanda ere. Hezkuntza- eta osasun-sistemak publikoak eta unibertsalak dira. Gizarte- eta familia-politikak zabalak dira, unibertsalak, norbanakoari bizitzaren etapa bakoitzean behar duen babesa ematea helburu dutenak, batez ere gaixotasun-egoeretan, lanik gabe geratzean edo erretiroa hartzean.

Eremu asko sektore publikoaren esku daude erabat, eta beste batzuetan merkatuko mekanismoak oso araututa daude; horrenbestez, eredu horretan lortzen da ekonomia kapitalistetan ezagututako desmerkantilizazio handiena. Bistakoa da sektore publikoaren hedapena handiagoa dela herrialde horietan, eta garrantzi handiko eragile ekonomikoa da.

Bestalde, eredu horren gastu publiko handiak presio fiskal handian oinarritzen dira. Horrenbestez, arriskuen sozializazio horrek desberdintasun eta pobrezia gutxi sortzen du gizarte sozialdemokratikoetan.

Hala ere, azken urteetan, Europako iparraldeko ongizate-ereduaren printzipioek atzerakada nabarmenak pairatu dituzte, bai kuantitatiboki, bai kualitatiboki. Gizarte-transferentzien kostu izugarriei eusteko arazo ekonomikoek ideologikoki ahuldu dute zerbitzu publikoen izaera unibertsala, eta eremu jakin batzuetan, esate baterako etxebizitza-politikan, berriro definitu da Estatuaren eginkizuna.

3.2. ETXEBIZITZA-SISTEMA SOZIALDEMOKRATIKOA

3.2.1. Alderdi orokorrak

Eredu sozialdemokratikoko herrialdeek izan ohi dute etxebizitzaren jabe diren herritarren proportzio txikia (Suedia, Finlandia eta Danimarka, EBren barruan), eta alokairu sozialeko etxebizitzaren parke handiak. Eta Suediak eta, neurri txikiagoan Danimarkak, etxebizitza kooperatiboen portzentaje handia du (A.2. grafikoa). Kemenyren sailkapenaren arabera, sistema unitarioak dira. Etxebizitza-politikako gastu publiko handiari esker, etxebizitza ordaintzeko zuzeneko laguntzak eskuzabalak eta oparoak izan ohi dira (A.13. grafikoa), eta horrek etxebizitzarik gabe geratzen direnak eta etxegabeak oso gutxi izatea dakar. Etxebizitzaren alorreko ongizate zabal hori nabari da, halaber, honako arazo hauek duten eragin txikian (A.7 grafikoa): pobrezia energetikoa, gehiegizko ahalegin ekonomikoa egin beharrean dauden familiak (Danimarka salbuespen dela) (A.10. grafikoa), eta atzeratzeak hipoteken, alokairuen edo zerbitzuen ordainketetan¹¹ (A.11. eta A.12. grafikoa).

Hala eta guztiz ere, etxebizitza-politikaren garapen itzel hori gorabehera, herrialde horietan etxebizitzaren jabe zirenen proportzioak nabarmen gora egin zuen krisiaren aurretik, eta harekin batera, bai eta prezioek, familien hipoteka-zorrek (A.14. eta A.15. grafikoa) eta etxebizitza eskuratu ahal izateko batez beste egin beharreko ahalegin ekonomikoek ere¹² (A.8. eta A.9. grafikoa). Izan ere, herrialde horietan, egin beharreko ahalegin ekonomikoak Europako altuenetakoak dira, eta horren ondorioz, biztanleriaren multzo handi bat laguntza publikoen mende dago, norberaren etxebizitzaren kostua ordaindu ahal izateko.

Etxebizitza-sistema sozialdemokratikoaren beste berezitasun bat da familiak txikiak direla, kideen kopuruari dagokionez (A.1. grafikoa). Oro har, etxebizitzaren parkearen egoera ona da, eta eraikuntza-akats eta -arazoen eragina oso txikia (A.3 eta A.6. grafikoa).

3.2.2. Finlandiako etxebizitza-sistema

Laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieran, Finlandiak krisi larria pairatu zuen, honako ondorio hauekin: barne-produktu gordinaren beherakada handia, langabezia-tasaren gorakada handia, eta etxebizitza erosteko gehiegizko zorretan sartutako familien kopuruaren igoera handia. Krisi hartatik irteteko aplikatu ziren neurri batzuk inpaktu nabarmena izan zuten Finlandiako etxebizitza-politikan. Etxebizitzaren jabe egiteko laguntza fiskalak murriztu ziren, etxebizitzarako diru-laguntzak eskaera hartu zuten ardatz, eta ez produkzioa, finantza-produktu malguagoak sustatu ziren etxebizitza erosteko, eta, oro har, sektoreko esku-hartzea murriztu zen. Murrizketa horiek etxebizitza-eskubidearen izaera unibertsalaren higadura eragin zuten, eta eskubide horretan oinarritzen da eremu horri dagokion politika. Harrezkero etxegabeen kopuruak gora egin du, etxebizitzaren jabe direnek pisu handiagoa dute, alokairuaren kaltetan, eta, etxebizitza soziala eskuratzeko diru-sarreraren mugarik ez badago ere, herritar zaugarrien multzo gero eta handiagoa kontzentratzen da parkearen multzo horretan.

¹¹ Etxebizitzako zerbitzuen gastu osoak barnean hartzen ditu, Eurostaten metodologiari jarraituz, honako gastu hauek: txorrotako ura, ondasun higiezinaren gaineko zerga, elektrizitatea, erregaia, estolda-sarea, zabor-bilketa, etxebizitzaren aseguru eta beste udal-zerga batzuk.

¹² Ahalegin ekonomikoaren kalkuluan, Eurostaten arabera, honako gastu hauek kontuan hartzen dira: etxebizitzako zerbitzuen gastuak (ikus aurreko oin-oharra), hipotekaren interesak (halakorik balego) edo alokairuaren kostua, eta familiak etxebizitza ordaintzeko jasotzen dituen laguntza publikoak. Horrenbestez, kontzeptu horretan ez da sartzen kapitala amortizatzen duen hipoteka-kuotaren zatia, eta jasotako laguntza publikoak ez dira kentzen. Hortaz, etxebizitza ordaintzeko laguntza-sistema zabalak dituzten herrialdeetan –hala nola Europako iparraldeko herrialdeetan– benetako ahalegin ekonomikoa nabarmen txikiagoa da; aitzitik, familiek hipoteka-zor handiak dituzten herrialdeetan, etxebizitzarekin lotutako kostuak ordaintzeko familiek egin behar duten benetako ahalegin ekonomikoa askoz ere handiagoa da.

Europako testuinguruan, esku-hartze publikoan atzera egin bada ere, Finlandiako etxebizitza-politika da kontinente osoko garatuenetako bat. Etxebizitza ordaintzeko laguntzetarako barne-produktu gordinaren % 0,35 inguruko gastu publikoa baliatuta, laguntza horien onuradun dira 16 urte eta gehiagoko pertsonen % 16 - % 17 inguru (A.1. taula); alokairu sozialak etxebizitza nagusien % 16 hartzen ditu, eta etxebizitzaren jabe direnen portzentajea % 66raino igo arren (Laino eta Pittini, 2011), oraindik ere txikiagoa da, hainbat herrialde liberal, mediterraneo eta trantsizio-eredukotan baino (A.2. grafikoa). Gainera, Finlandiako etxebizitza-parkea, adierazle guztien arabera, oso baldintza onetan dago (A.3. eta A.6. grafikoak).

Europako iparraldeko herrialdeen artean, Finlandiako etxebizitza-sistema da higiezin burbuilak eragindako kalte gutxien pairatu dituen. 2002tik 2011ra bitartean, familien hipoteka-zorra % 22,3 soilik handitu zen, eta epealdi horren amaieran barne-produktu gordinaren % 42,7koa zen, Europako herrialde gehien azpitik (1.1., A.14. eta A.15. grafikoak). Eragin txiki hori ikusten da, halaber, Finlandiako prezioek 2000-2012 epealdian egindako bilakaeran. Izan ere, epealdi horretan, gorako joera izan zuten beti prezioek, baina igoera ez zen itxuragabea izan, beste merkatu batzuetan bezala (1.2. grafikoa). Horrenbestez, oro har, etxebizitza eskuratzeko batez besteko ahalegin ekonomikoa zen eskuratutako diru-sarreraren % 16koa, eta zenbateko hori nahiko moderatua da EBN, oro har.

Esukumenei dagokienez, gobernu zentralaren zeregina da etxebizitza-politika diseinatzea eta finantzatzea, eta inplementazioaz, berriz, Finlandiako Etxebizitza Finantzatzeko eta Garatzeko Agentzia (*Asumisen rahoitus- ja kehittämisskeskus*, ARA) arduratzen da, udalekin lankidetzan. Halaber, udalak, etxebizitza sozialen udal-enpresen bitartez, eta ARA dira etxebizitza sozialen parkearen titular nagusiak. Zehazki, gobernuaren ARA agentziak, Ingurumen Ministerioak ikuskatuta, honako eginkizun hauek hartzen ditu bere gain:

- etxebizitza eskuragarria, kalitatezkoa eta iraunkorra sustatzea, honako bitarteko hauek baliatuta: diruz lagundutako maileguak, kredituentzako abal publikoak, etxebizitza ordaintzeko zuzeneko laguntzak pertsonentzat (bai maizterrentzat, bai jabeentzat);
- diru-sarrera urriak edo premia bereziak dituzten biztanleen etxebizitza-baldintzak hobetzea zuzeneko laguntza ekonomikoen bidez;
- etxebizitzen parkearen jarraipena eta hobekuntzak egitea, zuzeneko laguntzen bidez;
- eta etxebizitzen merkatuaren egoerari eta biztanleriaren etxebizitza-baldintzei buruzko informazio-bilketa, azterketa, ikerketa eta hedapena.

3.2.3. Suediako etxebizitza-sistema

Suedian, historikoki, ongizate-estatuaren funtsezko euskarritzat hartu da etxebizitza-politika. Integrazio-, justizia-, berdintasun- eta unibertsaltasun-printzipioetan oinarritzen da, bai eta etxebizitza duin eta egokia izateko norbanakoaren eskubidearen aintzatespenean ere, bakoitzaren premiak eta lehenetasunak kontuan hartuta. Esku-hartze publikoa, premia bereziak zituzten familiei arrea emateaz gainera, Suediako gizartearen multzo zabal bat zuen helburu. Gobernu zentralak, alde batetik, etxebizitza sozialak eraikitzea bultzatzen zuen, zuzeneko laguntza ekonomikoen eta kenkari fiskalen sistema oparo baten bitartez, eta bestetik, etxebizitzak ordaintzeko zuzeneko laguntzen programa zabalak bultzatzen zituen.

Gaur egun ere, Suediako etxebizitza-sistema printzipio horietan oinarritzen da, baina esku-hartzea askoz ere txikiagoa da, orain dela urte batzuetakoa baino. Aitzitik, sektorearen desarautzea nabarmen areagotu da. Finlandian eta Europako iparraldeko gainerako herrialdeetan bezala, laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, etxebizitza-aurrekontua murriztu da, eta horren ondorioz, bai eta etxebizitza ordaintzeko laguntzen zenbatekoak ere. Gaur egun,

herrialdeko biztanleen % 8 - % 9 dira laguntza horien onuradun (A.13 taula). Horrenbestez, izaera unibertsala galdu dute, eta egoera zaurgarrian dauden kolektiboak soilik dituzte helburu (Lieberg, 2013). Halaber, etxebizitza sozialen parkeak garrantzi handia du, etxebizitza nagusien % 18 baitira, baina ez dira jada baliabide publikoak erabiltzen sustapen berrietarako, eta parke horretatik ateratako errenten bidez finantzatu behar dira. Horrek guztiak eragin du, praktikan, etxebizitza sozial berrien eskaintza geldiaraztea (Laino eta Pittini, 2011).

Suediako etxebizitza-politikaren biraketa horrek, merkatuan askoz ere gehiago oinarritutako sistema baten alde, etxebizitzaren prezioen gorakada bultzatu du (1.2. grafikoa), bai alokairuen merkatuan, bai salerosketetan. Etxebizitza berrien kopuruak behera egin du, etxebizitzaren jabe direnen kopuruak nabarmen gora egin du, eta kezkarriagoa dena: Suediako familiek etxebizitza ordaintzeko egin behar duten ahalegin ekonomikoa handitu da, bai eta familia horien hipoteka-zorra ere, testuinguru berriak erosteko joera bultzatzen baitu. Guztira, Suediako familien hipoteka-zorra, 2002tik 2011ra bitartean % 31,6 handitu ondoren, barne-produktu gordinaren % 78,1era iritsi zen 2011n (A.14. eta A.15. grafikoa).

Eskumen-esparruari dagokionez, udalek eta haien enpresa publikoek gero eta eginkizun garrantzitsuagoa dute etxebizitza-politikan. Talde zaurgarrienei –hau da, laguntza sozialak jasotzen dituztenei edo arreta berezia behar dutenei– etxebizitza sozialak esleitzeaz arduratzen dira, eta, teorian, etxebizitza-sustapenak programatzeaz eta kokatzeaz ere bai. Herrialde guztian etxebizitzaren alorreko 300 udal-sozietate inguru daude, eta nazio-mailan antolatuta daude, Etxebizitzaren Udal Enpresen Elkartearen bidez (*Sveriges Allmännyttiga Bostadsföretag*, SABO).

Bestalde, gobernuak orain ere bere gain hartzen du etxebizitzaren alorreko helburu nazional handien diseinua eta finantziazioa. Suediako gobernuaren 2014rako lehentasuna da etxebizitzaren defizita murriztea. Horren ildotik, kontuan izan behar da laurogeita hamarrek hamarkadaren hasieratik ez dela ia sustatu etxebizitza berririk. Helburu hori lortzeko, funtsean, hiru neurri aurreikusi dira: (i) gazteentzako eta ikasleentzako etxebizitzak egiteari buruzko araudia sinplifikatzea, horrelako etxebizitza gehiago sustatzeko, (ii) hiri-berralokatzei buruzko legedia aldatzea, lehen dagoen etxebizitzaren parkea efizientzia handiagoz erabiltzeko, (iii) eta diru-laguntzak ezartzea, udalek pertsona adinduentzako etxebizitza egokituen inbentarioa egin, zahartzarorako etxebizitza-plana prestatu eta etxebizitza asistentziadunak susta ditzaten.

Baina, beharbada, Suediako sistemaren bi alderdi bereizgarrienak dira etxebizitza kooperatiboen garrantzia eta errentak finkatzeko sistema. Lehenengoari dagokionez, esan behar da etxebizitza kooperatiboak parke guztiaren % 22 direla (Laino eta Pittini, 2011). Horrek adierazten du herrialdean kooperatibismoak duen tradizioa, eta etxebizitza eskuratzeko mekanismo gisa bereganatu duen konfiantza. Bigarrenari dagokionez, alokairuen merkatuko errentak ezartzen dira eraikinen jabeen eta maizterren ordezkarien arteko negoziazioaren bidez. Maizterrak, gehienetan, Suediako Maizterren Batasunean afiliatuta daude. Negoziazio horretan giltzarritzako bi alderdi daude: alde batetik, higiezinaren balioa, haren ezaugarrien arabera (kalitatea, kokalekua eta abar), eta bestetik, eraikuntzaren eta kudeaketaren kostua. Negoziazio horiek urtean behin egiten dira.

3.3. EUROPAKO IPARRALDEKO HERRIALDEETAKO GAZTEEN ENPLEGURAKO POLITIKAK

3.3.1. Alderdi orokorrak

Eredu sozialdemokratikoak enplegu osoa du helburu, lan-malgutasun handia bitarteko, eta malgutasun hori segurtasun handiarekin orekatzen da; hau da: langabezia-prestazio zabalak, eta prestakuntzarako eta ikaskuntzarako

politika aktibo sendoak, norbanakoak bere etorkizuna erabakitzeko duen askatasuna, eskubide unibertsal gisa, ardatz dutenak. Alderaketa eginez gero, Europako iparraldeko herrialdeek enplegu-politika aktiboetan egiten duten gastu publikoa, barne-produktu gordinaren portzentaje gisa neurtuta, EBko handienetakoa da (A.19. grafikoa).

Eredu horretan, hezkuntza-sistemaren zeregina giltzarritzakoa da. Irakaskuntza osoa, publikoa eta doakoa da, eta malgua, lanbide-prestakuntza praktikoa eta hezkuntza bateratu ahal izateko. Gainera, sistema hori lanbide-aholkularitza zabal baten bidez osatzen da, lanbidearen etapa guztietan; hartara, gazteen laneratzea bultzatzen da. Labur esanda, gizarteak gazteak babesten ditu laneko trantsizioaren maila eta eremu guztietan.

Enplegu-politika horien emaitza gisa, Europako iparraldeko lan-adierazleak askoz ere hobeak izaten dira, Europako Erkidegoko batez bestekoak baino; eta, lana galduz gero, lanean berriro txertatzeko prozesua azkarra eta arina izaten da. Esate baterako, 2012an, EB-27ko luzaroko langabeziaren tasa txikiena zuen Suediak (% 18,9), eta haren atzetik zegoen Finlandia (% 21,4).

Berdintasunaren aldeko ideia sozialdemokratikoei jarraituz, lan-merkatuan emakumeen parte-hartzea Europako handienetakoa da. Horretarako aukera ematen du familia-laguntzen sistema zabalak, biritza profesionala, familiarra eta ama izatea bateratzea bideratzen dutenak, eta emakumeei askatasun handiagoa ematen dietenak.

Bestalde, ez da ahaztu behar sektore publikoak ekonomian duen eginkizun indartsua, enplegu-emaile gisa ere, eta langileen afiliazio sindikal handia. Horrek erabakitzeko gaitasun handia ematen die langileei, soldaten dispersio txikia sortzen du, eta horren guztiaren ondorioz, errenta zuzenago banatzen da.

Hala ere, krisiak nabarmen kaltetu ditu Europako iparraldeko gazteen lan-baldintzak, EBko beste herrialde batzuetan baino kalte arinagoak izan arren. Gazteen artean langabeziak askoz ere gehiago egin du gora, populazioa aktibo osoan baino, eta horren ondorioz, bazterketa-arriskuan dauden gazteen kopurua handitu da. 15 urtetik 24 urtera bitarteko biztanleen % 10 dago etengabeko bazterketa-arriskuan, eta gazteen % 2tik % 5era jada baztertuta daude. Eredu sozialdemokratikoaren egiturazko arazo gero eta larriago horren beste adierazpide bat da gazteek enplegua aurkitzeko dituzten arazoak. Enplegu-politika aktiboen programa sendoa gorabehera, gazte langabeen % 40tik % 50era dira prestakuntza-programa publikoa osatu ondoren lana lortzen dutenak. Horrenbestez, langabezia-prestazioak jasotzen dituzten gazteen portzentajeak gora egin du, batez ere Suedian eta Finlandian.

Sortzen ari den beste fenomeno berri bat da *ez-ez* esaten zaiona. Finlandiako eta Suediako 15 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen %8 edo % 9 inguru ez dira lanean ari, ez daude hezkuntza-sisteman, ez eta lanean txertatzeko programa baten barruan ere.

Arazo hori ikusita, gazteen langabeziaren aurkako borroka lehentasunezkoa da, gaur egun, Europako iparraldeko herrialde guztietan; izan ere, dakarren arazo sozialak gainera, epe luzera kolokan jar dezake ongizate-estatu sozialdemokratiko berberaren bideragarritasuna.

Europako iparraldeko herrialdeetako gazteen arteko langabezia murrizteko moduei buruz zabaldu den eztabaidan, zenbait arrakasta-faktore identifikatu dira, eskualdean orokortu beharko liratekeenak:

- hezkuntza-sistema norbanakoen beharretara egokitzea,
- ikasleen banakako jarraipen handiagoa eta eraginkorragoa egitea,
- krisialdietan hezkuntzako gastu publikoa handitzea,
- gazteak kontratatzekeo pizgarri fiskalak ezartzea,

- enplegu-zerbitzu publikoen eta lan-eskaintzaren arteko koordinazioa hobetzea,
- lan-esparruan gazteen motibazioa hobetzea,
- Bigarren Hezkuntzaren maila igotzea,
- hezkuntza-sistemaren eta lan-munduaren arteko loturak handitzea.


Halaber, azpimarratu behar da Eskandinaviako herrialdeak aitzindari direla gazteentzako enplegu-politika aktiboaren garapenean, batez ere gazteentzako berme-programetan, gaur egun Europako Batzordeak bultzatzen duen ildo berean. Horrelako programetan 20 urtetik gorako esperientziaren ostean, adostasun handia dago arrakastarako bi betekizun hauen garrantziari buruz: esku-hartze azkarra, gaztea lanik gabe geratu bezain laster; eta enplegu-zerbitzu publiko eraginkorrak izatea, efizienteak eta diziplina anitzekoak.

3.3.2. Finlandiako gazteen enplegurako politikak

Azken hamarkadan, Finlandiako gazteen langabezia-tasa askoz ere handiagoa izan da batezbesteko nazionala baino; hura halako bi eta gehiago. Bilakaera hori egoera ekonomikoaren arabera izan da. XXI. mendearen lehenengo urteetan, hazkunde ekonomiko erabakigarria izan zen gazteen langabezia urtetik urtera murrizteko. Krisia iritsi zenean, 2008an gora egin zuen, baina ekonomia hobetzeari esker, 2010etik aurrera berriro murriztu zen, 2012an % 19,0ra iritsi arte, Europako Erkidegoko batez bestekoa baino hiru puntu gutxiago (3.1. grafikoa).

3.1. grafikoa

25 URTEK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. FINLANDIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Gazteen langabezia murrizteko, Finlandiako gobernuaren politikaren bi oinarriak izan dira, alde batetik, enplegu-politika aktiboen garapen handia, eta bestetik, hezkuntza-sistema hobetzea: lanbide-heziketako ikasketen eskaintza zabaltzea, lanean gaitzeko programa gehiago jartzea, eta oinarritzko eta derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketetan plaza-kopuruak handitzea (NOSOSCO, 2011).

Historikoki, programa garrantzitsuenetako bat, gazteentzako enplegu-politika aktiboetarako dagokienez, Gazte Bermea da. 1996an abian jarri eta 2005ean aldatu zuten, izen berria emanda: Erkidegoko gazteentzako bermea. Gero, 2010ean eta 2013an berrikusi zituzten berriro (Eurofund, 2012). Azken berrikuspenaren ostean, Gazteriarentzako Gizarte Bermearen Programa esaten zaio, eta aurreikusten du 25 urtetik beherako gazte langabeei, eta goi-mailako titulua duten 30 urtetik beherako langabeei ikasketa-programa edo lanbide-heziketako programa eskaintzea, edota lan bat, lana bilatzen hasitako egunetik zenbatuta hiru hilabete igaro baino lehenago (MEC, 2012).

Langabeei informazioa, aholkularitza eta jarraipena emateari dagokionez, Finlandiako enplegu-zerbitzuek diziplina anitzeko laguntza ematen dute, psikologoek, gizarte-langileen eta osasunaren eta enpleguaren alorreko aholkulari adituak bitartez. Laguntza hori zehazten da lanbide- eta enplegu-plangintzarako banakako eta batera prestatutako plan batean. Bost hilabeteko epean emaitzarik ez badu, berriro egiten da, eta langabeak nahitaez bete behar du.

Finlandiako gobernuaren enplegurako beste ekimen aktibo batzuk dira langabeak kontratatzeke sorospen eta pizgarriak –bai sektore publikoan, bai pribatuan ere–, lanbide-praktiken programa eta lanerako prestakuntza, gehienbat 25 urtetik beherako langabeentzat.


Berriki, gazteen laneratzea hobetzea helburu hartuta, Finlandiako gobernuak 2012-2015 epealdirako Haur eta Gazte Politikaren Programan (MEC, 2012) hiru neurri sartu zituen. Lehenik eta behin, Gazte Bermearen programaren berrikuspenera planteatu zuen, lehen adierazi bezala. Bigarren ekimena zen prestakuntza eta ikaskuntza informala aitortzea, lan-arloan sartzeko bideak sortzeko mekanismo gisa. Eta hirugarren neurriak proposatzen zuen lan-merkatuaren etengabeko jarraipena egitea, enplegu-politika aktiboak egokitzeko une bakoitzeko egoerara. Azken ekintza horrek zati batean erantzuten dio Europako Batzordeak Finlandiari emandako gomendioa, gazteen artean enplegu-politikek duten inpaktuaren jarraipena egiteari dagokionez, bereziki azpimarratuz enplegua eskuratzeko berariazko kualifikazioen garapena, eta luzaroko langabe gazteen egoera (European Commission, 2013b).

Gobernuak berriki erabakitako beste jarduera bat da 220 tailer sortzea, lanbide-heziketa burutu ez duten 25 urtetik beherako langabeak lan-merkatuan txertatzeko aukera izan dezaten.

Aurrekontuei dagokienez, langabeziaren igoerari Finlandiako gobernuak eman dion erantzunak eragin du enplegu-politika aktiboetarako gastu publikoaren portzentajearen igoera txiki bat 2008tik aurrera, bai eta politika pasiboaren kostuan ere, langabezia-prestazioak jasotzen dituzten onuradunen kopurua handiagoa delako (3.2. grafikoa).

3.2. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. FINLANDIA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)


Europar Batasunean, oro har, Finlandiak enplegu-politika aktiboetan erabiltzen duen gastu publikoa (barne-produktu gordinaren portzentaje gisa neurtuta) handienetakoa da, eta 2011n Danimarkak eta Belgikak soilik gainditu zuten (A.19 grafikoa).

3.3.3. Suediako gazteen enplegurako politikak

Suediak laurogeita hamarreko hamarkadan bizi izan zuen finantza-krisiak gazteengan izan zuen eragina, batez ere. Gazteen langabeziak nabarmen gora egin zuen, eta harrezkero nahiko altua da (herrialdean gazteen langabezia txikia izatea ohikoa dela kontuan hartuta), betiere batez besteko nazionalaren oso gaineratik. 2000-2005 epealdian, gazteen langabeziak berriro gora egin zuen, indar handiz. 2005etik 2007ra bitartean, Suediako gazteen lan-egoera hobetu zen, hazkunde ekonomikoari esker. Hala ere, langabezia-tasa ez zen % 19tik jaitsi, eta krisia iritsi ondoren, 2008tik aurrera, gazteen langabeziak gora egin zuen berriro, eta 2012ko amaieran % 23,7koa zen, Europar Batasuneko batez bestekoaren zertxobait goraxeago (3.3. grafikoa).

3.3. grafikoa

25 URTEK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. SUEIDIA ETA EUOPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Larriena da, biztanleria aktibo osoaren langabezia-tasarekin alderatuta, 2003tik aurrera Suediako gazteen langabezia-tasa dela batez besteko nazionalaren halako bi edo bi eta erdi. Horrek adierazten du ondoz ondoko krisialdiek suediar gazteei eragin dietela, batez ere.

Datu horiek ikusita, gazteen langabeziaren aurkako borroka lehenasunezko gai bihurtu da gobernuarentzat, eta azken urteotan areagotu dira kontrataziorako pizgarriak finantzen zein zergen alorrekoak, enplegu-politika aktiboak sendotu dira, programa berriak sustatu dira, eta lehenik zeuden beste batzuk birformulatu dira.

Suedia izan zen Gazte Bermea garatu zuen lehenengo herrialdea. 1984an abian jarri, eta 2007an berrikusi zen. Programa berriak bermatzen du 16 urtetik 24 urtera bitarteko langabeek, enplegua bilatzen hasi eta lehenengo hiru hilabeteetan, prestakuntza eta lanbide-trebakuntza aurrera egiteko aukera edo lantokia izango dutela. Programaren iraupena 15 hilabetekoa da, gehienez ere. Hasieran, ikasketa-jarduerak, aholkularitza, eta enplegu-bilaketaren ebaluazioa eta ikuskapena bateratzen ditu. Bigarren fasean, beriz, hezkuntza, prestakuntza praktikoa, eguneratzea eta ekintzailtza bultzatzea lantzen dira.

Helburua da luzaroko langabeak lanean berriro txertatzea. Gaur egun, Enplegu eta Garapen Bermea esaten zaion programa dago. Hiru fase ditu. Lehenengoa da enplegua bilatzeko aholkularitza eta laguntza ematea. Bigarren fasearen xedea da norbanakoaren prestakuntza eta lanbide-gaitasuna hobetzea, lantoki jakin batean jardutearen bitartez. Amaitzeko, hirugarren fasean, langabeak lantoki horretan lan egiten du, edo, gogoko ez badu, lan-eskaintza alternatibo bat izango du.

2007an Lanera Itzuli programa abian jarri zen, denbora luzean lan-merkatutik kanpo egon diren pertsonen berriro lanean hasteko aukera emateko. Funtsean, pertsona langabe horiek kontratatzeko pizgarri fiskalak eta sorospenak dira programaren oinarri.

Hezkuntza-sistemari dagokionez, 2009an Suediako gobernuak (MIGE, 2009) erreformatzea erabaki zuen, honako helburu hauek lortzeko: ikasle guztiak beharrezko ezagutzak eskuratzea, prestakuntza- eta ikaskuntza-

programetarako inbertsio publikoa handitzea, eta programa horien eta lan-merkatuaren arteko lotura sendotzea. Enpleguari dagokionez, gazteen laneratzea bideratzeko eta gizarte-bazterketa prebenitzeko bost neurri kontuan hartzen ziren: (i) gazteak kontratatzeakostuak murriztea, (ii) 6 hilabetetik gora lanik gabe daramaten gazteak kontratatzeakostuak fiskalak ezartzea, (iii) gazte langabeei lana galdu ondoren laguntzeko berariazko programa abian jartzea, (iv) gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden gazteen egoerari buruzko azterlan sakonak egitea, eta (v) udalei eskatzea lanik egiten ez duten eta hezkuntza- edo prestakuntza-programa batean ez dauden gazteen jarraipena egin dezatela.

Suediako gobernuak honako ekimen hauek ere bideratu ditu enplegu-politikaren alorrean:

- 25 urtetik gorakoentzako lanbide-heziketako berariazko programak, lanbide-gaitasunak hobetzea, eta horrenbestez, enplegarritasuna hobetzea helburu hartuta. Programa horren iraupena norberaren hezkuntza-mailaren eta lanbide-esperientziaren araberakoa da, gehienez ere 6 hilabetekoa.
- Lan-merkaturako prestatzeko jarduerak, hala nola enplegua bilatzeko ikastaroak.
- 25 urtetik beherakoentzako lanbide-praktiken programak.
- Ekintzailatza eta autoenplegua sustatzeko programak.
- Lanbidean hasteko programa, eta lanbiderako orientazio- eta errehabilitazio-programa, gaixoaldi luzea gainditu duten langabeak berriro lanean txertatzea ardatz dutenak. Funtsean, enplegua bilatzeko jarduerak pertsonalizatuak, banaka laguntzea, aholkularitza, eta motibazioa hobetzeko jarduerak.
- Diruz lagundutako lana, berariazko arazoak dituzten pertsonentzat; este baterako, desgaitasunen bat duten pertsonentzat edo etorkinentzat.
- Iritsi berri diren etorkinentzako lehen enpleguaren programa, lan-kostuen % 75eraino iristen diren diru-laguntzetan oinarritua.


2012ko amaieran, Suediako gobernuak gizarte- eta enpresa-alorreko solaskideekin lanean jardun zuen enplegu-hitzarmen nazional bat lortzeko.

Enplegu-politika aktibo horiek guztiak gorabehera, Europako Batzordeak gomendio hauek emean zizkion Suediari: kualifikazio gutxiko gazteak eta jatorri etorkina zuten pertsonak lanean hobeto txertatzeko ahaleginak sendotzea, eskolatik lanerako trantsizioa bideratzeko ahaleginak indartzea, eta Gazte Bermea osatzea, irakaskuntzarik eta prestakuntzarik jasotzen ari ez diren gazteen premiei hobeto erantzuteko (European Commission, 2013b).

Bistakoa da enplegu-politika aktiboaren multzo horrek guztiak aurrekontu-baliabide ugari behar dituela. 2011n, politika horien kostua barne-produktu gordinaren % 0,80 zen, Europar Batasuneko portzentaje handienetako bat (A.19. grafikoa). Hala ere, 2005etik 2011ra bitarteko bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da gastu hori nabarmen murriztu zela 2006an eta 2008an, eta 2010ean izan zuen igoera txikia gorabehera, 2011n txikiagoa zen 2005ean baino (3.4. grafikoa).

3.4. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. SUE DIA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

3.4. EMANTZIPAZIO-EREDU SOZIALDEMOKRATIKOA

3.4.1. Alderdi orokorrak

Europako iparraldeko herrialdeetan, gazteek, ekonomiaren eta etxebizitzaren aldetik, oso goiz emantzipatzeko joera dute, trantsizio hori bideratzen duen laguntza publikoen sistema zabal eta unibertsal bati esker. Gainera, lan-merkatuaren baldintzak direla-eta, gazteen artean txikiak izan ohi diren langabezia-tasekin (gaur egun handiagoak, ikusi dugun bezala), eta ongizate-estatu sozialdemokratikoaren sendotasunarekin, batez ere etxebizitzaren eta gizarte-prestazioen alorrean, emantzipazio-prozesuari aurre egin diezaiokete gazteek, pobrezian erortzeko ia arriskurik gabe.

Eredu sozialdemokratikoak bideratzen du, halaber, ikasketak egiten ari diren gazteen emantzipazioa, laguntza publikoen bitartez eta ikasketak lanaldi partzialeko kontratuekin bateratuz. Europako iparraldeko emantzipazio-eredua oinarritzen da, nolabait, gazteen autonomia- eta independentzia-eskubidearen eraginkortasuna bermatzeko konpromiso politiko eta sozial zabal batean.


3.4.2. Finlandiako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Finlandiako gazteak, batez beste, 21 urterekin uzten dute gurasoen etxea, Europako herrialde gehienetan baino askoz ere lehenago (Allianssi, 2010). Ehunekoetan emanez gero, 2006-2011 epealdian, EB-27ko 18 urtetik 34

urtera bitarteko gazteen % 51 - % 52 inguru ez ziren jada bizi gurasoekin, Finlandian, berriz, % 79 - % 80 inguru ziren; hau da, ia 30 puntuko aldea adinaren arabera kontuan hartutako bi azpitaldeetan mantentzen zen Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik (18 urtetik 24 urtera eta 25 urtetik 34 urtera bitarteko azpitaldean) (3.5. grafikoa). Hain zuzen, krisia gorabehera, 2006tik 2011ra bitartean, gurasoekin bizi ziren gazteen portzentajea bi puntu baino gehiagoko jaitsi zen.

3.5. grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA, FINLANDIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Zalantzarik gabe, Finlandiako etxebizitza-politikaren garapen-mailak oso modu erabakigarrian laguntzen du emantzipazio goiztiar horretan. Emantzipatutako gazteen % 36 - % 39 inguruk jasotzen du laguntza publikoren bat etxebizitzaren kostua ordaintzeko (A.1. taula), eta haien % 26 - % 30 inguru bizi dira etxebizitza sozial batean (A.8. taula). Bi kasuetan, Finlandiako gazteak etxebizitza-politikako tresna horietaz gehiago baliatzen dira, gizartea oro har baino; izan ere, 16 urtetik gorako biztanleen % 16 - % 17 inguruk soilik jasotzen ditu etxebizitzarako zuzeneko laguntzak (A.1 taula), eta etxebizitza sozialak parke guztiaren % 18 dira (A.2. grafikoa).

Alabaina, ongizate-estatuaren etxebizitza-politikako garapen zabal hori gorabehera, Finlandiako gazteek ere arazo ekonomikoak dituzte etxebizitza eskuratzeko. 2007tik 2011ra bitartean, gazte emantzipatuek etxebizitzari lotutako kostuak ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa zen eskura zituzten diru-sarreraren % 22 - % 23 ingurukoa, eta 16 urtetik gorako biztanleria osoaren kasuan, berriz, ahalegin hori % 16 - % 17 ingurukoa zen (A.2. taula). Halaber, gazteen % 8 - % 9 inguruk gehiegizko ahalegina egiten zuten, eta herrialde osoa kontuan hartuta gehiegizko ahalegina ez zen ia % 5era iristen (A.3. taula).

Etxebizitzen merkatuko kaudimen-desberdintasun horiek nabarmendu ziren, orobat, hipoteka edo alokairua ordaintzean (A.4. taula) edo etxebizitzako zerbitzuak ordaintzean (A.5. taula) gazteen artean zertxobait sarriagoak ziren atzerapenetan, bai eta pobrezia energetikoa pairatzeko probabilitate zertxobait handiagoan (A.6. taula).


Gaszte emantzipatuak bizi diren etxebizitzaren baldintza fisikoak dira biztanleriak oro har dituen baldintzen parekoak, eta Finlandiako etxebizitza-parkearen egoera orokor ona adierazten dute (A.9. eta A.12 taulak).

3.4.3. Suediako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Suedian ere gazteria askoz ere lehenago emantzipatzen da, Europako Erkidegoko herrialde gehienetan baino. 2006tik 2011ra bitartean, 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen % 75 - % 78 inguru ez ziren gurasoekin bizi. Portzentaje hori 25 puntu inguru handiagoa da, Europako Erkidegoko batez bestekoa baino (3.6. grafikoa), eta Finlandiako baino zertxobait txikiagoa.

3.6. grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. SUE DIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Hala ere, azken urteotan, atzerakada ikusten da emantzipazio-tasetan. 2006tik 2011ra bitartean, gurasoekin bizi ziren gazteen proportzioak lau puntu baino zertxobait gehiago egin zuen gora. Fenomeno hori ezin zaio krisi ekonomikoari soilik egotzi; izan ere, 2008 baino lehenago hasi zen. Ziur asko, emantzipazioaren aurkako bi dinamika hauek bateratzearen ondorio da: alde batetik, langabezia-tasa handien iraunkortasuna gazteen artean, eta bestetik, Suediako etxebizitza-politikaren ahultzea. Azken faktore horri dagokionez, etxebizitza sozialen sustapen berririk ez dago, etxebizitzak ordaintzeko laguntzak murriztu dira –Suediako gazteen % 8 - % 9 inguruk jasotzen dituzte laguntza horiek– (A.13. grafikoa), etxebizitzaren prezioek gora egin dute (1.2. grafikoa), etxebizitzaren jabe direnen proportzioa gero eta handiagoa da, eta hipoteka-kredituak eskuratzeko arazoak daude. Horrenbestez, gazteen egoerak okerrera egin du etxebizitzaren merkatuan, eta emantzipazioa lan-merkatuan duten tokiaren mende dago, bai eta familia barruan jasotako laguntzaren mende ere. Enström (2009) ikertzailearen arabera, azken alderdi hori, familiaren gaitasun ekonomikoa, faktore erabakigarria da, gaur egun, Suediako gazteen bizileku-baldintzetan.

Emantzipatzeko arazo horien ondorio bat da “boomerang belaunaldia” esaten zaion fenomenoak. Izan ere, gero eta gehiago dira, banandu edo dibortziatu ostean, lana galdu ondoren, edo ikasketak amaitu ostean, laguntza publiko nahikoa jasotzen ez dutenez, gurasoen etxera itzuli beharrean dauden gazteak (Lieberg, 2013).

Suediako gazteen ahalegin ekonomikoa eta gehiegizko ahalegina jasotzen duten adierazleek berresten dute egoera zailean daudela etxebizitzaren merkatuan. 2007tik 2011ra bitartean, Suediako gazte emantzipatuentzat etxebizitzaren kostua diru-sarreraren % 26 - % 31 ingurukoa izan zen, batez besteko nazionalaren oso gaineratik, azken hori % 21 - % 24 ingurukoa baitzen (A.14. taula). Halaber, gazteen artean oso litekeena da ahalegin horrek eskura dituzten diru-sarreraren % 40ko muga gainditzea; izan ere, etxebizitzagatik gehiegizko ahalegina egiten zuten gazteen portzentajea % 16 - % 20 ingurukoa zen 2007tik 2011ra bitarteko urteetan, eta 16 urtetik gorako biztanle guztien artean, berriz, % 7 - % 11 ingurukoa zen (A.15. taula).

Suediar gazteek etxebizitzaren merkatuan gaitasun ekonomiko txikiagoa izatearen ondorioz, sarriago atzeratzen dira hipoteka edo alokairua ordaintzean (A.16. taula) edo etxebizitzako zerbitzuak ordaintzean (A.17 taula), eta gazteen artean hedatuagoa dago etxebizitzak dakarren zama ekonomiko astunari buruzko iritzi subjektiboa (A.18 taula). Aitzitik, pobrezia energetikoaren arazoak eragin oso txikia du orain ere gazteen artean, Suediako gizartean, oro har, duenaren parekoa (A.19. taula).

Etxebizitzaren baldintza fisikoei dagokienez, Finlandian bezala, 2007tik 2011ra bitarteko datuek ez dute diferentzia adierazgarriarik adierazten, ez gazteen kolektiboaren barruan, ez biztanleria orokorrarekiko, eta eskuarki, Suediako etxebizitzaren parkearen egoera ona adierazten dute (A.20.etik A.23.era bitarteko taulak).

4

4. Krisia eta emantzipazioa eredu korporatibistan: Frantzia eta Belgika

4.1. ONGIZATE-ESTATU KORPORATIBISTA

Holanda, Alemania, Austria, Frantzia, Belgika eta Luxenburgo, besteak beste, eredu korporatibistari jarraitzen dioten Europako herrialdeak dira. Eredu horri kontserbadorea edo kontinentala ere esaten zaio.

Ezaugarri nagusietako bat da laguntza publikoak jasotzeko eskubidea lotuta dagoela norbanakoa lanean txertatzearekin eta ordaindutako zenbatekoekin; beraz, eredu horren ardatza enplegua da. Arazoa da herrialde korporatibistetako lan-merkatuak dualak direla. Langile batzuek lanpostu finkoak dituzte, babes handikoak eta dagokien gizarte-segurantza; gainerakoek, hondar-enpleguak besterik lortzeko aukera ez dutenek, gizarte-segurantza ere hondarrekoa dute, eta neurri handi batean babesik gabe daude.

Ongizate-estatu korporatibistaren unibertsaltasun falta horrek eta lan-alorreko dualizazioak eragiten dute estatus sozialen eta klaseen arteko desberdintasunen iraupena. Jatorrizko familiaren estatus soziala eta lanean txertatzea giltzarritzko faktoreak dira norbanakoen ongizatean. Horrek familia tradizionala iraunarazten du, eta eskola giltzarritzko erakunde selektibotzat jotzen da ondoren lanean txertatzeko prozesurako. Hain zuzen, eredu korporatiboan esku-hartze soziala ordezkatzeko printzipioaren arabera da. Horrenbestez, Estatuak esku hartzen du soil-soilik familiak bere kideen premiak asetzeko gaitasunik ez duenean eta behar-beharrezkoa denean. Horren ondorioz, gizarte korporatibista oso estratifikatuta dago, gizarte-mugikortasuna oso mugatuta dago, eta gizarte-desberdintasunak nahiko handiak dira.

Merkatuari dagokionez, eredu korporatibistak desmerkantilizazio-maila moderatua du; izan ere, merkatuak zeregin garrantzitsua du, baina Estatuak ere zerbitzu jakin batzuk ematen ditu, sektore pribatuarekin batera.

4.2. ETXEBIZITZA-SISTEMA KORPORATIBISTA

4.2.1. Alderdi orokorrak

Ongizate-estatu korporatibistaren ereduko herrialdeen etxebizitza-sistemak, zenbait ezaugarri komun izan arren, oso heterogeneoak dira.

Etxebizitza izateko erregimenari dagokionez (A.2. grafikoa) etxebizitzaren jabe direnen proportzioa handiagoa da Europako iparraldeko herrialdeetan baino; hala ere, eredu liberalarekin, eredu mediterraneoarekin edo trantsizio-ereduarekin alderatuz gero, hasietan baino zertxobait txikiagoa da etxebizitzaren jabe direnen proportzioa. Alokairu sozialaren parkeari dagokionez, haren tamainan alde handiak daude herrialde batetik bestera. Adibidez, Holandan % 32koa da, eta Luxenburgon, berriz ia ez da % 2ra iristen. Horrenbestez, herrialde batzuk Kemenyren eredu dualaren arabekoak dira, eta beste batzuk, berriz, eredu unitarioaren arabekoak. Egoeren arteko desberdintasun handi horiek ageri dira, halaber, etxebizitza ordaintzeko laguntzetan, bai eta etxebizitza-politikarako bideratutako gastu publikoetan ere (A.13. grafikoa).

Bestalde, higiezin burbuilak ez ditu ondorio berdinak eragin herrialde korporatibista guztietan. Alemanian, 2002tik 2011ra bitarteko epean, familien hipoteka-zorraren hazkundera negatiboa izan bitartean (Europa guztian salbuespena izan zen), Holandan % 26 handitu zen, barne-produktu gordinaren % 106 izatera iritsi arte zor horren guztira, EB-27ko balio handiena hartuz (A.14. eta A.15. grafikoak). Horregatik, etxebizitza eskuratzeko batez besteko ahalegin ekonomikoan diferentzia handiak daude herrialdeen artean; baina, orokorrean, ahalegin handia egiten dute, batez ere, Belgikan, Holandan eta Alemanian, eta, horren ondorioz, herrialde horietan gehiegizko ahalegin ekonomikoa egiten duten pertsonen portzentajea handiagoa da (A.8., A.9. eta A.10 grafikoak).

Hala ere, EB-27ren testuinguruan, sistema korporatibistetan etxebizitzari lotutako bazterketaren maila nahiko txikia da; hala adierazten dute datuek: pobrezia energetikoan bizi diren pertsonen proportzioa txikiagoa da; hipoteka, alokairua edo etxebizitzako zerbitzuak ordaintzean atzerapen gutxiago izaten dira (A.7, A.11., eta A.12. grafikoak); eta etxebizitzaren parkearen baldintzak gehienetan onak dira (A.3tik A.6ra bitarteko grafikoak).

Etxebizitza-sistema korporatibistaren beste ezaugarri bat da familien batez besteko kide-kopurua txikia dela, baina ez eredu sozialdemokratikoan bezain txikia (A.1. grafikoa).

4.2.2. Frantziako etxebizitza-sistema

Europa osoan, azpimarratzekoa da Frantziak etxebizitza-alorrean duen esku-hartze publikoa: alokairu soziala parke guztiaren % 17 da (Laino eta Pittini, 2011). etxebizitza-alorreko gastu publikoa barne-produktu gordinaren % 1,8tik %2,1era bitartekoa izan da 70eko hamarkadatik aurrera (Fondation Abbé Pierre, 2007) eta 16 urtetik gorako biztanleen % 22 - % 24 inguruk jasotzen du laguntzaren bat etxebizitza ordaintzeko (A.24. taula).

Beharbada esku-hartze publiko handi hori lagungarria izan zen Frantziako etxebizitza-sisteman higiezin burbuilaren eragina mugatzeko. 2002tik 2011ra bitartean, hipoteka-zorra % 19,7 handitu zen, barne-produktu gordinarekiko proportzioaren arabera. Kontuan hartzeko ehunekoa da, baina Europa iparraldeko herrialdeek eta herrialde liberal eta mediterraneoek izan zuten gorakada baino txikiagoa, Italiaren kasuan izan ezik (A.15. grafikoa). Horregatik, 2011n, Frantziako etxebizitza-sistemaren hipoteka-zorra, guztira, barne-produktu gordinaren % 42 baino ez zen (A.14. grafikoa).

Frantziako eskumen-esparruak, etxebizitzaren alorrean, zentralismoa eta konplexutasuna ditu ezaugarri. Konplexutasun horretan bi alderdi hauek eragiten dute, funtsean: alde batetik, gobernu-maila eta agentzia eskudun asko daudela; eta bestetik, eskumen horiek, bai udalerrien kasuan, bai udalerrien elkartzeen kasuan, ez dira finkoak, batzuetan borondatezkoak baitira, edo tokiko etxebizitza-planetan xedatutakoaren arabekoak.

Ministerioei erreparatuta, etxebizitza-alorreko eskumenak Lurralde Berdintasun, Etxebizitza eta Hirigintza Ministerioari dagozkio (*Ministère de l'Égalité des territoires et du Logement, chargé de la Ville*), baina eskumen horien egikaritzea hiru agentzia hauen ardura da: Hiri-berrikuntzarako Agentzia Nazionala (*Agence nationale de rénovation*

urbaine, ANRU), lehenasunezko auzoen hiri-berrikuntzarako plana burutzeaz arduratzen dena; Etxebizitzari buruzko Informazioaren Agentzia Nazionala (*Agence nationale d'information sur le logement*, ANIL), funtsean etxebizitzari buruzko informazioa biltzeaz eta hari buruzko azterlanak eta argitalpenak egiteaz arduratzen dena; eta Etxebizitza Agentzia Nazionala (*Agence nationale de l'habitat*, ANAH), etxebizitzaren parke pribatua garatzeko, birgaitzeko eta hobetzeko politika nazionala egikaritzeaz arduratzen dena. Horrez gainera, gobernu zentralak presentzia handia du lurralde guztian, eskualdeetako eta departamenduetako prefekturen bitartez.

Tokiko mailan, udalerriek eta udalerrien elkarteek ere, tamainaren arabera eta tokiko etxebizitza-plan bat izatearen arabera, etxebizitza-alorreko eskumenen ardura har dezakete, hala nola etxebizitza sozialen sustapenerako laguntzen kudeaketa.

Frantziako etxebizitza-sistemaren giltzarritzako beste bi eragileak HLM erakundeak eta SEM sozietateak dira. 820 HLM erakundetik gora dira, guztira, etxebizitza sozialen operadore nagusi, eta herrialdeko etxebizitza-politikaren oinarrietako bat osatzen dute. Gobernuak zein erakunde pribatuak sortutako entitateak dira. Bestalde, SEM edo ekonomia mistoko sozietateak antzeko funtzioa dute, baina haien jardueraren helburu nagusia da sozioekonomikoki egoera zaurgarrian dauden biztanle-multzoei arreta ematea. Estatuak bi erakunde horien jarduera finantzatzen du, eta funtzionamendua arautzen eta ikuskatzen du. nazio-mailan, erakunde horiek bost federaziotan antolatuta daude: etxebizitzaren bulego publikoak (*offices publics de l'habitat*), etxebizitzetarako enpresa sozialak (*entreprises sociales pour l'habitat*), HLM kooperatibak, PROCIVIS UES-AP Federazioa, eta eskualdeetako elkarteak. Guztiek Etxebizitzetarako Gizarte Batasuna Konfederazioa (*Union sociale pour l'habitat*) osatzen dute.

Arlo teknikoari dagokionez, Frantziako etxebizitza-politika diseinatzeko eta egikaritzeko prozesuak ezaugarri hauek ditu: epe luzerako helburuak definitzea, helburu horiek urte anitzeko programetan zehaztea, programa horiei *ad hoc* onetsitako berariazko lege baten bidez babes juridikoa ematea, eta estatu-enpresa batek programa bere gain hartzea.

Gaur egun, Frantziako etxebizitza-politikak helburu nagusi hauek ditu:

- etxebizitza-premiei erantzutea DALO legearen esparruan (*Droit au logement opposable*). Lege horrek aitortzen du Estatuaren betebeharra: merkatuan, norberaren bitartekoekin, etxebizitza lortzeko gaitasunik ez dutenei etxebizitza bat eskaintzea, adibidez, etxegabeei,
- auzo degradatuen hiri-berrikuntza, Hiri Berrikuntza Programa Nazionala (PNRU) oinarri hartuta,
- etxebizitza sozialen parkearen efizientzia energetikoa hobetzea,
- etxebizitza sozialen eskaintza handitzea eskaera handiko lurraldeetan, Solidaritate eta Hiri Berrikuntza Legeari jarraituz,
- arrazoizko prezioa duten alokatzeko etxebizitzaren eskaintza handitzea, merkatu pribatuan bitartekotza-politikak aplikatzearen bitartez,
- etxebizitzak eskuratzeko gaitasuna bultzatzea finantza-tresnen bitartez; adibidez, zero mailegu indartua (*prêt à taux zéro renforcé*, PTZ+),
- eta auzo zahar eta degradatuak hobetzeko plan nazionala (PNRQAD) egikaritzea.

Gazteek etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko dituzten arazoei dagokienez, Frantziako gobernuak berariazko hiru tresna ditu: etxebizitza ordaintzeko zuzeneko laguntzak, alokairuko etxebizitza eskuratzeko gordailuan jarri beharreko zenbatekoa ordaintzeko finantza-laguntzak, eta erosteko behar diren finantza-tresnak.

4.2.3. Belgikako etxebizitza-sistema

Belgikak ere, Frantziak bezala, eredu korporatibista du, baina bere etxebizitza-politikaren garapen-maila askoz ere apalagoa da. Alokairu soziala etxebizitzaren parke osoaren % 7 besterik ez da (Laino eta Pittini, 2011), eta etxebizitza-politikarako baliatutako gastu publikoa Europako txikienetakoa da: barne-produktu gordinaren % 0,1 eta % 0,2 artean dago (Trilla, 2001; Federcasa, 2006; Domanski eta Norris, 2007); hortaz, etxebizitza-sisteman funtsezko ezaugarriak dira sektore pribatuaren nagusitasuna eta desarautzea.

Sektore pribatuaren garrantzia agerian jartzen duen ezaugarri bat da etxebizitzaren jabe diren biztanleen proportzio handia. Historikoki, etxebizitzaren jabe egitea sustatu du etxebizitza-politikak; horrenbestez, gaur egun, familien % 68 etxebizitzaren jabe dira, eta portzentaje hori herrialde korporatibistetako handienetakoa da.

Eskumenei dagokionez, Belgika estatu federala da, hiru eskualdeek osatua: Brusela-Hiriburua eskualdea, Flandes eta Walonia. 1980an erakunde-erreformei buruzko lege berezia onetsi ostean, etxebizitza-alorreko eskumenak eskualdeen gain geratu ziren, alokairu pribatuaren arauketa eta etxebizitzari lotutako politika fiskala izan ezik, eta bi gai zehatz horiek gaur egun ere gobernu federalaren eskuetan daude. Beraz, lurralde bakoitzeko etxebizitza-politikak definitzea, eremu horretan baliabide ekonomikoak banatzea, eta legegintza-esparruak onestea eskualdeetako gobernuen zereginak dira. Hain zuzen ere, eskualde bakoitzak onetsi zuen berezko etxebizitza-legea laurogeita hamarrekota hamarkadaren amaieran.

Hala ere, praktikan, estatuaren esku-hartzea haratago doa, ez da mugatzen alokairua eta politika fiskala arautzera. Gobernu federalak, ordezkatzaille gisa, etxebizitza-politikako programa edo alderdi zehatz batzuk finantzatzen ditu eskualdeetan, haiek baliabide nahikoak bideratzen ez dituztenean. Gobernu federalak jarduera hori hartzen du bere gain, etxebizitza duinean bizitzeko eskubidearen babesean; izan ere, eskubide hori Belgikako Konstituzioan jasota dago 1994az geroztik. Eskualdetako etxebizitza-politikan estatuaren lankidetzak hori gauzatu ohi da aldebiko hitzarmen edo kontratuen bidez. Gainera, gobernu federalak hitzarmenak egiten ditu beste eskualde-erakunde batzuekin, bai eta beste gobernu-maila batzuekin ere, udalerriekin adibidez, jarduera jakin batzuk gauzatzeko. Gobernu federalaren parte-hartze horren adibide dira, etxebizitza-politikari dagokionez, honako hitzarmen hauek: Estatuaren eta eskualdearen arteko Beliris akordioa, alokairu sozialeko parkearen berritzea finantzatzeko; Estatuaren eta udalerrien arteko kontratuak, hiri handietako politikaren (*politique des grande villes*) programa federalaren esparruan, eta etxebizitza-politikan erantzukizun zehatzak dituzten eragile sozialentzako zuzeneko diru-laguntza federalen sistema (SLRB, 2008).

Etxebizitza sozialen alorrean, hiru eskualdeek enpresa publiko bana daukate, etxebizitza sozialak ikuskatzeaz eta finantzatzeaz arduratzen dena:

- *Soci t  du Logement de la R gion de Bruxelles-Capitale* (SLRB), Brusela-Hiriburua eskualdean,
- *Vlaamse Maatschappij voor Sociaal Wonen* (VMSW), Flandesen,
- eta *Soci t  Wallonne du Logement* (SWL), Walonian.

Halaber, eskualde bakoitzak eragile sozial bereziak ditu, etxebizitza sozialen sustapenaz eta kudeaketaz arduratzen direnak:

- *Soci tes Immobili res de Service Public* (SISP) Brusela-Hiriburua eskualdean,
- *Sociale Huisvestingsmaatschappijen* (SHM) Flandesen,
- eta *Soci tes de Logement de Service Public* (SLSP) Walonian.

Maila federalean, Etxebizitza Sozialaren Elkartek (*Association du logement social*, ALS) biltzen ditu etxebizitza sozialen eta kreditu sozialaren inguruko Belgikako hiru eskualdeetako hainbat sozietate. Elkarte horren helburua da maila federalean, eskualde-mailan zein tokiko mailan eskumenak dituzten erakunde guztien etxebizitza-politikak aztertzea eta sustatzea.

Belgikako etxebizitza-politika eskualdeen araberakoa izan arren, eskualde guztiek partekatzen dituzten helburu batzuk daude; adibidez (Czischke eta Pittini, 2007):

- alokairu sozialeko parkea handitzea, eraikuntzarako diru-laguntzak emanez,
- lehendik dauden etxebizitzaren parkea hobetzea,
- arazoizko prezioan dauden etxebizitzaren eskaintza handitzea,
- talde zaurgarriak edo premia bereziak dituztenak helburu dituzten politikak garatzea,
- etxebizitza-programen garapenean ekimen pribatuak ere parte hartzea,
- eta tokiko erakundeek etxebizitza-politikan duten eginkizuna sendotzea.

4.3. HERRIALDE KORPORATIBISTETAKO GAZTEEN ENPLEGURAKO POLITIKAK

4.3.1. Alderdi orokorrak

Eredu korporatibistan, enplegu-politiken definizioa Estatuaren, enpresaburuen eta sindikatuen arteko akordio handietan oinarritu ohi da. Eskuarki, merkatua nahiko malgua da, baina ez herrialde liberaletan bezain malgua, eta gizarte-babesaren mekanismoak nahiko zabalak dira, baina ez eredu sozialdemokratikoan bezain zabalak.


Gastu publikoari erreparatuta, herrialde korporatibisten politika aktibo eta pasiboak aurrekontu bidez ondo hornituta daude, eredu liberalean, mediterraneoan edo trantsiziozkoan baino askoz ere gehiago, baina hala ere ez dira iristen Europako iparraldeko herrialdeen mailara (Belgikaren kasuan izan ezik, berebiziko gastu publikoa bideratzen baitu arlo horretara).

4.3.2. Frantziako gazteen enplegurako politikak

Azken hamarkadan, gazteen langabezia oso handia izan da Frantzian, beti % 19tik gora; baina, 2008an krisia iritsi zenetik oso gorakada handia egin du, 2012an % 24,3ra iritsi arte (4.1. grafikoa). Populazio aktibo osoaren langabezia-tasarekin alderatuta, azken urteotan gazteen langabezia handiagoa izan da, eta horrek agerian jartzen ditu Frantziako gazteek laneratzeko prozesuan pairatzen dituzten egiturazko arazoak.

4.1. grafikoa

25 URTEKIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. FRANTZIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Neurri handi batean, Frantziako gazteek krisialdietan lan-arloan duten zaurgarritasun handiagoa bi arrazoi hauen ondorioa da: alde batetik, Frantziako lan-merkatua oso segmentatua dago, eta gazte askok errotazio handiko eta kualifikazio txikiko sektoreetan lan egin behar dute; eta bestetik, lan prekarioak dituzten gazteen proportzioa oso handia da. Hala eta guztiz, adierazle txar horiek gorabehera, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieraz geroztik, Frantziako enplegu-politiken helburuetako bat izan da gazteen lanerako trantsizioa erraztea. Harrezkero, 80 programatik gora sortu dira gazteen enplegua hobetzeko (Lefresne, 2012).

Frantziako gazteen enplegurako politika aktiboaren tresna nagusia izan da gazteentzako berariazko lan-kontratuak garatzea. Haien artean daude, besteak beste, diruz lagundutako lan-kontratuak (*contrats aidés*). Kontratu horien pizgarri nagusia da enplegatzaileak ordaindu beharreko gizarte-kostuak murrizten direla. 2010eko amaieran 665.000 gazte inguru ari ziren lanean kontratu-mota horri esker (Lefresne, 2012).

Beste mota bat da profesionalizatzeko kontratua esaten zaiona. Kontratu horien bidez, kontratatutako gazteen soldatak diruz laguntzen dira, enplegatzaileak lanbide-prestakuntza ematearen truke. Zenbait kasutan prestakuntza hori ofiziala da, eta dagokion ziurtagiri akademikoa eskuratzeko aukera ematen du.

Halaber, ikastun-kontratuak, zeinek gizarte-kosten murrizketa dakarten, beste bide bat dira gazteak laneratzeko sektore jakin batzuetan: industria edo eraikuntza.

Horren ildotik, 2010ean onetsi zen laneratzeko kontratu bakarria izenekoa, zeinaren bidez gazte bat kontratatzen baita, 24 hilabetez gehienez ere, eta enplegatzaileak % 50 inguruko deskontua du langilearen gizarte-kostuetan.


Berriki, 2013an, Frantziako gobernu berriak, gazteen enplegua sustatze aldera, bi kontratu-mota berri onetsi zituen: belaunaldien kontratua eta etorkizuneko lanak. Belaunaldien kontratuak bi helburu ditu: gazteei lehen enplegua bilatzen laguntzea, eta enplegatu helduek berea ez dutela galduko bermatzea. Neurri horren muina da urtean lau mila euroko laguntza, hiru urterako, programan parte hartu nahi duten 300 langiletik beherako enpresentzat. Gobernuak kalkulatu du plan horren bidez milioi erdi lanpostu inguru sortuko direla.

Etorkizuneko lanak, berriz, 15 urtetik 25 urtera bitarteko langabeentzako berariazko kontratuak dira, baldin eta bigarren hezkuntza burutu badute, edo ikasketak utzi badituzte, edo lana aurkitzeko dauden arazoan ondorioz lehentasuneko eremu gisa identifikatutako toki batean bizi badira. Programa horretan, Estatuak lan-kostuetan laguntzen du, gutxienezko soldataren % 75 arteko ekarpenaren bidez.

Halaber, Europako Batzordeak eskolatik lanerako trantsizioa hobetzeko neurri gehigarriak hartzeari buruz emandako gomendioa dela-eta, esaterako Gazte Bermea eta ikaskuntzaren sustapena (European Commission, 2013b), Frantziako gobernuak oraindik orain bidali dio Europako Batzordeari etorkizunean herrialdean Gazte Bermea abian jartzeko plana.

4.2. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. FRANTZIA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)


Neurri horiei lotutako gastu publikoari dagokionez, 2005etik aurrera Frantziako gobernuak barne-produktu gordinaren % 0,6 baino gehiago bideratu du enplegu-politika aktiboetara. Portzentaje hori Europako Erkidegoko batez bestekoa baino handiagoa da. Are gehiago, 2009an eta 2010ean gastua handitu zen, krisiaren ondorioz (barne-produktu gordinaren % 0,73ra eta % 0,83ra, hurrenez hurren). Hala ere, aurrekontuaren gorakada horrek ez zuen jarraipenik izan, eta berriro jaitsi zen 2011n, barne-produktu gordinaren % 0,68ra arte (4.2. grafikoa).

4.3.3. Belgikako gazteen enplegurako politikak

2003tik 2010era bitarteko urteetan, Belgikako gazteen langabezia-tasa Europako Erkidegoko batez bestekoaren 1-3 puntu gainera egon da beti, ibilbide paraleloak eginez; hau da, behera egin zuen, 2008an krisiak eztanda egin arte, eta gero berriro gora, 2010ean % 22,4ra iritsi arte (4.3 grafikoa). Hala ere, 2010etik aurrera, inflexioa gertatu eta jaisten hasi zen, EB osoan ez bezala, eta 2011n % 18,7ra iritsi zen. Ostera, epealdi berean, Belgika osoko langabezia-tasa askoz ere txikiagoa izan zen eta ez zuen ia aldaketarik egin, beti % 7 - % 8,5 ingurukoa izan baitzen.

4.3. grafikoa

25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. BELGIKA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Belgikako gazteek lan-merkatuan duten zaugarritasuna ikusita, krisialdietatik haratago dagoela eta egiturazko izaera duela ikusita, herrialdeko enplegu-politikek berariazko neurriak planteatzen dituzte.

Enplegu-politika pasiboek dagokienez, Belgikan, beste herrialde batzuetan ez bezala, hezkuntza-sistema utzi et aktiboki lan bila ari diren gazteek langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea dute, integraziokoa esaten zaion urtebeteko epea igaro ostean.

Politika aktiboek dagokienez, eskumena teorian eskualdeko gobernuena izan arren (kontrataziorako diru-laguntzak izan ezik, haiek gobernu federalaren eskumena baitira), 2012an Belgikako enplegu-plan nazionala onetsi zuen gobernu federalak, gazteen langabeziaren aurkako zenbait neurri barnean hartuta (Cockx, 2013). Europar Batasunaren gomendioak jarraituz, aurreikusitako hobekuntzetako bat da eskualdeko enplegu-zerbitzuen betebeharrak: 25 urtetik beherako langabeekin harremanetan jartzea, izena eman ondorengo hilabeteetan, lana bilatzeko prozesua gidatzeko eta prestakuntza-beharrei buruz aholkularitza emateko. Eskola uztearen arazoaren aurka, eta Bigarren Hezkuntza amaitu duten gazteak laneratzeko dituzten arazoei aurre egite aldera, planak, 2013ko urtarrilean funtzionamenduan jarri zenak, praktika ordainduen 10.000 plaza sortzea aurreikusten du. Praktika horiek langabeziako seigarren hilabetetik aurrera eskainiko zaizkie inoiz lanik egin gabeko 25 urtetik beherako gazteei. Ikaskuntza horrek osatzen du 'Activa Start' izeneko programa, eta egunean 27 euroko diru-laguntzarekin planteatzen da, Langabezia Agentzia Federalak finantzatuta, eta hilean 200 euroko soldata.


Eremu federalari dagozkion beste neurri batzuk hauek dira: kualifikazio txikiko gazteak kontratatuzko diru-laguntzak, oraindik ere hezkuntza-sisteman dauden gazteak praktikak egiteko lanaldi partzialean kontratatzen dituzten enpresaburuentzako zuzeneko laguntza ekonomikoak, soldata txikientzako osagarriak, aurre-erretiroak finantzatzeko funts berezia sortzea, prestakuntza hiru urtez gehienez ere osatu nahi duten gazteentzako zuzeneko laguntza ekonomikoa (urtean 500 euroko zuzkidura lehenengo bi urtetan eta 750 eurokoa hirugarrenengan).

Enplegu-planak zehapenak ere aurreikusten ditu enplegatuen prestakuntzan inbertsiorik egiten ez duten enpresentzat, edo enplegatuek kaleratzen dituztenentzat, giza kapitaleko inbertsioak justifikatu gabe. Halaber, kasu jakin batzuetan enpresaburuak gazteak kontratatu behar ditu.

Aurrekontuei erreparatuta, politika aktiboetarako gastu publikoak gora egin du Belgikan etengabe 2005-2011 epealdian Europar Batasuneko handien artean kokatu arte (A.19. eta 4.4. grafikoak). Danimarkak soilik, gai horretan erreferente denak, barne-produktu gordinaren portzentaje handiagoa bideratzen du enplegu-politika aktiboetarako. Gainera, langabezia-tasa osoa nahiko txikia bada ere, politika pasiboetako gastua handienetakoa da, eta Irlandak eta Espainiak soilik bideratzen dute barne-produktu gordinaren portzentaje handiagoa, langabezia-tasa handien ondorioz.

4.4. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. BELGIKA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

Halaber, Belgikak, Gazte Bermearen bere plana bidali dio Europako Batzordeari; beraz, herrialdean berehala ezartzea espero da.

Amaitzeko, azpimarratu behar da Europako Batzordeak gomendio hauek egin dizkiola Belgikari: sinplifikatzea eta koherentzia sendotzea enplegu-pizgarrien, aktibazio-politiken eta enplegu-eskariaren eta -eskaintzaren egokitzean; eta hezkuntza, etengabeko ikaskuntza, eta langile adinduentzako eta gazteentzako lanbide-prestakuntzarako politikak (European Commission, 2013b).

4.4. EMANTZIPAZIO-EREDU KORPORATIBISTA

4.4.1. Alderdi orokorrak

Emantzipazio-eredu kontinental edo korporatibistak, eredu sozialdemokratikoak bezala, independizatzeko eskubidea aitortzen die gazteei, baina aldea dago sektore publikoak prozesu hori nola bultzatzen duen kontuan hartuz gero. Eredu korporatibistan Estatuaren eginkizuna askoz ere txikiagoa da; horrenbestez, gazteek familiaren aldetik jasotzen duten laguntzarekiko eta laneratzearekiko mendekotasun handiagoa dute.

Eskuarki, ikasketa-aldia luzea da, askotan etxebizitza-emantzipazioa ezinbestekoa da, eta erabakigarria izaten da lehen enpleguaren kalitaterako; beraz, kostu ekonomikoa familiaren kontura izan ohi da. Etxebizitza-emantzipazioaren eta emantzipazio ekonomikoaren arteko disoziazio horiei gazteen “ibilbide independenteak” esaten zaie (Chanvriil *et al.*, 2009), eta eredu korporatibistaren bereizgarria da.

Europako testuinguruan, herrialde korporatibistetan goiz samar gertatzen da emantzipazioa, baina ez Europako iparraldeko herrialdeetan bezain goiz. Halaber, herrialde korporatibisten barruan desberdintasun handiak daude hainbat alderditan: etxebizitza-politikaren garapen-maila, gazteen enplegurako politikan egiten den gastua, gazteen langabezia-tasak... Diferentzia horiek esplikatzen dituzte, neurri handi batean, herrialde bakoitzeko emantzipazio-tasa desberdinak.


4.4.2. Frantziako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Eredu korporatibistako gainerako herrialdeekin alderatuta, Frantziako gazteak goiz emantzipatzen dira (A.16. grafikoa). 2011n, 18 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen % 33 soilik bizi zen gurasoekin, eta gainerako herrialde korporatibistetan portzentaje hori handiagoa zen. Europako Erkidegoko batez bestekoarekin alderatuta, 2006-2011 epealdian, aitarekin eta/edo amarekin bizi ziren 18 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen portzentajea askoz ere txikiagoa zen (4.5 grafikoa). Adin-taldeei erreparatuta, azpimarratzekoa da batez ere, 25 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen artean oso portzentaje txikia bizi dela gurasoekin.

Frantziako etxebizitza-sistemaren bi alderdik emantzipazio-maila handi horiek bideratzen dituzte; alde batetik, etxebizitzak ordaintzeko laguntzen sistema, eta bestetik, alokairu sozialeko parkea. Lehenengo tresna horren bidez, 18 urtetik 34 urtera bitarteko pertsona emantzipatuen % 35 - % 40 inguruk jasotzen du laguntza, eta portzentaje hori handiagoa da horrelako laguntza jasotzen duten 16 urtetik gorako biztanle guztiena baino, azken hori % 22 - % 24 ingurukoa baita (A.24 taula). Bigarrenari dagokionez, emantzipatutako gazteen % 24,4 etxebizitza sozial batean bizi da; datu horrek ere eragin handiagoa adierazten du, biztanleria osoan baino (A.31. taula).

4.5. grafikoa

GURASOEKIN BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. FRANTZIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Hala ere, 2007tik aurrera, atzerakada ikusten da Frantziako gazteen emantzipazioan, bereziki 18 urtetik 24 urtera bitarteko taldean, eta neurri txikiagoan 25 urtetik 34 urtera bitarteko taldean (4.5. grafikoa). Arrazoi bat da 2008tik aurrera nabarmen igo zela Frantzian gazte langabeen proportzioa, eta 2012an % 24ra iritsi zela (4.1. grafikoa). Baina, Bugejak (2013) azaldu bezala, beste arrazoi bat izan da etxebizitza sozial berrien eraikuntzak geldialdia izan duela, eta etxebizitzaren jabe egiteko arazoak gero eta handiagoak direla: kreditu falta, baliabide ekonomikoak falta, familiaren laguntza-gaitasun txikiagoa.

Estatistikei erreparatuta, Frantziako gazteek emantzipatzeko dituzten arazo horiek agerian geratzen dira etxebizitzaren kostua ordaintzeko egin behar den ahalegin ekonomikoan. 2007tik 2011ra bitartean, gazte emantzipatuek egin beharreko ahalegina zen % 50 inguru handiagoa, 16 urtetik gorako Frantziako biztanleriak, oro har, egin beharrekoa baino; alegia, eskura zituzten diru-sarreraren % 20 - % 25 inguru (A.25. taula). Halaber, gazte emantzipatuen artean, gehiegizko ahalegina egiten dutenen portzentajea askoz ere handiagoa da, batez besteko nazionala halako bi, gutxi gorabehera (A.26. taula). Horren ondorioz gazte emantzipatuen artean sarriago gertatzen da hipoteka edo alokairua berandu ordaintzea (A.27 taula), bai eta etxebizitzako zerbitzuak ere (A.28. taula).

Aitzitik, Frantziako gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazo ekonomikoen krisi horrek ez du eragin pobrezia energetikoaren eragin handiagoa (A.29. taula), eta ez du sortu, gazteen artean, etxebizitza zama ekonomiko astuna den pertzepziorik (A.30. taula).


Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da Frantziako gazte emantzipatuen etxebizitzaren kalitatea kaskarragoa dela. Ekipamendu sanitarioa biztanleria orokorrek duenaren antzekoa da (A.34. eta A.35. taulak), baina gehiagotan falta zaie argi naturala (A.32. taula) eta hezetan-arazoak ere sarriagoak dira (A.33. taula). Horrek pentsarazten du herrialde honetako gazteek etxebizitza-gastuei aurre egiteko baliatzen duten estrategia dela etxebizitza bilatzea merkatuko segmentu merkeenean; eta askotan, egoera okerragoan egoten dira.

4.4.3. Belgikako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Belgikan, 2006tik 2011ra bitartean, gurasoekin bizi ziren 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen portzentajea zen lau eta zortzi puntu inguru txikiagoa Europako Erkidegoko batez bestekoa baino, eta denbora horretan ia ez zuen aldaketarik izan (4.6. grafikoa). Frantziarekin alderatuta, Belgikako gazteria zertxobait beranduago emantzipatzen da. Beste arrazoi batzuen artean, Belgikako etxebizitza-politika ez hain garatuak ere eragina du diferentzia horretan. Adibidez, herrialde honetan etxebizitza ordaintzeko laguntzak jasotzen dituzte biztanleriaren % 1 baino gutxiagok, eta 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen % 1 - % 2,5 inguruk (A.36. taula).

4.6. grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA, BELGIKA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Belgikako gazteek etxebizitza-merkatuan daukaten egoera zail hori detektatzen da etxebizitza eskuratzeko baldintza ekonomikoak aztertzean. Belgikan, gazte emantzipatuek etxebizitza-gastuak ordaintzeko egin behar duten ahalegin ekonomikoa da biztanleriak, oro har, egin behar duena baino zertxobait handiagoa. 2007tik 2011ra bitartean, etxebizitzaren kostua izan zen eskura zituzten diru-sarreraren % 25 - % 28 ingurukoa, eta biztanleria orokorarentzat, berriz, % 20 - % 23 ingurukoa (A.37 taula). Era berean, Belgikako gazte emantzipatuek dituzte probabilitate handiagoak diru-sarreraren % 40tik gora gastu horietan erabiltzeko (A.38. taula), hipoteka edo alokairua berandu ordaintzeko arrisku handiagoa (A.39. taula), bai eta etxebizitzako zerbitzuen kasuan ere (A.40. taula). Etxebizitza ordaintzeko arazo ekonomiko horiek bat datoz etxebizitzaren gastu guztiek dakarten zama handiagoren irudipen subjektiboarekin (A.41 taula).

Aitzitik, pobrezia energetikoak ez du eragin handiagoa gazteen artean, biztanleria osoan baino (A.42. taula).

Irakurketa longitudinala eginez, badirudi krisiak ez duela asko larritu Belgikako gazte emantzipatuen egoera ekonomikoa etxebizitza-merkatuan; izan ere, aipatutako adierazleak egonkorrak izan dira 2007-2011 epealdian, edo goera txikiak izan dituzte, esate baterako, etxebizitza-kostuak berandu ordaintzeari dagokionez.

Gazteen etxebizitzaren egoera fisikoari dagokionez, sistematikoki okerragoak dira, biztanleria osoarenak baino, bai argi naturala falta zaielako (A.43 taula), hezetasun-arazoak dituztelako (A.44 taula), ekipamendu sanitarioa egokia ez delako (A.45 eta A.46 taulak), baina 2007-2011 epealdian egoerak ez zuen okerrera egin.

Etxebizitza edukitzeko erregimenari dagokionez ere, gazte emantzipatuen kasuan ez da aldaketa nabarmenik ikusten 2007-2011 epealdian. Nabarmena da soilik 2011n etxebizitza sozialen parkean gazteen proportzioa zertxobait handitu zela (A.47 taula).



5

5. Krisia eta emantzipazioa eredu liberalean: Erresuma Batua eta Irlanda

5.1. ONGIZATE-ESTATU LIBERALA

Eredu liberalak merkatuaren lehenetsuna du ezaugarri, eta Europako testuinguruan Erresuma Batua eta Irlanda ditu ordezkari. Liberalismo klasikoaren gutxieneko esku-hartze publikoaren agindupean, Estatuak merkatua zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen du. Zerbitzu publikoak emateari dagokionez, zeregin txikia du, eta esku hartzen duenean, laguntza publikoak izan ohi dira oso baliabide urriak dituzten biztanleentzat, premien arabera (*means-tested*). Beraz, transferentzien maila oso txikia da eredu liberalean, bai eta eskubide sozialak eta ongizate-estatuaren irismena ere; izan ere, merkatuaren logika eta norbanakoaren erantzukizuna dira nagusi.

Bistakoa da eredu honetan desmerkantilizazioa oso txikia dela, eta, orokorrean, merkatua bera da ongizate-estatuarekin lotutako zerbitzuak hornitzen dituen. Babes sozial ahul hori dela-eta, pobrezia, bazterketa eta gizarte-estratifikazioa handiak izan ohi dira herrialde horietan.

Ereduaren giltzarriko beste ezaugarri batzuk dira familiak euskarri gisa duen eginkizun ahula, lan-merkatuen malgutasun handia, eta ikasketa-aldiaren iraupen laburragoa.

5.2. ETXEBIZITZA-SISTEMA LIBERALA

5.2.1. Europako etxebizitza-sistema liberalaren alderdi orokorrak

Europako eredu liberalean, etxebizitza sozialen parkearen tamaina adierazgarria gorabehera –bai eta urteetan pixkanaka pribatizatu ostean ere– (A.2. grafikoa) etxebizitza-sistema, Kemenyren sailkapenaren arabera, duala da. Izan ere, gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak ditu helburu, ia eksklusiboki. Halaber, etxebizitza ordaintzeko laguntzen sistema zabala da, batez ere Erresuma Batuan (A.13. grafikoa), baina ez da unibertsala, talde zaurgarrienak soilik hartzen baititu helburu. Kontuan izan behar da eredu liberalak estratifikazio handia, desberdintasunak eta gizarte-bazterketa sortzen dituela, eta, horrenbestez, populazioaren portzentaje handi bat laguntza publikoaren mende dagoela, etxebizitza egoki bat eskuratu ahal izateko.

Erresuma Batuko eta Irlandako etxebizitza-sistemen egungo egoera ulertzeko funtsezko alderdi bat da etxebizitza-merkatu horien portaera krisiaren aurretik. Bi herrialdeek biziki pairatu zuten higiezinaren burbuila, honako datu hauek adierazten duten bezala: etxebizitzaren prezioen bilakaera (1.2. grafikoa), hipoteka zorraren bilakaera (1.1. grafikoa), familien zorpetze handia (A.14. eta A.15. grafikoa) eta ahalegin ekonomikoa (A.8. eta A.9. grafikoa). Krisia iritsi zenetik, bi herrialdeetan familia askok arazo larriak dituzte etxebizitzarekin lotutako kostuak ordaintzeko. Zailtasun horiek ikusten dira hipoteka, alokairua edo zerbitzuak ordaintzean atzerapen gehiago daudelako, eta pobrezia energetikoak gero eta eragin handiagoa duelako (A.50., A.51. eta A.52. taulak, eta 5.7 grafikoa).

5.2.2. Etxebizitza-sistema britainiarra

Erresuma Batuko etxebizitza-politikako gastu publikoa Europako altuenetakoa izan da historikoki, barne-produktu gordinaren % 5etik gorakoa hirurogeita hamarreko hamarkadan, eta % 3 ingurukoa 90eko hamarkadan (Trilla, 2001; Lawson eta Milligan, 2008). Gastu publikoaren beherako joera hori dela-eta, 2003an barne-produktu gordinaren % 1,5ekoa besterik ez zen (Domanski eta Norris, 2007), eta 2003tik 2007ra bitartean % 1 inguruan egonkortu zen.

Alokairu sozialeko parkearen pribatizazio-prozesua 80ko hamarkadan hasi bazen ere, Right-to-Buy edo erosteko eskubidea esaten zaion legearen bidez (ODPM, 2005a; Massot, 2007), alokairu soziala oraindik adierazgarria da eta etxebizitzaren parkearen % 18 hartzen du (Laino eta Pittini, 2011), alegia, Europako portzentaje altuenetakoa.

Halaber, etxebizitza ordaintzeko laguntzen sistema (*Housing Benefits* izenekoa) Europako garatuenetako bat da. 16 urtetik gorako biztanleen % 11 inguruk jasotzen du laguntzaren bat; funtsean, maizterrak izaten dira (A.58. taula).

Beraz, ongizate-estatu liberala izan arren, eta Erresuma Batuko etxebizitza-politikaren irismena gero eta txikiagoa bada ere, Europako gainerako herrialdeekin alderatuz gero, esparru horretako esku-hartze publikoa nabarmena da Erresuma Batuan.

Etxebizitza-politikaren alorrean, hauek dira Erresuma Batuko gobernuaren egungo helburuak:

- etxebizitza sozialen eskaintza handitzea, neurrizko prezioa duten etxebizitzaren programa nazionalaren bidez (*National Affordable Housing Programme*, NAHP),
- etxebizitzaren jabe izatea sustatzea HomeBuy programaren bidez, tresna hauek baliatuta: erosteko eskubidea ematen duen alokairua, maileguak baldintza onuragarrietan, alokairu sozialeko parkearen pribatizazioa, eta edukitze partekatuan eta jabetza pixkanaka eskuratzean oinarritutako soluziobideak,
- alokairu sozialeko etxebizitzaren parkea hobetzea,
- auzoetan nahasketa soziala sustatzea; hau da, aniztasuna, diru-sarrerei eta klase sozialei erreparatuta.
- biztanleria zahartzen ari den aldetik, pertsona adinduen etxebizitza-baldintzak hobetzea,
- etxegabeen arazoa desagerraraztea,
- eta hiri-berrikuntza sustatzea.

Eskumen-esparruari dagokionez, gobernu zentralaren eta udalerrien arteko erlazioan oinarritzen da. Helburu handien definizioa eta aurrekontu-esleipenak, gehientsuenetan, gobernu zentralaren ardura dira, eta nazio-mailan

egikaritzea eta kontrolatzea, berriz, Etxebizitza eta Erkidego Agentziaren (*Homes and Communities Agency*, HCA) eta Maizterren Zerbitzurako Agintaritzaren (*Tenant Services Authority*, TSA) eginkizunak dira. HCA estatuaren solaskide nagusia da etxebizitza-alorrean tokiko erakundeekin jarduteko; etxebizitzaren kalitatea hobetzea, lurzorua sustatzea eta berrikuntza bultzatzea ditu helburu. Bestalde, TSAk alokairu soziala gainbegiratzen du, eta estandarrik eta kudeaketa-arauak ezartzen ditu, kudeaketan diharduten gizarte-eragileek bete ditzaten.

Gizarte-eragile dira, hain zuzen, etxebizitza-elkarteak (*Housing Associations*, HA) eta gizarte-sustatzaile erregistratuak (*Registered Social Landlords*, RSL). Entitate horiek irabazi-asmorik gabeko erakundeak, kooperatibak edo fundazioak dira, alokairu sozialaz hornitzea eta kudeaketaz arduratzea xede dutenak.

Bestalde, tokiko gobernuek ere alokairu sozialaren zati txiki bat kudeatzen dute (gero eta txikiagoa, etxebizitza-elkarteei transferitzearen ondorioz), bai eta alokairua ordaintzeko laguntzak ere, eta lurraldean etxegabeei arreta emateko planak garatzen eta egikaritzen dituzte.

5.2.3. Irlandako etxebizitza-sistema

Irlandan etxebizitza-politikaren garapena urriagoa izan da, Erresuma Batuan baino, eta pertsonentzako zuzeneko laguntzak dira ardatz nagusi. Etxebizitza nagusien % 8,7 alokairu sozialekoak dira (Laino eta Pittini, 2011) eta lautatik batek laguntzaren bat jasotzen du etxebizitza ordaintzeko (A.61. taula).

Eskumen-esparruari dagokionez, estatu-mailan, Ingurumen, Erkidego eta Tokiko Gobernuak (*Department of the Environment, Community and Local Government*) etxebizitzari buruzko legedia prestatzeko eta egikaritzeko arduraduna da, baina eskumenak beste sail batzuetara ere hedatuta daude. Ekonomia Ministerioak (*Department of Finance*), Banku Zentralarekin lankidetzan, bere gain hartzen ditu etxebizitzaren fiskalitateari buruzko eskumenak, hipoteka-interesak diruz laguntzea eta gainerako desgrabazioak; Gizarte Babeserako Ministerioak (*Department of Social Protection*) etxebizitza ordaintzeko laguntza ekonomikoez arduratzen da; eta Osasun Ministerioa (*Department of Health*) berriazko premiak dituzten kolektiboek laguntzeko programak garatzen ditu; adibidez, pertsona adinduentzat edo desgaitasunen bat dutenentzat.

Nazio-mailako beste organo bat Etxebizitza Alokairu Pribatuaren Kontseilua da (*Private Residential Tenancies Board*, PRTB). 2004ko Etxebizitzaren Errentamendu Legearen bidez (*Residential Tenancies Act*) sortu zen PRTB, eta jabeen eta maizterren artean bitartekotza egitea eta sortzen diren arazoak konpontzen laguntzea du xede.

Tokiko gobernuek, berriz, etxebizitza-zerbitzu gehientsuenak kudeatzen dituzte; etxebizitzak ordaintzeko laguntzak, etxegabetzearen aurkako ekintza-planak, eta portaera antisozialen aurkako estrategiak. Historikoki, etxebizitza sozialaz hornitzea eta haren kudeaketan jardutea tokiko gobernuen zeregina izan da, baina azken hamarkadan, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, batez ere lankidetzaren sektorea eta boluntarioak, protagonismo handiagoa hartzen ari dira, eta gaur egun parke sozial guztiaren % 18 kudeatzen dute (Laino eta Pittini, 2011). Erakunde horiek nazio-mailan antolatuta daude, Etxebizitza Sozialeko Irlandar Kontseiluaren bitartez (*Irish Council for Social Housing*), eta federazio horretan biltzen dira Irlandan dauden 270 etxebizitza-elkartetik gora.

2011ko ekainean, Irlandako gobernuak azken etxebizitza-programa onetsi zuen, familia guztiei etxebizitza egokia eskuratzeko aukera ematea helburu handitzat hartuta. Programa horren arabera, herrialdeko krisi ekonomiko larriaren testuingurua kontuan hartuta, neurri nagusiak gai hauei buruzkoak dira:

- etxebizitza edukitzeko modu desberdinei tratamendu bidezkoagoa ematea lortzea,

- eskura dauden baliabideekin ahalik eta etxebizitza sozial gehienak hornitzea,
- etxebizitzak ordaintzeko laguntzak tokiko gobernuei transferitzea,
- etxebizitza sozialak sustatzeko mekanismo berriak abian jartzea,
- desgaitasunen bat duten pertsonen etxebizitza egokia bermatzeko neurri egokiak garatzea, Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Etxebizitza Estrategia Nazionalaren esparruan (*Housing Strategy for People with Disabilities*),
- premia bereziak dituzten familientzako etxebizitza-soluzioak eta laguntza-neurri osagarriak bultzatzea,
- lankidetzaren eta boluntario-sektore gero eta gailenagoari laguntzeko legegintza-esparru egokia sortzea,
- eta etxebizitzaren jabe egitea sustatzea, zenbait tresna baliatuta: finantza-laguntzak, jabetza partekatua, eta erosteko eskubidea ematen duen alokairua.

5.3. EREDU LIBERALEKO GAZTEEN ENPLEGURAKO POLITIKAK

5.3.1. Alderdi orokorrak

Lan-merkatu liberalaren ezaugarria da malgutasun eta arintasun handia. Mugikortasuna handia izan ohi da, lanbide-kualifikazioa txikia, eta emakumeen enplegu-tasa nahiko handia. Gainera, emakumeen langabezia-tasa txikiagoa izan ohi da, gizonena baino. Hala ere, emakumeen enplegarritasun handiago hori lan prekarioagoekin lotuta dago.

Enplegu-politika pasiboak dagokienez, laguntzak herritartasunari lotuta daude, eta, orokorrean, babesaren maila txikia da, denboran mugatua, eta enplegu-bilaketa aktiboa ezinbesteko baldintza da.

Enplegu-politika aktiboak dagokienez, garapen eskasa izaten dute, eredu liberalean ez baitago enplegu osoaren aldeko konpromisorik. Izan ere, eredu norbanakoen eskubide eta betebeharretan askoz ere gehiago oinarritzen da, hornikuntza kolektiboan baino. Hala ere, enplegu-politika aktibo horiei lotutako gastu publikoari dagokionez, Erresuma Batuan, ideia liberalekin bat eginez, oso gastu txikia da, baina Irlandan garrantzitsua da (A.19. grafikoa).


Eredu liberalean gazteen langabeziaren aurkako esku-hartze publikoa ulertzeko funtsezkoa den beste elementu bat gazteriaren kontzeptua bera da. Eredu liberalean gaztaroa trantsizio-aldia da, ahalik eta azkarren igaro behar dena, gazteek independentzia ekonomikoa lehenbailehen lortzeko. Horregatik, langabeziaren aurkako hezkuntza- eta prestakuntza-programak laburragoak dira, beste herrialde batzuetan baino.

5.3.2. Erresuma Batuko gazteen enplegurako politikak

Historikoki, Erresuma Batuan gazteen langabezia-tasa nahiko txikia izan da, baina krisiaren aurretik, 2005ean, igotzen hasi zen; gero, 2008an, igoera hori areagotu zen, eta 2012an % 21era iritsi zen. Portzentaje hori oso oso handia da Erresuma Batuan ekonomia-erantzutzat, Europako Erkidegoko batez bestekoaren puntu bat azpitik baino ez (5.1. grafikoa).

5.1. grafikoa

25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. ERRESUMA BATUA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Gazteen langabeziaren krisi horri aurre egiteko, 2012ko apirilean Erresuma Batuko gobernuak Gazte Kontratua (*Youth Contract*) programa abian jarri zuen, 18 urtetik 14 urtera bitarteko biztanleei lan-aukera berri eta zabalagoak emateko. Programa horretan bildutako ekimenak bost eremutan daude egituratuta, funtsean: soldata-pizgarriak, lan-esperientzia hobetzeko neurriak, lan-akademiak (*sector-based work academies*), ikaskuntza-programak, eta lanik egiten ez duten eta, ez prestakuntza-programarik, ez ikasketarik, jarraitzen ez duten 16 eta 17 urteko pertsonen laguntzeko programak (alegia, ez-ez izenekoak).

2015eko martxora bitartean, enpresaburuek 2.275 liberako laguntza jaso ahal izango dute enplegu-bulego publikoen bidez (2011z geroztik *Jobcentre plus* esaten zaie eta Lan eta Pentsio Ministerioaren ikuskaritzapean eta kontrolpean daude) edo 2011ko ekainean luzaroko langabezia murrizteko helburuz onetsitako Lan Programaren (*Work Programme*) barruan kontratatutako 18 urtetik 24 urtera bitarteko langile berri bakoitzeko. Halaber, desgaitasunen bat duten gazteak kontratatzeke pizgarriak daude.

Lan-esperientzia hobetzeko, Erresuma Batuko gobernuak enpresa-sektorearekin batera lanean dihardu, 2012-2015 epealdirako lan-burtsa sortzeko, 18 urtetik 24 urtera bitarteko pertsonen lan-esperientzia beregana dezaten Lan Programan sartu aurretik.

Lan-akademiek enpleguaren aurreko prestakuntza eta laneko praktikak egiteko aukera ematen dute, 6 astez, gehienez ere, prestakuntza- eta trebakuntza-prozesuaren ostean gazteak lana aurki dezan.

Halaber, ikaskuntza-programek soldata-pizgarriak aurreikusten dituzte, 16 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen ikaskuntza bultzatzeko, enpresario txikien parte-hartzearen bidez.

Lanik egiten ez duten eta, ez prestakuntza-programarik, ez ikasketarik, jarraitzen ez duten 16 eta 17 urteko pertsonen laguntzeko programei dagokienez, 2012-2015 epealdirako 126 milioi liberako aurrekontu-partida baliatuta, eta lehiaketa bidez, aurreikusten da Gazteen Prestakuntza Agentziak (*Young People's Learning Agency*) hautatuko

dituela programa horiek eskualde-mailan eta beheragoko mailan diseinatu eta inplementatuko dituzten erakundeak, lan- eta hezkuntza-arloekin loturarik gabeko gazte horiek laneratzea lortzeko.


Osagarri gisa, Erresuma Batuko Enplegurako eta Trebakuntzarako Batzordeak (*UK Commission for Employment and Skills*) enplegu-politika jarduerak ere finantzatzen ditu; esate baterako, Lanbide Gaitasunak Eskuratzeko Programa (*Employer Ownership of Skills Pilot*), enpresaburuak helburu dituen, lantoki berriak sortzeko, enplegatuen gaitasunak eta prestakuntza hobetzeko, eta hazkunde ekonomikoan laguntzeko; edo Berrikuntza eta Hazkunde Funtzaren bidez (*Growth and Innovation Fund*) eta Enplegatzailearentzako Inbertsio Funtza (*Employer Investment Fund*) enplegatzaileei laguntzekoak, gazteentzat errazagoa izan dadin lan-merkatuan sartzea, informazioa eta lanbide-aholkularitza emateko programak finantzatuz, ikaskuntzako eta lan-praktikako plaza berriak sortuz, eta gazteek esperientzia eskuratzeko sustatuz.

Gazte Kontratu programaren funtzionamenduaren lehen urtean, emaitzak ez ziren izan ezarritako helburuen arabekoak. 2012ko ekainetik 2013ko maiatzera bitartean, 4.600 gazteri eman zitzairen enplegua, eta hasierako helburua zen programak iraungo duen hiru urteetan 160.000 gaztek enplegua eskuratzeko.

Oso litekeena da enplegu-politika aktiboetan herrialdean egiten den gastu urria lagungarria ez izatea helburuak lortzeko. Printzipio liberalei jarraituz, gastu hori izan da, historikoki, Europar Batasuneko txikienetakoa (A.19. grafikoa), eta ez zen aldaketarik egin 2008an eta 2009an, urte horietan gazteen langabezia-tasak gora egin arren (5.2. grafikoa).

5.2. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. ERRESUMA BATUA, 2005-2009



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

Gazte Kontratu programari dagokionez, Europako Batzordeak Erresuma Batuari eman dion gomendioa da gazteen langabeziari aurre egiteko neurriak indartzea, esate baterako, Gazte Bermearen bidez, ikastun-kontratuen kalitatea eta iraupena handitzea, kualifikazio-sistema sinplifikatzea, enplegatzaileen konpromisoa sendotzea, batez

ere ezagutza tekniko aurreratuen eta tartekoen prestazioan, eta oinarritzko gaitasun oso urriak dituzten 18 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen kopurua murrizteko jardutea, praktika-programa eraginkortasunez aplikatuta (European Commission, 2013b).


5.3.3. Irlandako gazteen enplegurako politikak

Irlandako boom ekonomikoa laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean hasi zen, eta hainbesteko bizitasuna zuenez, "tigre zelta" esaten zioten. Baina higiezin burbuila lehertu ondoren, bi urtetan soilik % 20 murriztu zen Irlandako ekonomia, eta horren ondorioz, 2010eko azaroan herrialdeak erreskata zezala eskatu zion Nazioarteko Diru Funtsari eta Europar Batasunari.

Krisi ekonomiko horrek ondorio suntsitzaileak izan ditu gazteen enpleguan. 2006tik 2008ra bitartean, Irlandako ekonomiak bazituen jada akidura-seinaleak, eta gazteen langabezia-tasa pixka bat igotzen hasi zen; 2008tik aurrera, ordea, igoera oso nabarmena izan da. Sei urtetan soilik berebiziko aldaketa gertatu zen: gazteen langabezia-tasa % 8,7koa zen 2006an, eta 2012an, berriz, % 30,4koa, Europako Erkidegoko batez bestekoa baino zortzi puntu gehiago (5.3 grafikoa).

5.3. grafikoa

25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. IRLANDA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Herrialdeko gazteen langabezia-tasa handia murriztea helburu hartuta, Irlandako gobernuaren azken Enplegu Planak (*Action Plan for Jobs 2014*) zenbait neurri kontuan hartzen ditu. Horren ildotik, helburu handietako bat da ekintzailtza sustatzea. Horretarako, honako ekintza hauek aurreikusi dira: (i) 31 tokiko ekintzailtza-bulegok (*Local Enterprise Offices*) osatutako sarea abian jartzea, ekintzaile gazteei aholkularitza, informazioa eta prestakuntza emateko enpresa-kontuetan; (ii) enpresa-ekimen berrien gainera fiskalitatea berrikustea; (iii) eta bi milioi euroz hornitutako funtsa, ekimen horien zati bat finantzatzeko. Helburu horrekin lotutako beste ekintza osagarriak dira: etorkizuneko enpresaburuak prestatzeko ekintzailtza-programa pilotu bat abian jartzea; Mikrofinantziario Programa Gaztea (*Microfinance Youth Programme*) ekonomikoki osatzea, Gazteen eta Graduatuen Ekintzailtza Funtsaren

bidez (*Youth/Graduate Entrepreneurship Fund*); unibertsitateko hirugarren zikloko ikasleen enpresa-proiektu berrientzako sariak zabaltzea, enpresa-alorreko doktorego-programa garatzea zientzialarien prestakuntzarako, beren enpresa-ekimenak sor ditzaten, eta gazte boluntarioen sektorea bultzatzea Ekintzaitza Gaztearen Funts berria baliatuta (*Youth Entrepreneurship Fund*).

2014ko Enplegu Planak beste neurri batzuk ere kontuan hartzen ditu: Irlandan graduatutako gazteen lanbide-aukerak handitzea; ikaskuntza ez-formala eta informala aitortzeari buruz Europar Batasunak egindako gomendioan aurrera egiteko ekintzak; eta 2014an Gazte Estrategia berri bat prestatzea.


Europako Batzordea jardun da Irlandako gobernuarekin, gazteen enplegua sustatzeko ekintza-lantaldeen bitartez, lankidetzak tekniko eta ekonomikoan, gazteen enplegurako politika aktiboaren garapenerako (European Commission, 2013b). 2012ko abenduan, lan-merkatuarentzako hezkuntza- eta prestakuntza-funtsa sortu zen: *Momentum*. Funts hori 6.500 luzaroko langaberi prestakuntza emateko Irlandako Ekintza-planaren zati da; 20 milioi euroko aurrekontu-zuzkidura du, eta haietatik 10 Europako Gizarte Funtsak jarriak dira. Halaber, 25 milioi euro esleitu dira *Youthreach* programa integralerako. Programa horrek hezkuntza, prestakuntza eta lan-esperientzia ematen die eskola goizegi utzi duten eta kualifikaziorik edo lanbide-prestakuntzarik ez duten gazteei.

Halaber, Europar Batasunak Irlandari eman dion gomendia da Gazte Bermea implementa dezala. Helburu horrekin, Gizarte Babeserako Ministerioak ministerioarteko lantalde bat sortu du neurri horren ezarpena prestatzeko. Prozesu horretan Irlandako gobernuak ELGaren eta Europar Batasunaren aholkularitza du lagun. Hasiera batean, Gazte Bermea planteatzen da Europako Erkidegoko beste herrialde batzuetan egin den antzera, eta bermatuko du 18 urtetik 24 urtera bitarteko langabeek lan-eskaintza bat, lan-esperientzia bereganatzeko ikastun-plaza bat, edo prestakuntza-programa bat (enpleguarekin bateratua edo bateratu gabe) jasoko dutela lehenengo lau edo sei hilabeteetan. Aurreikusi da Europako Gizarte Funtsak programaren zati bat finantzatzeko duela, eta beste zati bat aurrekontu nazionalen kontura izango dela (Irlandako 2014rako aurrekontuek 46 milioi euroko partida gorde zuten Gizarte Bermea hornitzeko).

Gastu publikoaren ikuspegitik, Irlanda, eredu liberala duen herrialdea izan arren, enplegu-politiketara baliabide gehien bideratzen dituztenen artean dago (A.19. grafikoa). 2008tik aurrera, politika aktibo zein pasiboetara bideratutako barne-produktu gordinaren portzentajeak gora egin du, batez ere politika pasiboaren kasuan, langabezia-tasa igo delako (5.4. grafikoa). Hala ere, Irlandako Gazteriaren Nazio Kontseiluak salatu du 2014ko aurrekontuek murrizketak dituztela enpleguaren alorrean, gazteentzako giltzarrizko kontuetan, hala nola 26 urtetik beharrezko langabezia-prestazioetan, eta gazteen enplegu-zerbitzuko aurrekontuetan.

5.4. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. IRLANDA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

5.4. EMANTZIPAZIO-EREDU LIBERALA

5.4.1. Alderdi orokorrak

Emantzipazio-eredu liberalearen ezaugarri bereizgarria da gurasoen etxea oso gazterik uzten dute; horrenbestez, familiak eta seme-alabak berehala sortzen dira, baina pobrezia-arriskua handiagoa da (Gaviria, 2011).

Emantzipazio-eredu hori bideragarria da, alde batetik, malgutasun handia eta gazteek enplegua aurkitzeko eta autonomia ekonomikoa lortzeko erraztasun handia historikoki bateratu dituen lan-merkatuari esker; eta bestetik, bizileku-trantsizio horren alde egiten duen etxebizitza-politikari esker, bai alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzen bitartez, bai alokairu sozialeko etxebizitzaren bidez. Baina, ikusi dugunez, gazteen langabezia-tasak izan du hazkunde handia Irlandan eta Erresuma Batuan 2008tik aurrera eta, horren ondorioz, herrialde horietan gero eta oztopo gehiago dago emantzipaziorako.

5.4.2. Erresuma Batuko gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Emantzipazio-eredu liberala dela-eta, Erresuma Batuko alderdi bereizgarri bat da gurasoen etxea oso goiz uzten duten gazteen proportzio handia (Holdsworth, 2003). Ohikoena da emantzipazio hori hastea beste gazte batzuekin partekatutako etxebizitzan, baina askotan izan daitezke lan egiten duten gazteak eta bikotekidearekin bizitzea erabaki dutenak, edo ikasleak, beste hiri batera goi-mailako ikasketak egitera joan direnak. Kasu guztietan,


eredu liberalean familiak duen rol ahula gorabehera, gurasoek seme-alabei laguntzen diete bizileku-trantsizio horretan (Holdsworth, 2003).

Sarritan, emantzipazio horrek dakar etxebizitza erostea. Alabaina, prezioen gorakada handia dela-eta (1.2. grafikoa) gazteek etxebizitza erosteko aukera gutxiago dituzte (5.6. grafikoa), emantzipazio-prozesuak atzeratzen dira (5.5. grafikoa) eta familiaren laguntzarekiko mendekotasun handiagoa dute (Rubery, 2010).

Laurogeita hamarreko hamarkadan, Erresuma Batuko gazteen emantzipazio-tasak behera egiten hasi ziren pixkanaka, neurri handi batean, lanaldi osoko enplegu egonkorra zeukaten gazteen proportzioak ere behera egin zuelako. Gaur egun, britainiar gazteriak pairatzen dituen arazo gero eta handiagoak direla-eta, emantzipazio-tasak berriro jaisten ari dira. Gurasoen etxean bizi ziren 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen proportzioak bost puntu egin zituen gora 2006tik 2008ra bitartean, eta hor geratu zen % 38 - % 39 inguruan, beti Europar Batasuneko batez bestekoaren oso azpitik (5.5. grafikoa). Adin-taldean arabera, 2006-2011 epealdian nabarmendu zen, batez ere, gurasoekin bizi ziren 18 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen portzentajeak bederatzi puntu egin zituela gora. Igoera hori lotuta dago, zalantzarik gabe, garai berean Erresuma Batuko gazteen artean gertatutako langabezia-tasaren gorakadarekin.

5.5. grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA, ERRESUMA BATUA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Erresuma Batuko gazteek etxebizitzaren merkaturaren izandako arazo horiek ikus daitezke, halaber, etxebizitza edukitzeko erregimenaren bilakaeran. 2007tik 2011ra emantzipatuta dauden eta etxebizitzaren jabe diren gazteen portzentajeak 16 puntu egin ditu behera. Bestalde, neurri berean indartu da alokairu pribatua gazteen artean (5.6. grafikoa). Aldaketa gogor hori gertatu da, halaber, etxebizitza sozialen parkeak ez duelako gaitasun nahikoa gazteen eskaera berri eta ugari erantzuteko.

5.6. grafikoa

18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ERREGIMENAREN ARABERA. ERRESUMA BATUA, 2007-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Erresuma Batuko gazteen artean alokairu-merkatu pribatuak sortutako interesa detektatu eta aurreikusi dute zenbait azterlanek (Fox, 2009; Rugg, 2010). Clapham *et al.* (2012) ikertzaileek adierazten dute, Erresuma Batuko gazteen etxebizitza-premiei buruz egindako proiektzioan, gero eta presio handiagoa eragingo dutela gazteek alokairuen merkatu publiko eta pribatuan, eta etxebizitza-sistema britainiarrean egiturazko aldaketa sakonak egitea proposatzen dute, honako helburu hauek lortzeko:

- (i) alokairu-erregimen pribatuan egonkortasuna hobetzea,
- (ii) alokairuak ordaintzeko gazteentzako laguntzak handitzea,
- (iii) gazteek merkatuan duten gaitasun ekonomikoa hobetuko duten etxebizitza edukitzeko formulak garatzea; esate baterako, jabetza partekatua,

- (iv) alokairuko etxebizitzaren parkearen egoera hobetzea,
- (v) alokairuko etxebizitzaren eskaintza handitzea, onura fiskalen eta beste pizgarri batzuen bidez,
- (vi) eta etxebizitza sozialak eskuratzeko lehentasuna ematea talde zaugarri zehatz batzuei; adibidez, gazteen azpitalde jakin batzuei.

Higiezinaren burbuila lehertu aurreko geraldian etxebizitzaren prezioen igoera handiaren beste ondorio bat izan zen gazteek ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar zutela etxebizitzaren kostuak ordaintzeko, biztanleria osoak baino (A.48. taula), eta gazteen artean gehiago direla etxebizitza ordaintzeko familiako diru-sarreraren % 40tik gora erabili behar dituztenak (A.49 taula). Horrenbestez, atzeratzeak ere, bai hipoteka edo alokairua ordaintzean (A.50. taula), bai etxebizitzako zerbitzuak ordaintzean (A.51 taula), sarriago gertatzen dira britainiar gazteen artean. Halaber, negu-partean etxebizitzari tenperatura egokian eusteko arazo ekonomikoak ere ohikoagoak dira gazteen artean (A.52. taula).

Hala ere, maila subjektiboan, etxebizitzaren kostua, guztira, zama ekonomiko handia edo oso handia dela irizten dioten gazteen portzentajea itzela bada ere, biztanleria osoan ere ia portzentaje bertsua da hala uste duena (A.53 taula) eta horrek adierazten du higiezinaren burbuilak inpaktu handia izan duela herrialde osoan.


Erresuma Batuko gazteek pairatzen duten etxebizitza ordaintzeko gaitasun ekonomiko ezaren ondorioa belaunaldien arteko desberdintasuna da. Britainiar gizartearekin, oro har, alderatuz gero, gazte emantzipatuen etxebizitzak egoera okerragoan daude: argi naturalik gabeko etxebizitzan bizitzeko probabilitateak % 20 gehiago dira (A.54. taula), eta hezetasuna eta ura sartzea pairatzeko arriskua % 50 gehiago (A.55. taula). Aitzitik, ekipamendu sanitarioari dagokionez (bainugela, bainuontzia edo komuna), gazte emantzipatuen etxeetako gabeziak Erresuma Batuko taldearen oso antzekoak dira (A.56. eta A.57 taulak).

5.4.3. Irlandako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Goraldi ekonomikoaren fasean, Irlandako gazteen emantzipazio-tasa handitu zen, lan-merkatuan gero eta gehiago parte hartzeari esker, ia langabeziarik gabeko testuinguruan (Norris eta Winston, 2013). Hala eta guztiz, igoera hori gorabehera, Irlandako gazteen emantzipazio-tasak askoz ere txikiagoak dira, Erresuma Batuko gazteenak baino. Krisiak eztanda egin aurretik, 2008an, Irlandako gazteen % 50 gurasoekin bizi ziren, Europako Erkidegoko batez bestekoaren eta Erresuma Batuko indizearen gainetik, hiru eta hamabi puntu, hurrenez hurren (5.5. eta 5.7 grafikoak). Diferentzia handi hori, bi herrialdeetako etxebizitza-politiken garapen desberdinen ondorio izatez gainera, lotuta dago Irlandako gizartearen familiak duen eginkizunarekin, han indarrean dauden balio katolikoen ondorioz.

5.7 grafikoa

GURASOEKIN BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA, IRLANDA ETA EUOPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Itxuraz kontraesana dirudi 2006-2011 epealdian, herrialdean gazteen langabeziak gora egin eta Irlandako ekonomia hondatzen ari zen heinean, gurasoekin bizi ziren gazteen proportzioak hamar puntu inguruko beherakada egin zuela: 2006an % 53,3 ziren eta 2011n, berriz, % 43,8 (5.7 grafikoa). Aldaketa demografiko gogor horren zioa da Irlandako gazteen artean lan-emigrazioak egindako gorakada izugarria. Testuinguru ekonomiko zaila ikusita, gazte askok erabaki dute beste hiri batean lana bilatzea, askotan norberaren herrialdetik kanpo, eta horrek emantzipazioa behartua dakar. 2007an egindako azterlan baten arabera, Irlandako unibertsitateko ikasleen artean, hirutik bik pentsatzen zuten beste herrialde batean lana bilatzea, aukeran herrialde anglosaxoi batean (Cairns, 2012). Eta halaxe gertatu da. Krisia hasi zenetik, 397.500 pertsona inguru joan dira beste herrialde batzuetara, batez ere Erresuma Batura, Australiara eta Kanadara; aitzitik, epealdi berean, 277.400 etorkin iritsi ziren. Beraz, migrazio-balantzea negatiboa da eta 120.000 pertsonako aldea dago (Smyth, 2013).

Halaber, Irlandako ekonomiaren okertzea ikusten da gazteek gero eta arazo gehiago dituztelako etxebizitzarekin lotutako kostuei aurre egiteko. 2007tik 2010era bitartean, gora egin zuen alokairua, hipoteka edo zerbitzuak berandu ordaindu zituzten gazte emantzipatuen portzentajeak, lehen halako bi eta gehiago. Halaber, pobrezia energetikoa igo zen, eta emantzipatutako gazteen % 7,7ri eragin zion 2010ean (5.8 grafikoa). Orobat, epealdi horretan, etxebizitzaren guztirako kostua zama astuna zela iritzitako gazteen proportzioa hamar puntu igo zen, emantzipatutako gazteen % 34,3ra iritsi arte (5.9. grafikoa).

5.8. grafikoa

HIPOTEKA, ALOKAIURUA EDO ETXEBIZITZAKO ZERBITZUAK NOIZBAIT (ELKARRIZKETA EGIN AURREKO 12 HILABETEETAN) BERANDU ORDAINDU ZITUZTEN EDO POBREZIA ENERGETIKOAN ZEUDEN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA. IRLANDA, 2007-2010




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

2007tik 2010era bitartean, etxebizitzak dakarren ahalegin ekonomikoa, diru-sarrerak erreferentziazat hartuta, hiru puntu igo zen Irlandako gazte emantzipatuen artean. Horrenbestez, % 25,3ra iritsi zen 2010ean; hau da, biztanleria osoak baino hamar puntu gehiago (A. 59 taula). Halaber, 2008tik aurrera, diru-sarreraren % 40tik gora etxebizitza-kostuak ordaintzeko erabili behar zituzten gazteen portzentajeak gora egin zuen 2008tik aurrera, eta 2010ean, gehiegizko ahalegina egiten zuten gazteen portzentajea % 13,7koa zen, epealdi berean herrialdeko batez bestekoa % 3,1etik % 5,8ra bitartekoa zela kontuan hartuta (A.60. taula).

5.9. grafikoa

18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZAREN GUZTIRAKO KOSTUAK DAKARREN KARGA EKONOMIKOARI BURUZKO IRIZPEN SUBJEKTIBOAREN ARABERA. IRLANDA, 2007-2010



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Krisia gorabehera, Irlandan, Erresuma Batuan ez bezala, etxebizitza edukitzeko erregimenaren ereduari eutsi zaio (A.62 taula) eta ez da etxebizitza ordaintzeko laguntza publikoen kopurua handitu. Laguntza horiei buruz, azpimarratu behar da Irlandaren kasua bakarra dela, aztertutako herrialde guztien artean. Izan ere, gazteek, proportzioen arabera, laguntza gutxiago jasotzen dituzte biztanleria osoak baino; hau da, gazte emantzipatuen % 14 - % 16 inguruk jasotzen dituzte laguntzak, eta biztanleria osoaren % 24 - % 26 inguruk (A.61. taula). Aitzitik, gazte emantzipatuen % 13 inguru bizi da etxebizitza sozial batean, eta portzentaje hori da bi puntu handiagoa, batez besteko nazionala baino (A.62. taula).

Etxebizitzaren alderdi fisikoei dagokienez, Irlandako krisiak ez ditu okertu gazte emantzipatuen etxebizitzaren baldintzak; izan ere, kontuan hartutako adierazle guztietan ez da desberdintasun adierazgarririk antzematen gazteen eta Irlandako gizarte orokorraren artean (A.63. eta A.66. taulak).



6

6. Krisia eta emantzipazioa eredu mediterraneoan: Italia, Espainia eta Euskadi

6.1. ONGIZATE-ESTATU MEDITERRANEOA

Ongizate-estatuen eredu sailkapenean, Esping-Andersenek (1990) hiru eredu soilik jaso zituen: liberala, korporatibista eta sozialdemokratikoa. Baina, ez Espainia, ez Italia, ez Europako hegoaldeko herrialde gehienak, ez ziren bat etortzen hiru eredu horietako batekin ere. Gero, eredu mediterranea edo landu gabea erantsi zitzaion (Leibfried, 1992). Europar Batasunaren barruan, Espainia, Italia, Grezia, Portugal eta Malta eredu mediterraneoan sailkatuta daude.

Eredu mediterraneoan, osasun-arreta unibertsala da, baina gizarte-segurantzaren sistema, gastu soziala eta enplegu-politikak oso ahulak dira. Estatuak babesik ematen ez duenez, familia funtsezko elementua da, hura osatzen duten kideei ongizatea eta segurtasuna emateko, eta gizarte-kohesiorako. Familiaren garrantzi hori lotuta dago, halaber, eliza katolikoak gizarte mediterraneoetan duen indar handiarekin.

Arlo politiko eta ekonomikoan, segiziozaletasuna handia da eredu honetan, eta erakundeekiko konfiantza, berriz, oso txikia. Horren ondorioz, besteak beste, kontuan hartzeko moduko hedapena duen ekonomia informala garatzen da. Horrek zerga bidezko diru-sarrera publikoen murrizketa dakar, eta horrenbestez, ongizate-estatu mediterranea ahulagoa izatea eragiten du.

Testuinguru horretan, jakina, merkatuak askatasun handia du eta desmerkantilizazio-maila oso txikia da.

6.2. HERRIALDE MEDITERRANEOETAKO ETXEBIZITZA-SISTEMA

6.2.1. Alderdi orokorrak

Herrialde mediterraneoetako etxebizitza-sistemak ezaugarri oso bereizgarriak ditu: kide askoko familiak (A.1. grafikoa); biztanleriaren gehiengo nabarmenak etxebizitzaren jabe izatea nahiago du; alokairu pribatu gutxi dago eta ia ez dago alokairu sozialik (A.2. grafikoa), beraz, oso eredu dualak dira; etxebizitza ordaintzeko pertsonentzako

zuzeneko laguntzak oso gutxi garatuta daude (A.13. grafikoa) eta etxebizitza-politikarako aurrekontuak oso urriak dira (barne-produktu gordinaren portzentaje gisa neurtuta).

Esku-hartze publiko ezak honako ondorio hauek ditu: etxebizitzaren alorreko bazterketa handia, pobrezia energetikoaren hedapen handia (A.7 grafikoa), etxegabe ugari, eta birgaitzeko eta ekipamenduak hobetzeko esku-hartzeen premia etxebizitza-parkearen zati batean (A.3tik A-6ra bitarteko grafikoa).

Higiezinaren burbuila bereziki handia izan zen herrialde mediterraneo batzuetan, hala nola Espainian eta Zipren (A.15. grafikoa). Horri erantsiz gero haietako asko krisia pairatzen ari direla –batez ere Grezia, eta neurri apalagoan, Espainia eta Portugal–, emaitza da etxebizitzaren merkatuko biztanleria zaurgarrienaren egoera okertu egin dela, eta horren ondorioz, alokairua, hipoteka edo zerbitzuak ordaintzean atzeratzearen proportzioa izugarri igo dela (A.11. eta A.12. grafikoa), bai eta gehiegizko ahalegin ekonomikoa egiten ari direnen portzentajea ere (A.10. grafikoa).

6.2.2. Italiako etxebizitza-sistema

Gainerako etxebizitza-sistema mediterraneoetan bezala, Italiako sisteman ere, historikoki, etxebizitzaren jabe izatea sustatu da, eta esku-hartze publikoa oso eskasa izan da. Etxebizitza nagusiei erreparatuta, % 68,5 jabetzakoak dira, alokairu soziala parke osoaren % 5,3 baino ez da (Laino eta Pittini, 2011), eta 16 urtetik gorako biztanleriaren % 1,6 - %2,4 inguruk baino ez du jasotzen etxebizitza ordaintzeko laguntzaren bat (A.77. taula). Hala ere, ezaugarri orokor horiek gorabehera, azpimarratu behar da eskualde batetik bestera alde handiak daudela etxebizitza-politikan eta gai horri dagozkion arazoetan.

Italiako etxebizitza-politika hiru mota hauetako etxebizitza babestuetan oinarritzen da:

- (i) Diruz lagundutako etxebizitza (*edilizia sovvenzionata*). Alokairu sozialekoa da eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten familientzako izaten da. Errenta egokitzen da familien diru-sarreraren arabera. Sustapenerako diru-laguntzak oso zabalak izaten dira, kostuaren % 60tik % 100era bitartekoak.
- (ii) Lagundutako etxebizitza (*edilizia agevolata*), alokairukoa zein salerosketakoa izan daiteke. Errentari dagokionez, legez ezarrita dago, edo eraikuntza-kostuaren % 4,5 da, eta sustapenerako diru-laguntzak % 20tik % 60ra bitartekoak izaten dira.
- (iii) Hitzartutako etxebizitza (*edilizia convenzionata*), halaber, alokairukoa zein salerosketakoa izan daiteke. Sustapen pribatukoa da, eta errentaren edo prezioaren baldintzak sustatzailearen eta udalerraren artean negoziatzen dira.

Eskumenei dagokienez, gobernu zentralak proiektuak guztiz edo partzialki finantzatzen ditu, eta etxebizitza-alarreko helburu nazional handiak definitzen eta programatzen ditu; eskualdeetako gobernuak, berriz, etxebizitza-politikan haiek ere eskudunak direnez, planak diseinatzen eta abian jartzen dituzte beren lurraldean.

Etxebizitza sozialen alorrean, parke horren titular eta kudeatzaile dira udalerriak eta etxebizitza publikoen institutu autonomoak (*Istituto Autonomo per le Case Popolari*, IACP). Jarduera hori guztia sektore publikoak finantzatzen du: zati bat gobernu zentralak, eta beste zati bat tokiko gobernuak. Gaur egun, irabazi-asmorik gabeko zenbait erakunde (fundazioak edo etxebizitza-kooperatibak) eta beste eragile pribatu batzuk parte hartzen ari dira etxebizitza sozial berrien sustapenean, lankidetzaren publiko-pribatuen oinarritutako finantziario-soluzioen bidez.

2011n, gazteek etxebizitza nagusia erosteko hipoteka-kredituak eskuratzeko erraztasunak izan dituzten, Italiako gobernuak 50 milioi euroz hornitutako funtsa bultzatu zuen Zuzenean etorkizunera (*Diritto al futuro*) programaren esparruan. Hartzaileak 35 urtetik beherako bikoteak dira (seme-alabekin edo gabe) edo guraso bakarreko

familiak, urtean gehienez 40.000 euroko errenta dutenak, hipoteka ordaintzeko diru-sarrera nahikoak dituztenak, baina ezohiko lan-kontratuen ondorioz ohiko bideetatik kreditua lortzeko arazoak dituztenak. Hipotekarako ez da eskatzen inolako berme gehigarririk. Kreditua 200.000 eurokoa izan daiteke gehienez, eta Estatuak bere gain hartzen du emandako kredituaren erantzukizuna % 50ean.

6.2.3. Espainiako etxebizitza-sistema

Espainian, etxebizitza-alorreko eskumenak Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean banatzen dira, Espainiako Konstituzioaren 148. eta 149. artikulua eta haiei buruz Konstituzio Auzitegiak egindako interpretazioa oinarri hartuta. Espainiako Konstituzioaren 148.1 artikulua ezartzen du autonomia-erkidegoek, nahi izanez gero, lurralde-antolaketa, hirigintza eta etxebizitzaren alorreko eskumenak har ditzaketela beren gain. Bestalde, 149.1 artikulua Estuari esleitzen dio jarduera ekonomikoaren oinarriak ezartzeko eta koordinazio orokorraz arduratzeko eskumena, bai eta kreditua, bankuak eta aseguruak antolatzeko oinarriak ezartzeko eskumena ere. Eskumen-esleipen horren mugaketa argitu zen uztailaren 20ko STC 152/1988 epaian; izan ere, epai horrek adierazten du Konstituzioaren 47. artikuluan jasota dagoen etxebizitza-eskubidea interpretatu behar dela «konstituzioaren agindu edo jarraibide gisa, eta botere publiko guztiek, dagozkien eskumenak egikaritzuz, gauzatzen dituzten jardueren berri eman behar du», eta eskumenak honela banatzen direla: Estatuak, alokairua arautzeaz gainera, esku hartu dezake eta etxebizitzaren azpisektoreko alderdi ekonomikoak arautu ditzake, Espainiako Konstituzioaren 149. artikuluari jarraituz; bestalde, autonomia-erkidegoek beren politika burutzeko eskumen-legitimitatea dute.

Praktikan, Estatuak arautzen du finantziazio publikoaren sistema, aurrekontu orokorren kontura, honako alderdi hauek zehaztuta: babes daitezkeen jarduerak, babesaren maila eta onuradunek bete beharreko baldintzak, metro karratuko oinarritzko prezioa, autonomia-erkidegoen arabera haztatzeko marjina, eta kreditu kalifikatuen gehienezko zenbatekoa; baina ez dauka egikaritzeko eskumenik, autonomia-erkidegoei baitagokie. Autonomia-erkidego bakoitzak, dagokion autonomia-estatutuan jasotako etxebizitza-alorreko eskumena baliatuta, arau bidez garatzen ditu estatuko oinarriak, eta dagokion lurraldean egikaritzen ditu.

Sistema hori etxebizitza-planen inguruan antolatzen da. Estatuak lau urterako etxebizitza-planak onesten ditu errege-dekretu bidez, eta autonomia-erkidegoek, estatuko plan horretan ezarritako esparruan, dekretu bidez arautzen dituzte babes daitezkeen jarduerak, lurraldean etxebizitza duina eskuratzeko aukera jartzeko. Hala ere, ez dago araurik, autonomia-erkidegoek estatuko planean jaso gabeko tresnak diseinatzea eta inplementatzea eragozten duenik. Aldea finantziazioan dago. Estatuaren planen garapen autonomikoa Estatuak finantzatzen du, bi alderdiek arloko biltzarretan sinatutako hitzarmenen bitartez, baina estatuko planaren arabekoak ez diren etxebizitza-tresna autonomikoen ez dute Estatuaren laguntza ekonomikorik jasotzen; beraz, haien kostua aurrekontu ekonomikoen kontura da oso-osorik.

Eskumen-esparru horretan, etxebizitza-alorreko esku-hartze publikoa oso urria izan da Espainian. Alokairu soziala parke osoaren % 1 – % 2 ingurukoa da (Czischke eta Pittini, 2007; Ghékière, 2009), Europako portzentaje txikienetakoa. Izan ere, EB-27 osoan Txipre, Grezia, Letonia eta Estonia soilik dira parke sozial txikiagoa dutenak (A.2 grafikoa). Halaber, 2007-2011 epealdian, etxebizitza ordaintzeko laguntzaren bat jasotakoak biztanleriaren % 1,5 baino ez dira (A.82. taula), eta 2011ren amaieran Espainiako gobernuak emantzipatzeko oinarritzko errenta (RBE) kendu ondoren, are eta gutxiago izango dira laguntzak jasoko dituztenak; errentaren izenak dioten bezala, gazteei bizileku-trantsizioa egiten ekonomikoki laguntzea zuen helburu. Alor honetako gastu publikoa oso txikia da, barne-produktu gordinaren % 0,2tik % 0,3ra bitartekoa 2000 urtean (Domanski eta Norris, 2007). Horrek adierazten du, halaber, Espainiako etxebizitza-politikaren hondar-izaera.

Espainiako etxebizitza-politikaren tresna nagusia da etxebizitza babestua esaten zaiona, edo babes ofizialekoa. Saltzeko, edo alokatzeko, xede horretarako izanez gero, gehieneko prezioa dauka, Estatuak ezarria eta merkatukoa baino merkeagoa.

Historikoki, jabetzako etxebizitza babestua sustatu da gehienbat, sustatzaileentzako zein erosleentzako laguntza publikoen bidez: interesak ordaintzeko laguntzak, zuzeneko diru-laguntzak edo abantaila fiskalak. Horregatik eta, etxebizitza nagusien % 85 jabetzakoak izanik, jabetzari ematen zaion tratamendu fiskal hobeagatik, Espainiak du Europako alokairuko etxebizitzaren proportzio txikienetakoa; izan ere, Europa ekialdeko herrialde batzuk dira aurrea hartu dioten bakarrak, laurogeita hamar urteetan etxebizitza sozialen parkea masiboki pribatu bihurtu baitzuten.

Baina, Espainiako gobernu berriak desgrabazioak kendu ditu, bai eta etxebizitza babestuak erosteko laguntzak ere, mailegu hitzartuak diruz laguntzeko programa izan ezik. Azken horri eusten zaio, familiei laguntze aldera, sinatu zituzten hipoteka-maileguen ondorioz beren gain hartutako betekizunei aurre egin diezaieten. Horren haritik, Etxebizitzaren Alokairua bultzatzeko, Eraikinen Birgaitzea bultzatzeko eta Hiri-berroneratzea eta -berrikuntza bultzatzeko Estatu Planak (2013-2016), 2013ko apirilean 233/2013 Errege Dekretuaren bidez onetsiak, funtsezko aldaketa dakar herrialdeko etxebizitza-politikaren alorrean. Plan hori bi legeren bidez antolatzen da: eraikinen birgaitzea, hiri-berroneratzea eta -berrikuntza bultzatzeko legea, eta alokairuko etxebizitzaren merkatua malgutzeko eta sustatzeko neurrien legea.

Planak 2.421 milioi euroko aurrekontua du, eta zazpi programa hauen bidez egituratu da: alokatzeko laguntzak, etxebizitzaren parke publikoaren sustapena, lehen aipatutako mailegu hitzartuak diruz laguntzeko programak, birgaitzearen sustapena, hiri-berroneratzearen sustapena, eraikinen ebaluazio-txostena ezartzeko laguntza, eta iraunkortasunaren sustapena. Azpimarratu behar da Planak ez duela kontuan hartzen gazteek etxebizitza hartzeko dituzten arazoei aurre egiteko berariazko neurririk, eta xedapenak ekintza orokorretan txertatuta daudela.

Ikus ditzagun zehaztasun handiagoz, etxebizitza eskuratzeko oztopo ekonomikoak konpontzea helburu duten bi programa nagusiak, familia gazte askorentzat onuragarriak izan daitezkeenak. Alokairuak ordaintzeko laguntzei dagokionez, urteko errentaren % 40 arteko laguntzak izango dira, eta etxebizitza bakoitzeko 2.400 euro emango dira gehienez. Hartzaileak izan behar dute IPREM halako hiru baino diru-sarrera txikiagoak dituzten pertsonentzat, familiaren osaeraren eta kide-kopuruen arabera modulatuak. Alokairuko parke publikoa sustatzeari dagokionez, etxebizitza horien sustatzaileek (administrazio publikoak, erakunde publikoak, onura publikorako direla aitortutako fundazio eta elkarteak, GKEak, eta enpresa pribatuak, azalera-eskubidea izanez gero) jaso ditzaketan laguntzak izango dira gehienez ere 250 € etxebizitzaren m² erabilgarri bakoitzeko, eta ezingo dituzte gainditu bi muga hauek: ez eraikuntzaren kostuaren % 30, ez eta 22.500 € etxebizitza bakoitzeko ere.

6.2.4. Euskadiko etxebizitza-sistema

Espainiako planaren antzera, EAEko plan berriak (Etxebizitza Plan Zuzendaria 2013-2016), krisiak sortutako egoera kontuan hartuta, alokairua sustatzea du helburu, etxebizitza publikoak esleitzeko lehentasunezko formula gisa, bai eta eraikinak birgaitzea, hiri-berroneratzea eta -berrikuntza ere, ohiko soluziobidea –alegia, jabetzako etxebizitzaren sustapena– alde batera utzita. Horren haritik, gogoan izan behar da Euskadin jabetzako etxebizitzaren portzentajea % 90koa dela etxebizitza nagusien artean; hau da, Espainian oro har baino handiagoa. Horrenbestez, alokairuaren segmentua oso mugatua da, eta horrek arazoak sortzen dizkie etxebizitza erosi nahi ez dutenei edo erosi ezin dutenei.

Etxebizitza Plan Zuzendariak 460 milioi euroko aurrekontuko zuzkidura du, eta haien laurdena bideratzen da, oso-osorik alokairua sustatzeko (132 milioi euro). Alokairuko etxebizitza berrien sustapena bultzatzeko, Planak neurri hauek planteatzen ditu, besteak beste: (i) etxebizitza eskuratzeko modu berriak sakon aztertzea, esate baterako, erosteko eskubidea ematen duen alokairua eta ordainketa atzeratuen bidezko salerosketa; (ii) etxebizitza eskuratzeko modu berriak ikertzea, adibidez, alokairu-kooperatibak eta erabilera lagatzea; (iii) finantziario-formula berriak partikularrentzat, alokatzeko etxebizitza babestuak erosteko; (iv) erakunde pribatuekiko lankidetzaren bultzatzea, alokairuko etxebizitzak eraikitze eta kudeatzeko; (v) prezioak eta errentak ezartzeko irizpideak berrikustea eta

finantza-erakundeekin hitzarmenak egitea; (vi) Udaletxeekin hitzarmenak bultzatzea lurzorua eragile pribatu eta publikoen esku jartzeko eta alokairuko etxebizitzak sustatzeko lurzoru gehiago gordetzeko.

Lehendik dagoen parkea alokairura bideratzeari dagokionez, Eusko Jaurlaritza urtetan ari da etxebizitza hutsen jabeen eta alokairu-eskatzaileen arteko bitartekotza sustatzen, bai Bizigune programaren bidez, bai eta etxebizitza libreen alokairu-merkatuan bitartekotzan jarduteko programaren bidez ere (*Alokairu Segurua*, *Arrazoizko Prezioa*, ASAP). Bi programa horiei dagokienez, Plan Zuzendariak proposatzen du bi programen operatibari eta eraginkortasunari buruzko azterketa eta hausnarketa, efizientzia hobetzea helburu hartuta.

Planak kontuan hartzen du, halaber, gazteek etxebizitza eskuratzeko berariazko ildo estrategikoa, honako oinarri hauen bidez: (i) alokatzeko zuzkidurako bizileku publikoen sarea sortzea lehentasunezko kolektiboentzat, adibidez gazteentzat; (ii) gazteentzako tutoretzapeko apartamentuak sustatzea; (iii) alokairuaren bidez 18 urtetik 35 urtera bitarteko gazteen emantzipazioa bideratuko duen laguntza-estrategia diseinatzea, etxebizitza partekatuetan edota helduen eta gazteen arteko bizikidetzaren eredu berrien bidez; (iv) eta finantza-erakundeekin lankidetzan jardutea, 35 urtetik beherako gazteek etxebizitza erosteko hipoteka-kreditu bidezko soluzioak bilatzeko.

Alokairua ordaintzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzarako prestazio osagarria ezarrita dauka. Aldizkako laguntza ekonomikoa da, ohiko etxebizitzaren edo bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzeko, edozein modalitateko alokairua izanda ere (errentamendua, berralokatzea, baterako alokatzea, ostatua eta gelak alokatzea). Euskal Autonomia Erkidegoko 2014ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorretan (4/2013 Legea, abenduaren 20koa) adierazitakoari jarraituz, prestazio horren gehienezko zenbatekoa da hilean 250 eurokoa. Laguntza horiei esker, Euskadiko 16 urtetik gorako biztanleen % 2,7 inguruk jasotzen du etxebizitzaren kostua ordaintzeko prestazioren bat (A.82. taula). Portzentaje hori Espainiako batez bestekoa baino handiagoa da, baina oso urrun dago arlo horretan aurreratuta dauden herrialdeetako proportzioetatik.

6.3. HERRIALDE MEDITERRANEOETAKO GAZTEEN ENPLEGURAKO POLITIKAK

6.3.1. Alderdi orokorrak

Herrialde mediterraneoetako lan-merkatuen ezaugarri nagusia langabezia-tasa handia da. Arazo hori egiturazkoa da eredu honetan, eta horren funtsezko arrazoiak honako hauek dira: (i) enplegu osoa lortzeko konpromisorik ez; (ii) lan-merkatuaren segmentazio eta dualizazio handia, zatiketa handia eragiten duena oso babestuta dauden langileen eta beti kolokan daudenen artean; (iii) eskulanaren zati handi baten prestakuntza eskasa, gazteak barnean hartuta; (iv) industria-sektorearen garapen mugatua; inbertsio falta eguneratzearen, berrikuntzaren eta teknologiaren alorrean, eta horren ondorioz, enpresen lehiakortasun txikia.

Lan-merkatu mediterraneoaren beste bereizgarri bat da emakumeen parte-hartze txikia, eta parte hartzen dutenean, lana eta familia bateratzeko arazo handiak gaintitu behar dituzte. Ongizate-estatu mediterraneo ahula da premia handiak dituzten kolektiboari arreta emateari dagokionez, esate baterako pertsona adinduen kasuan. Horrenbestez, zainketa familia barruan egin behar da, eta, zehazki, emakumeek egin ohi dute; beraz, haiek beren gain dituzten familia-kargak handitzen dira.

Hezkuntza-sistemari dagokionez, oso egituratuta dago derrigorrezko hezkuntza amaitu arte; baina, hala ere, gazte askok ikasketak goizegi uzten dituzte eta lan-merkatu sartzeko arazoak dituzte. Lanbide-heziketaren garapen


eskasa eta efizientziarik eza, eta enpresa-sektoreak hezkuntza-prozesuan duen parte-hartze urria dira, besteak beste, fenomeno hori neurri batean esplikatzen duten zioak. Horren alderdi larriena da gazte horien laneratze-prozesuaren arrakasta izan ohi dela ziklo ekonomikoaren araberakoa. Horrenbestez, krisialdi ekonomikoetan langabeziak neurrigabe egiten du gora kolektibo horretan, eta prozesu horrek eragin handia du herrialde mediterraneoetan gaur egun gazteek duten langabezia-tasa izugarrian.

Beste muturrean, goi-mailako ikasketak egiten dituztenek laneratze hobeak dute, enplegua lortzeko aukerak ez ezik, estatus ekonomiko eta soziala kontuan hartuta. Arazoa da herrialde mediterraneo batzuetan goi-mailako ikasketak egin dituzten gazteen kopurua eta proportzioa asko handitu direla denbora gutxian, eta lan-eskaintzak ez duela abiadura bereko bilakaera izan. Eskulan kualifikatuaren gehiegizko eskaintza horrek langabezia-tasaren gorakada dakar goi-mailako tituludun berrien artean, bai eta kualifikazio gutxiagoko lanetan jardutea ere.

Baina, lan-merkatu mediterraneoaren arazo ugariak gorabehera, enplegu-politika aktiboetako gastu publikoa oso txikia da (Espainian izan ezik, eta neurri apalagoan, Portugalen), herrialde sozialdemokratikoetan edo korporatibistetan baino txikiagoa (A.19. grafikoa). Ebn Erresuma Batua eta trantsizio-ereduko herrialde gehientsuenak dira enplegu-politika aktiboetara baliabide gutxiago bideratzen dituzten bakarrak.

6.3.2. Italiako gazteen enplegurako politikak

2007tik aurrera, Europako herrialde gehienetan bezala, langabezia-tasa nabarmen gora egiten hasi zen Italian, bereziki gazteen artean, eta 2012an % 35,3ra iritsi zen (6.1. grafikoa).



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Gazteen langabezia-tasaren goraldi hori geldiarazteko, 2011ko uztailean Italiako gobernuak Zuzenean etorkizunera (*Diritto al futuro*) programa abian jarri zuen, gazteentzako zenbait alorretako ekintzak bilduta: etxebizitza, ikasketak eta prestakuntza, mezenasgoa eta lana. Azken arlo horri dagokionez, planak 51 milioi euro bideratzen ditu enplegatzaileentzako laguntzetan, lan-kontratu mugagabeak egiteko (lanaldi partzialean izanda ere) ardurapeko seme-alabak dituzten 35 urtetik beherako pertsoneri, honako egoera hauetako batean baldin badaude: mugagabea ez den lan-kontratu baten bidez lanean ari direnak, edo lankidetzak koordinatu eta etengabe ari direnak, edo lanik gabe daudenak, edo zentro publiko batean prestakuntza-ikastaro bat egiten ari direnak, mugagabea ez zen kontratua amaitu ostean. Enpresaburuek laguntzak jaso ahal izateko, ezinbestekoa da kontratu berria egin aurreko hilabeteetan langile-murrizketarik ez egin izana, eta langileak ez kaleratu izana (kaleratutako langileen zereginak eta kontratu berriari dagozkionak nabarmen desberdinak izan ezean). Bi alderdientzako beste betekizun bat da langilea ezin dela izan laguntzak jasoko dituen enpresak berak lehenago kaleratutakoa.

Gero, 2013ko ekainean, gobernuak askoz ere asmo handiagoko plana abian jarri zuen gazteen langabeziaren aurka. Plan horrek 1.500 milioi euroko aurrekontua du, Estatuak eta Europar Batasunak batera jarriak. Planak murrizketa fiskalak eta zuzeneko inbertsio ekonomikoak jasotzen ditu 18 urtetik 29 urtera bitarteko gazte graduatu gabeak eta 6 hilabete edo gehiago lanik gabe daudenak kontratatuzko. Neurri horiekin 200.000 gazte langabeei lana emango zaiela kalkulatu da.

Geografiari erreparatuta, Planean jasota dauden baliabide gehienak Italiako hegoaldeko eskualdeetara bideratuko dira, han askoz ere handiagoa baita gazteen langabezia. Gazte langabeen autoenplegua eta enpresa-ekimenak bultzatzeko funtsak abian jarriko dira, azpiegitura publikoen proiektuetan gazteak kontratatuko dira, eta lan-merkatutik kanpo eta hezkuntza-sistematik kanpo dauden gazteentzako (*ez-ez*) laguntzaile-programak sortuko dira. Adibidez, Siziliako gazteen enplegurako planak 452 milioi euroko zuzkidura jaso du Europako funtsen bidez, eta diru horrekin eskualdeko 50.000 gazteri laguntzea espero da.

Plan horretan jasotako neurri orokorretako bat da enplegatzailearentzako onura fiskala, langilearen hileko soldata gordinaren heren baten baliokidea, Plan honen esparruan kontratatutako gazte bakoitzeko 650 eurokoa gehienez, eta urtebetez emango dena, gehienez jota.

Planak jasotzen ditu, halaber, lan-merkatuan berriro sartzeko ahaleginetan dabilzan gazteen prestakuntza-aukerak handitzeko neurriak, ikastun- eta prestakuntza-kontratuen araudian egindako aldaketen bitartez.

Halaber, Planak hiru azpiprograma esperimantal aurreikusten ditu. Programa horietako bat da "Mila gazte Kultura Funtsaren alde". Hasierako aurrekontua milioi bat eurokoa da, eta Kultura eta Turismo Ministerioak kudeatzen du. Programaren bidez, kulturaren eta turismoaren alorretan laguntzaile gisa jarduteko aukera emango zaie gazteei. Ildo berean, beste azpiprograma esperimantal bat, bi milioi euroko zuzkidura duena, gazteek sektore publikoan praktikak egiteko da. Eta hirugarren programaren xedea da 2013 eta 2014 ikasturte akademikoetan graduatutako gazteen laguntzaile-jarduerak finantzatzea.

Amaitzeko, Planak kontuan hartzen ditu enpleguarekin eta enpresen sustapenarekin lotutako espedienteak izapidetzean kudeaketa publikoa arintzeko eta oztopo burokratikoak kentzeko neurriak.

Bestalde, Europako Gizarte Funtsa beste lan-ekimen batzuk finantzatzeko laguntzen ari da Italian; esate baterako, AMVA programa, ikastun-kontratuak sustatzea helburu duena, eta 118 milioi euroko diru-laguntza duena; eta FIXO programa, gazte tituludunen orientazioa eta laneratzea sustatzeko, 36 milioi euro kudeatzen dituena.


Gainera, Italiako gobernuak, Europako Batzordearen gomendioak jarraituz (European Commission, 2013b), Gazte Bermea inplementatzeko programa prestatu du. Lan eta Gizarte Politiketako Ministerioak kudeatuko du

programa hori, eta Europar Batasunari bidali zaio jada. 2015eko abenduan abian jarrita egotea espero da. Europar Batasunak, gazteen enpleguaren alorrean, beste gomendio batzuk ere eman dizkio Italiako gobernuari: lanbide-heziketa eta -prestakuntza sendotzea; enplegu-zerbitzu publiko eraginkorragoak eskaintzea eta maila tertziarioko ikasleei aholkularitza eta lanbide-orientazioa emateko zerbitzuak hobetzea; eta eskola goizegi uztea prebenitzeko eta hezkuntzaren kalitatea eta emaitzak hobetzeko ahaleginak indartzea, irakasleen lanbide- eta karrera-garapena ere erreformatuz.

Alabaina, enplegu-politika aktiboetako gastu publikoari dagokionez, ez da Italiako gobernuaren erreakziorik ikusten, ez behintzat 2011ra arte, urte hori ere barnean hartuta, ezta pentsatu ere. 2005-2011 epealdian, arlo horretan egindako gastu publikoak, barne-produktu gordinaren portzentajearen neurtuta, behera egin zuen urtetik urtera, % 31ra iritsi arte (6.2 grafikoa).

6.2 grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. ITALIA, 2005-2011




Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

6.3.3. Espainiako gazteen enplegurako politikak

Espainia da, hain zuzen, krisialdian gazteen langabezia-tasaren igoera handienetakoa izan duen herrialdea. 2006an % 17,9koa zen, Europar Batasuneko batez bestekoaren ia parekoa (% 17,5), baina 2008tik aurrera berebiziko goraldia izan zuen, eta 2012an % 53,2ra iritsi zen, Europar Batasuneko batez bestekoaren gainetik hogeita hamar puntu eta gehiago (6.3. grafikoa).

6.3. grafikoa

25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. ESPAINIA ETA EUOPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

Espainiako gazteen langabezia-tasa izugarria murriztea helburu hartuta, Europar Batasunak, Europako Gizarte Funtzaren bitartez, 86 milioi eurotik gora bideratu zituen. Haietatik 135 milioi euro inbertitu ziren enplegu-zerbitzu publikoa hobetzeko, gazteek lana errazago bilatzea helburu hartuta. Europako Erkidegoko finantziarioa jaso zuten, halaber, lana eta prestakuntza bateratzen dituzten lantegi-eskolek eta enplegu-tailerrek. Orobat, Europako Gizarte Funtseko 50 milioi bideratu ziren talde zehatzen beharretara egokitutako laneratzeko ibilbide integratuei lotutako jardueretara. Talde horien artean zeuden, besteak beste, desgaitasunen bat zuten gazteak, etnia ijitoko gazteak, eta arazo bereziak zituzten gazteak. Gainera, 2012an Espainiako gobernuak abian jarri zuen diru-laguntzen sistema bat: gizarte-segurantzako kotizazioen murrizketak, gazteak kontratatzen zituzten enpresentzat.

Baina, neurri-multzo nagusia 2013an iritsi zen, 2013-2016rako Gazteen Ekintzailtza eta Enplegu Estrategia onetsi zenean. Estrategiak lau urte horietan guztira izango duen kostu ekonomikoa 3.500 milioi eurokoa izango dela kalkulatu da.

2013-2016rako Estrategiak funtsezko lau jarduera-ardatz ditu: bitartekotza hobetzea, gazteen enplegarritasuna hobetzea, kontratazioa bultzatzea, eta ekintzailtza sustatzea.

Bitartekotza hobetzeko, honako neurri hauek proposatzen ditu: (i) lanbide-orientazioa, laneko informazioa eta enplegua bilatzeko laguntza emateko ekintzak garatzea; (ii) enplegu-zerbitzu publikoen modernizazioa; (iii) enplegurako eta autoenplegurako atari bakarra sortzea; (iv) arlo publiko eta pribatu arteko lankidetzaren berria, aldi baterako laneko enprekin batera lan egiteko oinarria izango dena; (v) mugikortasun-programak sustatzea, bai estatu-mailan, bai Europar Batasunean (bereziki Gazte Bermearen onuradun diren gazteentzat, Europar Batasunaren esparruan inplementatutako tresnen sinergiak baliatuta); (vi) eta hezkuntzatik enplegurako bitartekotza-programak 15 urtetik 24 urtera bitarteko gazteentzat, informazio- eta aholkularitza-zerbitzuekin osatuta.

Estrategian gehien garatutako helburua da gazteen enplegarritasuna hobetzea planteatzen duena. Xede horretarako, honako programa eta ekintzak proposatzen dira:

- Bigarren aukera emateko programak, oso gazterik ikasketak utzi, lan-merkatuan sartu eta orain lan-aukerarik aurkitzen ez duten gazteei prestakuntza ematekoak. Programa horiek, pertsona bakoitzaren enplegarritasunaren eta prestakuntza-mailaren arabera egokitzeo, hiru modalitate izango dituzte: (i) berariazko programak, laguntza ekonomikoarekin osatuak, kualifikazio gutxiko gazteek beren borondatez prestakuntzari berriro heltzeko aukera izan dezaten; (ii) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tituluak eskuratzeko programak; horretarako aldatuko da 18 urtetik gorakoek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako tituluak lortzeko eta 20 urtetik gorakoek Batxilergoko tituluak lortzeko proba libreen araudia, bai eta Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo berrirako sarbidea ere; (iii) eta DBHko titulurik ez daukaten 25 urtetik beherako gazteek 1. mailako lanbide-gaitasunaren ziurtagiriak lortzea helburu duten prestakuntza-ekintzak.
- Kontratazio-konpromisoa duten prestakuntza-programak, gazteentzat bereziki prestatuak.
- Prestakuntza, batez ere hizkuntzetan eta informazio- eta komunikazio-teknologietan, oso bereziki, Gazte Bormearen barruko gazteentzat.
- Lanekoak ez diren praktikak enpresetan, lan-esperientziarik ez izateagatik enplegarritasun txikia duten gazteentzat.
- Lanbide Heziketa Duala bultzatzea, prestakuntzarako ikastun-kontratuaren bidez, praktikaldiko kontratua egiteko lanbide-kualifikazio aitorturik ez duten 16 urtetik 25 urtera bitarteko langileentzat. Lanbide-heziketa ordaindu hau emateko, % 100era arteko murrizketak ezartzen dira enpresaburuaren kontribuzioetan, langile-kopuruaren eta kontratu-motaren arabera.
- Lanbide Heziketa bultzatzea hezkuntzaren esparrutik.
- Lan bat garatzeko lanbide-gaitasunak ofizialki egiaztatzen dituen profesional-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-programak.
- Lan-esperientziaren bidez eta prestakuntzarako bide ez-formalen bitartez eskuratutako gaitasunen ebaluazioa eta egiaztatzea, hezkuntza-sistema goizegi eta kualifikaziorik gabe utzi zutenek itzultzeko aukera izan dezaten.
- Lantegi-eskolako programak. Lantegi-eskolak aldi baterako proiektuak dira, ikaskuntza eta kualifikazioa lan produktiboarekin txandakatzen dira, ondare artistikoa, historikoa, kulturala edo naturala berronertzearekin edo sustatzearekin lotutako jardueretan, bai eta profesionalizatzearen eta esperientzia eskuratzearen bidez laneratzea bideratzen duen onura publiko edo sozialeko beste edozein jardueratan. Ikasle gaiak 25 urtetik beherakoak izan behar dute, enplegu-zerbitzu publikoetan erregistratutako langabeak, eta prestakuntzarako ikastun-kontratua sinatzeko ezarritako baldintzak bete behar ditu.
- Ikas-ekinezko prestakuntzako ikastegi programak. Ikastegi horiek aldi baterako proiektuak dira, ikaskuntza eta kualifikazioa lan produktiboarekin txandakatzen dituztenak, honako arlo hauekin lotutako jardueretan: hiri- edo landa-inguruneak edo ingurumena mantentzea eta zaintzea; herri eta hirietako bizi-baldintzak hobetzea, gizarte-zerbitzuak eta zerbitzu komunitarioak emanez; edo profesionalizatzearen bidez eta esperientzia eskuratzearen bitartez laneratzea bideratzen duen onura publiko edo sozialeko beste edozein jarduerara. Ikasle langileak 25 urtetik beherakoak izan behar dute, enplegu-zerbitzu publikoetan erregistratutako langabeak, eta prestakuntzarako ikastun-kontratua sinatzeko ezarritako baldintzak bete behar ditu.

Gazteen kontratazioa bultzatzeko neurriak oinarritzen dira gizarte-segurantzaren kuotak eta hobariak % 100 arte murriztean (faktore hauen arabera: enpresaren tamaina eta mota, kontratu-mota, kontratatutako pertsonaren esperientzia, adina eta sexua, uztailaren 26ko 11/2013 Legean xedatutakoari jarraituz) 30 urtetik beherako kontratazioa bultzatzeko, edota 35 urtetik beherakoena, desgaitasunen bat duten pertsonen kasuan. Langabezia-tasa % 15etik behera jaisten ez den bitartean neurri horiek indarrean egotea aurreikusten da.

Amaitzeko, ekintzailletza sustatze aldera, Estrategiak planteatzen du:


- Autonomoentzako tarifa finkoa. Langile autonomoen araubide berezian alta ematen duten gazteek, norberaren kontura jardura bat hasteko, lehenengo hilabeteetan gutxieneko kuota bat ordaindu ahal izango dute, kontingentzia arruntetarako.
- Langabezia-prestazioa eta ekintzaile-jardura baten hastapenak bateratzea, bederatzi hilabetez gehienez ere, langabezia-prestazioaren kapitalizazioaren alternatiba gisa, ekintzailletzari heltzea erabakitzen duen pertsonari gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eta bere proiektua abian jartzeko erraztasunak emateko.
- Ekintzailletza-jardura batean hasteko langabezia kapitalizatzeko aukerak (ordainketa bakarra) zabaltzea.
- Bigarren aukera esaten zaiona. Proiektu bat bideragarria ez denean, langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea dutenek, baja eman ostean, berriro hura kobratzen hasteko aukera izatea. Neurri alternatiboa da, norberaren kontura jardura bati ekitean langabezia-prestazioa kapitalizatu edo bateratu ordeztokizunerako babes-sareari eutsi nahi diotenentzat.
- Kultura ekintzailea ikastetxeen, Lanbide Heziketako zentroen eta enplegu-zerbitzuen bitartez sustatzea.
- Ekintzaileei aholkularitza emateko eta laguntzeko jardueretan espezializatutako erreferentziatzko bulegoak sortzea. Horrez gainera, honako ekimen hauek aurreikusi dira: (i) enpresa-mintegiak sortzea, batez ere Europako Gizarte Funtsean parte hartzen duten erakundeen bitartez; (ii) autoenplegua eta gizarte-ekonomiaren esparruko ekintzailletza kolektiboa bultzatzeko diru-laguntzak eta zuzeneko laguntzak; (iii) aholkularitza ematea autoenpleguaren, enpresen sorreraren eta ekintzailletzarako prestakuntzaren alorrean; (iv) eta enpresa-ekimen horiek finantzatzeko mikrokredituak Europako Gizarte Funtsearen 2014-2020 epealdirako programazioaren esparruan.

Halaber, azpimarratu behar da, Estrategiak ez duela jasotzen gazteentzako berme-sistema zuzenean inplementatzeko prozesua, baina sistema hori garatzea bideratuko du, eta 2014-2020 urte anitzeko finantza-esparruan EBk zati batean finantzatzeko programetan integratuko dela bermatzen du.

Gastu publikoari dagokionez, Europar Batasuneko herrialde mediterraneoan artean, Espainia da enplegu-politika aktiboetara baliabide gehien bideratzen dituen (A.19 grafikoa). 2005etik 2008ra bitartean, barne-produktu gordinaren % 0,6 gorde zen xede horretarako, eta 2010ean, berriz, % 0,73 (6.4 grafikoa). 2013-2016 Estrategian planteatutako neurri ugariak ikusita, plan hori egikaritzeko aldiaren enplegu-politika aktiboetako gastua nabarmen handituko dela dirudi.

6.4 grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. ESPAINIA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

Bestalde, politika aktiboetan egindako gastuaren bilakaerari erreparatuta, 2008tik aurrera hazkunde esponentziala izan du; hain zuzen, urte horietan langabezia-prestazioa jasotzeko eskubidea duten langabeen kopuruak izan duenaren parekoa (6.4 grafikoa). 2011n Espainia zen horretarako baliabide gehien erabiltzen zituen herrialdea: barne-produktu gordinaren % 2,81 (A.19 grafikoa).

6.3.4. Euskadiko gazteen enplegurako politikak


Euskadiko gazteen langabezia-tasaren bilakaera izan da Espainiako tasak izan duenaren antzekoa, baina puntu batzuk beherago ibili da. 2007an % 15ekoa zen, Europako Erkidegoko batez bestekoaren parekoa, baina handik aurrera gora egiten hasi zen indar handiz, eta 2012ko amaieran % 46ra iritsi zen (6.5 grafikoa).

Eusko Jaurlaritzak, gai horretan dituen eskumenen¹³ barruan, bere enplegu-planak egin zituen. Enpleguaren Euskal Estrategia 2011-2014k berariazko ardatz bat ezarri zuen gazteen kontratazioa sustatzeko eta hezkuntza-sistematik lan-merkaturako bidea errazteko honako bitarteko hauek baliatuta: kualifikazioa hobetzea, ekintzailatza bultzatzea eta laneko lehen esperientzia eskura jartzea (3. ardatza).

¹³ Gai horri dagokionez, funtsezkoa da enplegu egonkorrari buruz Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak ezarritakoa, bai eta azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu publikoak burutzen dituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa, eta azaroaren 5eko 1442/2010 Errege Dekretua, Itsasoko Gizarte Institutuak hezkuntza, enplegua eta enplegurako lanbide-heziketaren arloetan zituen zeregin eta zerbitzuak Euskal Autonomia erkidegoari eskualdatzekoa; eta azaroaren 9ko 289/2010 Dekretua, Transferentzien Batzorde Mistoaren 2010eko urriaren 28ko Akordioa onartzen duena (akordio horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen zaizkio lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruko eginkizun eta zerbitzuak).

6.5 grafikoa

25 URTETIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. EUSKADI ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2005-2012 (%)



Iturria: INE, Encuesta de Población Activa (EPA)

Gazteen kualifikazioa hobetze aldera, Estrategiak honako helburu hauek ditu: (i) hezkuntzan, prestakuntzan edo enplegatuta dauden 15 urtetik 24 urtera bitarteko gazteen portzentajea handitzea; (ii) goi-mailako ikasketak edo baliokideak burututako 20 urtetik 29 urtera bitarteko pertsonen portzentajea handitzea; (iii) bigarren hezkuntza gainditutako 20 urtetik 24 urtera bitarteko biztanleek proportzioa handitzea (% 82raino); (iv) eta txandakako prestakuntzaren eskaintza handitzea.

Gazteen talentua bultzatzea eta ekintzailtza sustatzea helburu hartuta, Estrategiak honako hau planteatu zuen: (i) ekintzaile-gaitasunei buruzko orientabidea eta prestakuntza hezkuntza-sisteman eta enplegurako prestakuntza-eskaintzan txertatzea; (ii) talentu gaztea bultzatzea, gazteen enplegua eta I+G+b programak lotzeko ekintza koordinatuaren bidez; (iii) eta ekintzailtza kultura sustatzea lehenengo eskolatzeko-urteetan, arriskuak norberaren gain hartzea gizartean balio positibotzat jotzea bultzatzea, enplegu gehiago eta hobeak sortuko dituzten enpresa berriak sortzeko kultura sustatze aldera.

Halaber, 2014an langabezia-tasa % 20tik behera jaisteko ekintza hauek planteatu zituen: (i) lanbide-gaitasunerako orientazio- eta aholkularitza-sistema gazteengana hurbiltzea eta egokitzea; (ii) mugikortasun geografikoa eta Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egonaldiak sustatzea; (iii) lehenengo lan-esperientzia enpresekiko eta erakundeekiko lankidetzaren bidez eskuratzea.

2013an, Eusko Jaurlaritzak abian jarri zituen zenbait ekimen enplegua sortzea eta mantentzea bultzatzeko. Neurri horien artean azpimarratzekoak dira honako hiru hauek: (i) Kooperatiben Junior Programa, hezkuntza-eremuan kooperatiben sorrera bultzatzeko, prestakuntza-jarduerak eta benetako lanak egitea bateratzen dituzten gazteen espiritu ekintzailea garatuz eta bideratuz; (ii) *Lehen Aukera*¹⁴ ekimen pilotua, unibertsitateko edo lanbide-heziketako

¹⁴ 1.500 euroko 345 beken deialdia egin zen 2012/2013 ikasturteko unibertsitate-tituludunentzat, prestakuntza-programa eta hiru hilabeteko lanbide-praktikak enpresetan egiteko.

titulua atera berria duten pertsonen laneko esperientzia lor dezaten; (iii) eta mikrokredituen programa, mikrofinantziazioan espezializatutako erakundeekin egindako hitzarmenen bitartez, mikroekintzailtza-proiektuak helburu hartuta.

Gero Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 Enplegu Plana egin zuen, eta plan horren bidez 23.000 gazteri laneko lehen esperientzia izateko aukera ematea espero da. Plan horretan, gazteen langabeziaren aurkako neurri garrantzitsuak eman zaie eta planaren sei programa operatiboetako bat osatzen dute. Gazteen enplegua eta gazteentzako bermea sustatzeko programa hori, berriz, lau jarduera-ardatzetan egituratuta dago: gazte ekintzaileei laguntzea, heziketa duala, laneko lehen esperientzia eta talentu gaztea.

Gazte ekintzaileei laguntze aldera, autoenpleguaren eta enpresa berrien sorreraren bideak baliatu nahi dira, gazteentzako enplegua sortzeko tresna diren aldetik. Horretarako, Planak planteatzen du: (i) Gazte ekintzaileei laguntzeko programa, proiektuen bideragarritasuna aztertzeko egin beharreko gatakei aurre egin ahal izateko; (ii) gazteek sustatutako proiektuen bideragarritasuna aztertzen, negozio-planak egiten eta gazteek sustatutako enpresa-ekimen berriak abian jartzen aholkularitza eta laguntza ematea, enpresa berrietarako finantziazioaren bilaketa barnean hartuta; (iii) gizarte-ekonomian trebatzeko eta hura zabaltzeko ikastaroak gazteentzat; (iv) *Urrats bat* programa, lanbide-heziketan ekintzaileei laguntzeko; (v) Junior Kooperatiba programa, junior kooperatiba honela definituta: "sozietatearen helburutzat abilezien implementazio praktikoa eta bazkide erabiltzaileek, matrikulatuta dauden ikastetxeetan garatzen dituzten jardueretan eskuratzen dituzten ezagutzak dituztenak, ikasleek sortzen dituzten eskaintzak eta proiektuak merkatuan abian jarritz".

Bestalde, heziketa dualaren helburua da enplegu eta prestakuntzako ekintza eta ekimen mistoak sendotzea, enpresako ordaindutako lan-jarduera eta lanbide-heziketaren sistemaren edo hezkuntza-sistemaren esparruko prestakuntza txandakatuz. Helburu hori lortzeko bidea bi programa hauetan oinarritzen da: (i) HEZIBI Prestakuntza eta Lan Programa, LHko ikasleentzat eta 16tik 30 urtera arteko gazte langabeentzat, LH titulua edo lanbide-ziurtagiria lortzen duten bitartean lanean jarduteko, programa txandakatuaren bidez; (ii) eta lantokietako Praktiken Programa, Lanbide Heziketako heziketa-ziklo guztietan garatzen dena.

Gazteen lehen lan-esperientzia sustatzeko, 2014-2016 Enplegu Planak zazpi neurri biltzen ditu:

- (i) *Lehen Aukera* programa, gazte tituludunek enpresetan praktikak egiteko;
- (ii) Euskal enpresek atzerrian dituzten lan-zentroetan gazte langabeak praktiketan kontratatzeko laguntzak.
- (iii) Gazteak enpresetan errelebo-kontratu bidez sartzeko laguntzak.
- (iv) Sozietate kooperatiboetan plantillak berritzeko laguntzak.
- (v) Unibertsitateekin eta Novia Salcedo fundazioarekin lanbide-orientazioko hitzarmenak egitea, unibertsitate-ikasleentzat amaitu berri dituzten edo azken urtean dauden gazteen laneratzea errazteko.
- (vi) Gazteentzako berriazko orientabidea eta lehen lan-esperientziarako laguntza.
- (vii) Nazio Batuen proiektuko bekak, herrialde pobretuetan Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeek garatzen dituzten proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei laguntza emateko.

Amaitzeko, Gazte Talentuaren xedea da Euskal gazteei bikaintasun kualifikaziorako aukera bat ematea, eta pizgarriak ezartzea, gazte-talentua Euskadin atxikitzeko, bai eta kalitatezko enplegu-aukerak eskaintzea ere, nazioarteko lan-esperientzia bat izan ondoren Euskadira itzuli diren gazteei. Horretarako, berriazko bost programa biltzen ditu Planak:

- (i) Enplegu Berdea programa, kualifikazio-maila handiko gazte langabeen enplegarritasuna hobetzea helburu duena, garapen iraunkorrekina lotutako arloetan.
- (ii) Unibertsitateko titulua duten gazteei nazioartekotze-gaietan prestakuntza emateko bekak, unibertsitateen eta enpresen arteko lankidetzaren bidez.
- (iii) Talentua atxikitze programak.
- (iv) *Global Training* bekak, unibertsitateko titulua edo goi-mailako lanbide-heziketako titulua duten gazteentzat, atzerriko enpresetan eta erakundeetan praktikan egiteko.
- (v) Gazteak itzultzeko programa, nazioartean lan-esperientzia bat izan ondoren Euskadira itzultzen diren gazteei kalitateko enplegua lortzen laguntzeko.

6.4. EMANTZIPAZIO-EREDU MEDITERRANEOA

6.4.1. Alderdi orokorrak

Eredu mediterraneo edo landu gabeen familiaren eginkizuna funtsezkoa da. Gurasoekin luzaro bizi ohi dira gazteak, eta lan-merkatuan sartzen dira, eskuarki, ikasketak egin ondoren. Alokairuko etxebizitza sozial zein pribatu gutxi eta laguntza publiko gutxi daudenez, oso ohikoa da emantzipatzean etxebizitza erostea, gurasoekin bizi izandako denboran aurreztutako diruari eta eskuarki gurasoen laguntzari esker. Gainera, sarritan emantzipazio horrek bikotea osatzea dakar (Iacovou, 2004).

Eredu honetan emantzipazioa atzeratzen duen beste faktore bat da pobrezia-arriskua dakarrela, baliabideak nahikoak ez baldin badira. Halaber, pobrezia-arriskuan dauden etxeetatik datozen gazteen emantzipazio azkarrak gizarte-bazterketa arriskua areagotzen du. Horregatik, elkarrekin bizitzeak familia barruko laguntza bermatzen du, bai seme-alabek gurasoei ematen dietena, bai alderantzizkoa (Cantó eta Mercader, 2001a, 2001b; Parisi, 2006, 2008; Ayllón, 2009).


Baina gurasoekin luzaro bizitzea ez da soilik zio ekonomikoen ondorio. Arrazoi politiko, sozial eta kultural sendoak daude, askotan familiak gizarte mediterraneoan duen eginkizunari lotuak. Izan ere, etxebizitza-politika oso mugatua da, ia erabat jabetzara bideratua; gazteek ez dute ziurtasunik lan-merkatuan, malgutasuna dela-eta; etxebizitza ondasun ekonomikotzat hartzen da, eta haren jabe izateko nahia oso hedatua dago; gurasoen etxeko bizimodua laxoagoa da, arau sozialak malgutzaren ondorioz; ikasketak egiteko denbora luzatu da; eta kontsumo-maila altuari eustearen aldeko aukera egiten da, emantzipazioa atzeratzearen truke. Arrazoi horiek eta beste batzuk elkarrekin lotzen dira eta emantzipazio-eredu hau esplikatzen dute.

6.4.2. Italiako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Alderdi kuantitatiboari erreparatuta, Italian emantzipazioa eredu mediterraneoaren jarraibideen arabera da. 2006tik 2011ra bitarteko epealdian, eta aintzat hartutako adin-talde bakoitzean, Italiako emantzipatu gabeko gazteen portzentajea nabarmen handiagoa zen, Europako Erkidegoko batez bestekoa baino, eta diferentzia hori 13-14 puntu ingurukoa zen 18 urtetik 34urtera bitarteko pertsonen taldean (6.6. grafikoa).

6.6. grafikoa

GURASOEKIN BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA, ITALIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011 (%)



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)


Emantzipazio-tasaren bilakaeran krisiak izandako eraginari dagokionez, Italian ia ez da aldaketarik ikusten 2007-2011 epealdian. Zalantzarik gabe, gurasoen etxean egindako denbora luzatzean datzan estrategia horrek, Italian oso nabarmena denak, etxebizitza-trantsizioari aurre egiteko aukera ematen du, ziklo ekonomikoa gorabehera. Gogoan izan behar da, familiatik kanpo, laguntza gutxi daudela etxebizitza-alorrean: 16 urtetik gorako biztanleen % 1,6 – % 2,4 inguruk jasotzen du soilik etxebizitza ordaintzeko laguntzaren bat, eta horren halako bi gazte emantzipatuen artean: % 2,5 – % 5 (A.77 taula); Italiako biztanleen % 4-5 soilik bizi da etxebizitza sozial batean, eta gazte emantzipatuen artean ere proportzioa berbera da (6.7 grafikoa).

Italiako gazteek emantzipatzeko dituzten arazoan adierazlea da etxebizitzaren merkatuan duten egoera, kostuak eta diru-sarrerak kontuan hartuta. 2007tik 2011ra bitartean, Italiako gazteek etxebizitza-kostuak ordaintzeko egin beharreko ahalegina izan zen eskura zituzten diru-sarreraren % 24 - % 26 ingurukoa, eta batez besteko nazionala % 16 - % 17koa baino ez zen (A.67. taula). Gainera, 2009tik aurrera, kostu horietara % 40tik gora bideratu behar dituzten gazteen portzentajea handitu egin da, eta italiar gazte emantzipatuen % 19,7ra iritsi da (A.68. taula). Bestalde, estatu-mailan, orokorrean, gehiegizko ahalegin horren tasa ez da handitu eta egonkorra da, biztanleriaren % 7 – % 8 ingurukoa.

Gazte emantzipatuek etxebizitza-gastuei aurre egiteko dituzten arazo horiek ikusten dira berandu egindako ordaintzetan, bai hipoteka edo alokairuari erreparatuta (A.69. taula), bai zerbitzuei dagokienez (A.70. taula). Halaber, gazte emantzipatuen artean zertxobait gehiago dira gastu horiek zama astuna direla uste dutenak (A.71. taula). Alabaina, pobrezia energetikoa dela-eta, ia ez dago desberdintasunik gazte emantzipatuen eta biztanleria orokorraren artean, bietan ere oso handia baita, aztertutako herrialde guztietako handiena (A.72. taula).

6.7 grafikoa

18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ERREGIMENAREN ARABERA. ITALIA, 2007-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Etxebizitzari lotutako arazo ekonomiko horiei guztiei krisi erantsita, italiar gazteen etxebizitza edukitzeko eredu aldaketak ere egin dira. 2007tik 2011ra bitartean gazteen aukera nagusia jabetza bada ere, aukera horrek indarra galdu du, eta alokairua gero eta erakargarriagoa da. Arreta berezia merezi duen datua eta familiak emantzipazioan duen eginkizun sendoa adierazten duena da lagatako etxebizitzetan bizi diren gazteen proportzio handia (% 17 – % 19), eta etxebizitza horiek ziur asko gurasoenak edo familiako beste kide batzuenak dira (6.7 grafikoa).


Italiar gazte emantzipatuen etxebizitzen kalitateari dagokionez, biztanleria orokorraren etxebizitzen antzekoak dira, eta neurri bertsuan pairatzen dituzte argi naturalaren falta (A.73. taula), hezetasuna (A.74. taula) eta ekipamendu sanitarioaren gabeziak (A.75. eta A.76. taulak).

6.4.3. Espainiako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Espanian ere, gazteen emantzipazioa eredu mediterraneoaren araberakoa da, hertsiki. 2006tik 2011ra bitartean, gurasoekin bizi ziren 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen portzentajea zen lau puntutik zortzi puntura handiagoa, Europako Erkidegoko batez bestekoa baino (6.8 grafikoa). Hala ere, Italian ez bezala, Espainian ikusten da emantzipazioaren gorakada txiki bat.¹⁵ Horrek pentsarazten du, Irlandako kasuan bezala, krisiak eta langabezia-tasa izugarriak bultzatu dituztela gazte asko lana edo prestakuntza hobea bilatzera gurasoen etxetik kanpo (6.3 grafikoa).

6.8 grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA, ESPAINIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

¹⁵ Iturri eta irizpide metodologiko desberdinetan oinarritutako beste azterlan batzuek (esate baterako, Moreno *et al.*, 2012) adierazten dute 2009-2011 epealdian zertxobait behera egin duela Espainiako gazte emantzipatuen portzentajeak. Sarreran adierazi bezala, EU-SILC adierazlea, azterlanaren oinarri dena, zabalagoa da printzipalitate-tasa baino, kontuan hartzen baititu gurasoekin edo gurasotzat hartzen dituztenekin jada bizi ez diren gazte guztiak, bai herrialde berean bizi direnak, bai beste herrialde batera emigratu dutenak, bai gaztea ez den eta gurasoena ez den beste familia batean bizi direnak ere. Oso litekeena da emaitzen arteko aldea izatea egungo krisialdian Espainiatik kanpo emigratu duten gazteen eta kontuan hartu gabeko beste etxebizitza-egoeren ondorioz.

Baina, 2006tik 2011ra bitarteko epealdian Espainiako gazteriaren etxebizitza-baldintzen bilakaeraren ezaugarri garrantzitsuena da bizilekuen merkatuan etxebizitza eskuratzeko dituzten egoera ekonomikoek okerrera egin dutela. Laurogeita hamarrek hamarkadaren amaieratik hasi eta 2007ra arte etxebizitzaren presioak etengabe egin zuen gora (1.2. grafikoa) eta horren ondorioz etxebizitza eskuratzeko egin beharreko ahalegina orokorrean handitu zen. Higiezin burbuila lehertu ondoren, arazo horiek areagotu dira gazteen artean, diru-sarrerek behera egin dutelako, batez ere langabezia-tasa izugarri handitu delako. 2007tik 2011ra bitartean, Espainiako gazteek etxebizitza ordaintzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoa igo zen, eskura zituzten diru-sarreraren % 24,2tik % 29,5era, eta batez besteko nazionala baino handiagoak izan ziren betiere (6.9. grafikoa). Halaber, emantzipatu ostean diru-sarreraren % 40tik gora etxebizitza ordaintzeko baliatu behar zituzten gazteen portzentajea handitu zen epealdi horretan. 2007an, Espainiako gazteen % 15,1ek gehiegizko ahalegina egiten zuen etxebizitza ordaintzeko; 2011n, emantzipatutako gazteen % 21,3k zuten aipatu arazoa, eta tasa hori batez besteko nazionalaren bikoitza zen (% 11,2) (6.9. grafikoa).

6.9. grafikoa

18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK ETA BIZTANLERIA OSOAK ETXEBIZITZAREN GUZTIRAKO KOSTUA ORDAINTZEKO EGIN BEHARREKO BATEZ BESTEKO AHALEGINAREN BILAKAERA, FAMILIAKO DIRU-SARREREN ARABERA; ETA ETXEBIZITZAREN KOSTUA ORDAINTZEKO GEHIEGIZKO AHALEGIN EKONOMIKOA EGIN BEHAR DUTEN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA. ESPAINIA, 2007-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Tamalez, Espainiako etxebizitza-politika ahulak ia ez dio erantzunik ematen gazteek etxebizitzaren merkatuan sartzeko duten arazoari. Emantzipatutako gazteen % 2 – %3 inguruk eskuratu ahal dituzte etxebizitza sozialak (6.10. grafikoa). Bestalde, alokairua ordaintzeko laguntzak oso gutxi garatuta daude, eta 2007-2011 epealdian gazte emantzipatuen % 4,1ek soilik jaso zituzten laguntza horiek (A.82. taula).


Arazo horiek gorabehera, biztanleriak, oro har, dituen arazo bertsuak dituzte gazteek, hipotekaren edo alokairuaren ordainketak atzeratzeari dagokionez (A.78. taula), pobrezia energetikoaren eraginari erreparatuta (A.81. taula) eta etxebizitzak dakarren zama ekonomikoari buruzko irudipen subjektiboari begiratu gero (A.80. taula), eta etxebizitzako zerbitzuak berandu ordaintzean soilik ikusten da arazoaren eragin handiagoa (A.79 taula). Halaber, ez dira desberdintasun adierazgarriak ikusten gazte emantzipatuen eta Espainiako biztanleria osoaren etxebizitzaren baldintzen artean (A.83tik A.86ra bitarteko taulak).

Krisiak dakarren ziurgabetasuna eta etxebizitzaren kostuaren eta diru-sarreraren artean dagoen gero eta desoreka handiagoa ikusita, Espainiako gazteen erantzunetako bat izan da, etxebizitza erosi ordez, alokatzea. 2007tik 2011ra bitartean, etxebizitza nagusiaren jabe ziren gazte emantzipatuen portzentajeak behera egin zuen, % 71,1etik % 64,5era; aitzitik, epealdi horretan alokairu libreak gora egin zuen, % 17,9tik % 23,5era (6.10. grafikoa).


6.10. grafikoa

18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ERREGIMENAREN ARABERA, ESPAINIA, 2007-2011

GAZTEAK



BIZTANLERIA OSOA



Orobat, lagatako etxebizitzan bizi diren gazte emantzipatuen portzentajea, Italian bezain handia ez bada ere, Espainiako gazteen artean nahikoa hedatua dagoen soluziobidea da, % 8 – % 9 inguru baitira aukera hori baliatu dutenak (6.10. grafikoa).


6.4.4. Euskadiko gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Bizi Baldintzei buruzko Inkestaren arabera eta Espainia osoarekin alderatuta, Euskadiko gazteek nabarmen txikiagoak dituzte emantzipazio-tasak, Italiakoen oso antzekoak. 2007-2011 epealdian, batez beste, Euskadiko 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen % 60,6 gurasoekin bizi ziren, eta Espainian epealdiko batez bestekoa % 53koa zen.

Halaber, Espainian ez bezala, krisiak ia ez du eraginik izan Euskadiko gazte emantzipatuek etxebizitzaren kostua ordaintzeko batez beste egin beharreko ahalegin ekonomikoan; izan ere 2007tik 2011ra bitartean diru-sarreraren % 27 – % 29 inguru erabili behar izan zuten (6.11. grafikoa). Horrenbestez, krisialdiaren aurretik Euskadiko gazteek ahalegin handiagoa egin behar zuten, Espainiakoek baino, epealdi horretan bi adierazleak parekatu ziren pixkanaka, eta 2011n diru-sarreraren % 28 - % 29 inguru behar zuten (6.9. eta 6.11. grafikoak). Aitzitik, gehiegizko ahalegin ekonomikoa egiten duten pertsonen tasari dagokionez, Espainian bezala, Euskadin ere gorakada ikusten da 2008tik aurrera, krisiaren ondorioz, bai biztanlerian, oro har, bai gazte emantzipatuen artean (6.11. grafikoa).

6.11. grafikoa

18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEK ETA BIZTANLERIA OSOAK ETXEBIZITZAREN GUZTIRAKO KOSTUA ORDAINTZEKO EGIN BEHARREKO BATEZ BESTEKO AHALEGINAREN BILAKAERA, FAMILIAKO DIRU-SARREREN ARABERA; ETA ETXEBIZITZAREN KOSTUA ORDAINTZEKO GEHIEGIZKO AHALEGIN EKONOMIKOA EGIN BEHAR DUTEN 18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA. EUSKADI, 2007-2011



Iturria: INE, Encuesta de Condiciones de Vida (ECV)


Etxebizitza-politikari dagokionez, Euskadiko gazteek emantzipatzeko laguntza publiko gehiago dituzte, proportzioan, Espainiakoek baino, oro har. 2007tik 2011ra bitartean, Euskadiko gazte emantzipatuen % 6,9k laguntza ekonomikoren bat jasotzen zuten etxebizitza-gastuak ordaintzeko, eta Espainian, oro har, gazte emantzipatuen % 4,1ek jasotzen zuten laguntzaren bat (A.82. taula). Halaber, etxebizitza sozialean bizitzen ziren gazteen portzentajea zertxobait handiagoa zen Espainiakoa baino: % 3,8 eta % 2,4 hurrenez hurren (6.12. grafikoa).

Ziur asko, Euskadiko etxebizitza-politikaren garapen zertxobait handiagoagatik, gazteen langabezia-tasa txikiagoagatik, eta emantzipazio-tasak txikiagoak Euskadin izateagatik (horrek prozesuari segurtasun handiagoz aurre egitea bideratzen du), etxebizitza eskuratzearekin lotutako gainerako adierazle ekonomiko guztietan emaitza hobek dituzte Euskadin, Espainian oro har baino, bai alokairua edo hipoteka berandu ordaintzeri dagokionez (A.78. taula), bai zerbitzuak berandu ordaintzeari begira (A.79. taula), etxebizitza zama astuna dela hautematen dutenen proportzio txikiagoan (A.80. taula), eta pobrezia energetikoaren eragin txikiagoan (A.81. taula).

Etxebizitza edukitzeko erregimenari dagokionez, bai Euskadiko biztanleria osoan, bai gazteen artean, jabetzaren aldeko joera handiagoa dago, Espainian baino (6.12. grafikoa). Horrenbestez, alokairuen merkatuaren segmentua askoz ere txikiagoa da, eta horrek arazoak sortzen dizkie etxebizitza erosi nahi ez duten edo erosi ezin duten gazteei.

6.12. grafikoa

18 URTEK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEAK, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ERREGIMENAREN ARABERA. ESPAINIA ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA (EAE), 2007-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC) eta INE, Encuesta de Condiciones de Vida (ECV)

Gazte emantzipatuen etxebizitzaren baldintza fisikoei dagokienez, Euskadin zertxobait okerragoak dira biztanleria orokorrarenak baino, eta Espainiako gazteekin alderatuta, ez dago desberdintasun adierazgarririk (A.83. etik A.86.era bitarteko taulak).

7

7. Krisia eta emantzipazioa komunismo osteko ereduan: Txekia eta Hungaria

7.1. KOMUNISMO OSTEKO HERRIALDEETAKO ONGIZATE-ESTATUA

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, Gerra Hotzak eragin zuen munduaren zati handia bi bloketan banatzea. Europan, zatiketa horrek muga geografiko oso nabarmena zuen: Burdinazko Hesia. Mendebaldeko Europaren eta Bloke Komunistaren arteko muga politiko eta ideologikoa zen. Sobietar Batasunaren eragin-eremuko Europako herrialdeetan, jarduera politiko eta ekonomikoa Estatu autoritario batek, zentzurik zabalenean, planifikatzen zuen, eta estatu hori arduratzen zen oinarrizko gizarte-zerbitzuak hornitzeaz eta enplegu osoa bermatzeaz, produktibitatearen kaltetan edo beharrezkoak ez ziren lantokietan izanda ere.

Laurogeiko hamarkadan, Bloke Komunistaren eredu ekonomiko eta politikoa gero eta gehiago agortu zen, 1989an Berlingo hesia erori arte. Horrenbestez hasi zen Blokearen amaiera, bai eta Gerra Hotzarena ere. Oso denbora laburrean, Sobietar Batasuna zatitu zen, eta sobietar errepublika bakoitzak eta inguruko herrialdeek Mosku alde batera utzi eta independentzia aldarrikatu zuten.

Herrialde horiek eraldaketa ekonomiko eta sozial azkarra eta erabatekoa izan zuten; erregimen autoritario eta ekonomia planifikatu haiek merkatu-ekonomia duten sistema demokratiko bihurtu ziren. Prozesu horretan, Munduko Bankua eta Nazioarteko Diru Funtsa izan ziren itzal handieneko aktoreak; beraz, eredu-aldaketa, neurri handi batean, Washingtingo Hitzarmenaren printzipio neoliberalen arabera izan zen. Horregatik, erreforma ekonomikoaren ardatza izan zen, alde batetik, Estatuaren eginkizuna ahalik eta gehien mugatzea, bai eta gizarte-politiken alorrean ere, eta bestetik, merkatu librearen aho beteko defentsa.

Herrialde horietako egungo ongizate-estatuari deitzen zaio trantsizio-eredua, komunismo ostekoa edo sozialismo ostekoa, eta haren ezaugarriak dira gizarte- eta enplegu politiketan gastu publiko gutxi egitea eta presio fiskal txikia. Ongizate-estatu ahul horrek gizarte-bazterketa, desberdintasun eta pobrezia ugari sortu ditu herrialde gehientsuenetan. Egoera horri erantzunez, familiak, eredu mediterraneoan bezala, kideak babesteko zeregin handia hartzen du bere gain. Gainera, Europar Batasunean sartu diren herrialdeetan, Lisboako Ituneko helburuak oinarri hartuta, lehenasuna eman zaio lehiakortasunari eta enplegua sortzeari, gastu sozialaren aurretik, eta horrek are gehiago murriztu du desmerkantilizazioa.

Alabaina, ezaugarri komun horiek gorabehera, desberdintasun handiak daude talde horretako herrialdeen artean. Izan ere, ez dute garapen ekonomiko berdina; gainera, komunismoaren garaian, haren aurretik eta ondoren ere, ez dute zehazki bilakaera politiko eta sozial berdina izan. Hain zuzen ere, ongizate-estatuaren trantsizio-eredu bakar baten edo zenbait ereduren existentziari buruzko eztabaida indarrean dago oraindik ere arlo akademikoan.

Rysek (2001) dioenez, ez dago benetako konbergentziarik herrialde horien artean, desberdintasunak handiak baitira. Ferreirak eta Figueiredok (2005) diote herrialde horietako batzuk sailka daitezkeela gainerako multzoetako batean, baina beste batzuek talde bat osatzen dutela berez. Keunek (2006) uste du oso herrialde gazteak direla eta oraindik goizegi dela zer ongizate-estatu mota duten definitzeko. Fengerrek (2007) adierazitakoari jarraituz, komunismo osteko herrialdeak hiru taldetan sailka daitezke: (i) garai bateko Sobietar Batasuneko herrialdeak (Letonia, Estonia, Lituania, Errusia, Ukraina eta Bielorrusia); (ii) komunismo osteko tipologia europarra esaten zaiona, Europako erdialdeko eta ekialdeko herrialdeek osatua; hau da, garapen- eta ongizate-adierazle hoberenak dituzten herrialdeak hartzen dituenak (Bulgaria, Kroazia, Txekiar Errepublika, Polonia eta Eslovakia); (iii) eta garapen-bidean dauden herrialdeen taldea, Errumaniak, Moldaviak eta Georgiak osatua. Egile batzuek (ikus Stephens *et al.*, 2010) bi taldetan banatzen dituzte herrialde horiek: (i) komunismo ondoko eredu kontserbadoreko herrialdeak, lanaren alorreko nolabaiteko babes-maila dutenak, (ii) eta sozialismo osteko eredu liberala, lan-merkatu malgua ezaugarri nagusi duena. Beste egile batzuek (Fuchs, 2008) adierazten dute, besterik gabe, ez dagoela sozialismo osteko inolako eredu berririk.

7.2. KOMUNISMO OSTEKO ETXEBIZITZA-SISTEMA

7.2.1. Alderdi orokorrak

Herrialde horietako etxebizitza-sisteman egindako aldaketak bilakaera politiko eta ekonomikoarekin lotura dute. Aurreko etxebizitza-eredu sozialistan, Estatuak etxebizitza-sektorea kontrolpean zuen eta merkatuko mekanismoak plangintza ofizialaren mende zeuden; horrenbestez, aktoreen arteko lehia eragozten zen (Hegedüs eta Tosics, 1996). Etxebizitzaren prezioa artifizialki murrizten zen, diru-laguntza publiko ugari ematen baitziren, eta etxebizitza-zerbitzuekin lotutako jarduera burokratikoa, diru-laguntzen eta esleipenen alorrekoa batez ere, oso zabala zen, baina gardentasun gutxikoa, segiziozaleasuna eta ustelkeria nagusi baitziren. Alabaina, biztanle guztiei etxebizitza egokia bermatzeko nahia gorabehera, Estatuak sektorean ezarri zuen ia erabateko kontrol horren emaitza ez zen izan premien araberrako etxebizitza-produkzioa. Horrenbestez, komunismoaren garaian etxebizitzen falta etengabeko arazoa izan zen, eta horren ondorioz, etxebizitzen ekonomia informala garatu zen, jarduera ofizialek kanpo. Beraz, salerosketak eta alokairu-kontratu pribatuak egiten ziren, bai eta berralokatzeak ere.

Komunismoa amaitu eta merkatuko ekonomiara aldatzean, etxebizitza-sistemek oso aldaketa sakona izan zuten. Erakunde politikoak demokratizatu ziren, herrialde gehienetan etxebizitzen parke soziala pribatizatu zuten, eta etxebizitza-politikak pixkanaka deszentralizatu ziren: gobernu zentralaren eskuetatik tokiko gobernuen eskuetara. Halaber, Estatuak etxebizitza sozialen finantziazioan eta horniketean zuen eginkizuna nabarmen murriztu zen, eta horren ondorioz, etxebizitzen falta areagotu zen, bai eta eskatzaile gehienen baliabide ekonomikoen falta ere.

Tokiko gobernuen alde deszentralizatu ondoren, herrialde gehienetan udalerrriak etxebizitza-politikaren alorreko aktore publiko nagusi dira. Lurraldean etxebizitza sozialak mantentzeaz, kudeatzeaz eta sustatzeaz arduratzen dira; etxebizitza sozialen titularrak diren aldetik, hainbat erabaki hartzen dituzte: pribatizazioari buruzko erabakiak, egingo diren inbertsioak, esleitzeko sistema, esleipendunen errenta-mailak eta maizterrentzako laguntza ekonomikoak (sarritan gobernu zentralarekin koordinatuta). Labur esanda, udalerrriak arduratzen dira etxebizitza sozialen estrategia tokiko mailan definitzeaz eta garatzeaz. Baina, eskumenen transferentzia horrekin batera ez dira transferitu dagozkion baliabide ekonomikoak; beraz, etxebizitza sozialen parkea gero eta gehiago pribatizatu da eta oso etxebizitza sozial berri gutxi sustatu dira.

Bestalde, Estatuak zenbait eskumenei eusten die etxebizitza-alorrean; esate baterako, berariazko finantza-produktu eta -laguntzen bidez jabetza eskuratzeko sustapenekin lotutako programak.

Sozialismo osteko etxebizitza-sistema guztietan arazo orokorra da etxebizitza-parkeen kalitate eskasa. Etxebizitza-parkeen baldintza fisikoen eta ekipamendu-mailen adierazle guztiek nabarmentzen dute arazo gehiago daudela herrialde horietako etxebizitzetan (A.3. eta A.6. grafikoak). Azpimarratzekoa da, batez ere, komunismoaren garaian sustatutako parke publikoaren egoera txarra. Eraikuntzen kalitatea eskasa da, eta ez da ia mantentze-lanik egin, ez komunismoaren garaian, ez ondoren. Halaber, ezaugarri sozioekonomikoen aldetik oso zaugarriak diren eta diru-sarrera gutxi dituzten (eta horren ondorioz, gastuak egiteko gaitasunik ez duten) biztanleen kontzentrazio handiko bizitegi-guneak direnez, segmentu horren degradazioa lastertu dute.

Etxebizitza edukitzeko erregimenari dagokionez, trantsizio-ereduko herrialdeetako etxebizitza-sistemetan, eskuarki, jabetzako etxebizitzak dira nagusi, laurogeita hamarreko hamarkadan alokairu sozialeko etxeak masiboki pribatizatu ostean (Polonia eta Txekia dira salbuespen bakarrak). Bestalde, alokairu sozialeko zein pribatuko oso etxebizitza gutxi daude (A.2. grafikoa).

Sozialismo osteko herrialde gehienetan ageri den beste ezaugarri bat da etxebizitza-politikan baliatutako gastu publikoa oso txikia dela (A.13 grafikoa), eta horren ondorioz, ez dago etxebizitza ordaintzeko laguntzen benetako sistema eraginkorrik, etxebizitza lortzeko lagungarria denik. Laguntzaren batzuk dituzten herrialdeetan, haien helburua da familiei laguntzea etxebizitzako zerbitzuek eragindako gastuak ordaintzen (adibidez elektrizitatea, ura, eta zabor-bilketa) liberalizazioaren truke; beraz, merkatutik kanpo dauden eskatzaileei ezin zaie lagundu (Hegedus eta Teller, 2005). Bistakoa da babes falta horrek etxebizitzari lotutako bazterketa eta etxegabetze handiak sortzen dituela, eta familiari giltzarriko zeregina esleitzen diola kideak babesteari dagokionez. Arrazoi horiek eta beste batzuk direla-eta –adibidez, herrialde batzuetan dagoen etxebizitza falta– sozialismo osteko etxebizitza-sistemetan familien batez besteko kide-kopurua handia izan ohi da (A.1 grafikoa), bai eta familia zabalaren proportzioa ere.

Halaber, kontuan izan behar da, neurri handiagoan edo txikiagoan, trantsizio-herrialdeetako etxebizitzaren merkatuak ez direla merkatu helduak, Europako gainerako herrialdeetan bezala. Beraz, trantsizio-ereduan familien hipoteka-zorra txikia izan ohi da (A.14. eta A.15. grafikoak). Hala ere, eredu horretako herrialde askok ahalegin ertaina egin behar dute etxebizitza ordaintzeko, eta gehiegizko ahalegina egiten duten familien portzentajeak ere adierazgarriak dira (A.9. eta A.10. grafikoak). Halaber, etxebizitzako zerbitzuak zama astuna izaten dira familia askorentzat; hala ikusten da pobrezia energetikoaren eragin handian (A.7. grafikoa) eta berandu ordaintzen diren zerbitzuetan (A.12. grafikoa).

Testuinguru horretan, beraien etxebizitza publikoa erosteko modurik izan ez zuten eta baliabide nahikoak ez dituzten familiek etxebizitza egoki bat lortzeko arazo larriak dituzte, ez baitago etxebizitza sozialen sustapen berririk, ez eta etxebizitza ordaintzeko laguntzen sistema nahikoa garatua. Laguntzetatik kanpora geratutako eskatzaileen artean, etxebizitzaren merkatura lehen aldiz sartzen diren gazteek osatutako familia asko daude.

7.2.2. Txekiako etxebizitza-sistema

Sozialismo osteko herrialde gehienetan bezala, nabarmenak dira Txekiako sisteman alokairu sozialaren deszentralizazioa eta desarautzea. Arlo horretan, Estatuak esku hartzen du soilik esleipenei buruzko legedia orokorra onestearen bitartez, eta sustapena bultzatzeko laguntza ekonomikoen programaren bidez. Laguntza horiek, gehienez ere, 60.000 euroko maileguak dira unitateko, lehentasunezko interes-tasan. Hala ere, udalerriek –alegia, etxebizitza horien kudeaketaz eta sustapenez arduratzen diren erakundeek– ez dute ia interesik adierazi programa horri buruz.

Baina, komunismo osteko herrialde gehienek ez bezala, Txekiak ez zuen alokairu sozialeko parkea masiboki saldu, erregimena aldatu eta berehala *Right-to-buy* lege bat eginez (ezta Poloniak ere ez), aitzitik, pribatizazioa pixkanakako prozesua izan da. Hasieran, udalerriak etxebizitza horien titular egin ziren, eta gero pixkanaka pribatizatu

zituzten; izan ere, etxebizitza sozialen parkea kudeatzeko eta esleitzeko eskumen osoak dituzte, bai eta pribatizatze ere (Sládek, 2013). Hortaz, praktikan, emaitza berdina izan da, baina pixkanaka egin da. 1990ean, etxebizitza nagusien % 39 sozialak ziren, baina 2011n % 8 baino ez ziren etxebizitza sozialak. Kontuan hartu beharreko beste berezitasun bat da, etxebizitza edukitzeko erregimenari dagokionez, Txekian alokairu pribatuak proportzio handiagoa duela (% 14) sozialismo osteko beste herrialde batzuetan baino (A.2 grafikoa).

Alokairu soziala arautzeari dagokionez, ondoz ondoko lege-aldaketen bidez 2007tik 2013ra errentak pixkanaka igo ziren, baina gero araudi hori aldatu zen, eta 2013tik aurrera jabeek, publikoak zein pribatuak izanda ere, alokairuaren hileko errenta alde bakarretik igo dezakete, merkatuko prezio teoriko batera iritsi arte. Neurri horren helburua da etxebizitza sozialen pribatizazioa geldiaraztea, izaera soziala arintzen bada ere; horrek, ordea, are gehiago murrizten ditu bazterrean dauden eskatzaileen aukerak neurrizko prezioa duen etxebizitza lortzeko.

Etxebizitza sozialen promozio berriak urriak direnez, gazteek neurrizko prezioa duen etxebizitzaz gozatzeko aukera gutxi dituzte. Temelová et al. (2010) ikertzaileek adierazi dutenez, Pragan eta Txekiar Errepublikako beste hiri batzuetan gazteek oso aukera gutxi dituzte etxebizitza horiek eskuratzeko, eta aukera horiek biltzen dira urrutien dauden auzoetan; izan ere, biztanle helduagoek handik alde egin eta gazteek haien lekua hartzen dute. Gainera, alokairua ordaintzeko laguntzak oso hondarrekoak dira eta 16 urtetik gorako biztanleen % 2 – % 3 inguru baino ez dira haien hartzaile; beraz, ez dira benetan lagungarriak emantzipazioa errazteko (A.92. taula).

Horren haritik, Txekiako gobernuak gazteen arazoei begira egindako etxebizitza-politikak klase sozial ertain eta altuak izan ohi ditu helburu, jabetza xede hartuta. Zehazki, finantza-izaera duten bi programa daude: 36 urtera arteko gazteentzako hipoteka-laguntza sistema, etxebizitzaren jabe egiteko; eta interes txikiko maileguen sistema, 36 urtera bitarteko gazteentzat halaber, etxebizitza erosteko, eraikitze edo berritzeko.

Oraindik orain, 2011n, bitartekotzarako programa pilotu bat abian jarri zen alokairu pribatuaren segmentuan: "Etxebizitza Bermatua", eta gazteak programa horren lehentasunezko taldeetako bat dira. Programa 2011n onetsitako Gizarteratze Estrategiaren zati da, eta xedea da alokairu pribatuko parkearen zati bat eta hutsik dauden etxebizitzak erabiltzea familia ahulenei etxebizitza eskaintzeko, arriskuak (ordaindu gabeko zenbatekoak, etxebizitzaren degradazioa edo erabilera okerra) eta kaleratu behar izanez gero sortutako epaiketa-kostuak estaltzen dituen berme publikoko sistemaren bidez. Horren truke, etxebizitza alokairuko merkatuan sartuko da, kontratu luze samarra eginda, eta hileko errenta merkatukoa baina merkeagoa izango da.

Halaber, 2011n Txekiako gobernuak 2011-2010 epealdirako Etxebizitza Politikaren Estrategia onetsi zuen. Estrategiak hiru arazo nagusi hauek identifikatzen ditu: (i) biztanleriaren zati handi batek etxebizitza ordaintzeko dituen arazoak, (ii) edukitzearen egonkortasunari lotutako arazoak, krisiarekin larriagotu direnak, (iii) eta parkearen segmentu handi baten kalitate falta. 2013an, plan nazional horren lege-garapena egiteko zegoen artean, ez zuen gazteen premiei berariaz erantzuteko neurri berririk, eta eztabaidek jarraitzen zuten zenbait alorretan: udalerrien zeregina, onuradunen profila, eta alokairuko etxebizitzaren jabe pribatuen eginkizuna neurrizko prezioa duten etxebizitza berrien hornikuntzan.

7.2.3. Hungariako etxebizitza-sistema

Komunismoaren garaian, Hungariako etxebizitza-sistemak Europako ekialdeko herrialdeen etxebizitza-sistemaren ezaugarri gehientsuenak biltzen zituen: etxebizitzaren merkatu librerik ez izatea, eta etxebizitzaren sektorea Estatuaren kontrolpean; zehazki, alderdi politiko bakarraren eskuetan, diru-laguntzen sistema zabal eta opaku baten bitartez, bai etxebizitza berriak sustatzeko, bai parke publikoari eusteko. Hirietako etxebizitza-parkearen zati handiena jabetza publikokoa zen, eta gazteek eskuratzen zituzten, bai esleipen-prozesu luzeen bidez, bitartean

gurasoekin edo ahaideekin bizi zirela, bai eraikuntzan parte hartuz, Estatuak neurri handi batean finantzatuta (Spéder et al., 2010).

Erregimena aldatu ondoren, laurogeita hamarreko hamarkadan, Estatuak ekin zion pixkanaka jardura eta diru-laguntzak murrizteari, eta eskumenen deszentralizazio prozesua garatu zen tokiko gobernuen alde.

Alokairu sozial parkearen % 22 zen 1989an, baina 1993an Etxebizitza Legea onetsi zenean, pribatizazioari ekin zitzaion oso prezio merkean (merkatuko balioaren % 10 – % 15 inguru); horrenbestez, 2003an etxebizitza sozialak parkearen % 4 baino ez ziren. Gaur egun, udalerrriak parke sozial eskasaren kudeaketaz arduratzen dira, eta askatasun handia dute hileko errentak eta kontratu-mota ezartzeko, bai eta esleitzeko irizpideak erabakitzeke ere. Arazoa da tokiko gobernuen (eta haien etxebizitza-alorreko enpresa publikoen) baliabide falta dela-eta, defizita sortzen dela, eta etxebizitza sozialen salmentak jarraitzen duela (prezio libreetan, 2001eko pribatizazio-legearen ondoren). Gainera, ia ez dago etxebizitza sozialen sustapen berririk. Etxebizitza Sozialak Eraikitzeke Programak ez ditu eman espero ziren emaitzak, eta sustatutako etxebizitza sozialen kopurua oso txikia izan da, besteak beste, lurzoruak ez zeudelako toki egokietan (eskuarki, eskura zeuden lursailak hiriguneetatik eta lantokietatik urrun zeuden) eta horren ondorioz, urbanizazio-kostuak handiak izan zirelako. Horrenbestez, etxebizitza edukitzeke erregimen nagusia jabetza da gaur egun; izan ere, etxebizitzaren % 92 jabetzakoak dira (A.2. grafikoa). Alokairuko etxebizitzarik gabe ia, bizileku-mugikortasuna gelditu da, eta erosteko gaitasunik ez daukaten gazteen emantzipazio-aukerak urriak dira.

Hungariako egungo diru-laguntzen programa, neurri handi batean tokiko gobernuen esku dagoena, lau ardatz nagusi hauen inguruan egituratzen da, lortu nahi den helburuaren arabera: jabetzako laguntzak, alokairuko parkea handitzeke laguntzak, birgaitzea sustatzeke laguntzak, eta etxebizitza ordaintzeke laguntzak, kaleratzeak saiheste aldera. Arazoa da aurrekontu-baliabideak ez datozela bat premiekin, eta aurreikuspenak irrealak direla; beraz, programa horien irismena da, orokorrean, oso mugatua (MRI, 2009). Hain zuzen ere, erregimena aldatu ostean, gazteen artean, alderdi kuantitatiboari erreparatuta, nolabaiteko inpaktua izan duen programa bakarra da enplegua duten gazteek etxebizitza erosteko diruz lagundutako maileguak. Maileguen sistema hori masiboki baliatu bazen ere, diru-sarrera handiak edo ertainak zituzten familia gazteak zituen helburu; beraz, kanpoan geratu ziren familia asko, kaudimen-baldintzak ez betetzeagatik. Horrenbestez, Hungariako gazteen arteko desberdintasunak areagotu ziren, etxebizitza eskuratzeari dagokionez.

Hungariako etxebizitzaren sektorean eragin duten dinamika eta politika horiek ondorio hauek sortu dituzte:

- (i) etxebizitza eskuratzeko gaitasun ekonomikoaren krisi larria eskatzaileen segmentu gero eta handiagoan, bai jabetzari, bai alokairuko merkatuari dagokionez. 2011n, 16 urtetik gorako biztanleek diru-sarreraren % 25,3 erabiltzen zituzten etxebizitzaren kostuak ordaintzeke, eta portzentaje hori zen, hain zuzen, trantsizio-ereduko herrialde guztietako handiena (A.9. grafikoa). Halaber, biztanleen % 11,8 gehiegizko ahalegin ekonomikoa egiten ari ziren etxebizitzaren kostuagatik (A.10. grafikoa), eta portzentaje hori trantsizio-ereduko bigarrena da, Letoniaren ondoren.
- (ii) Etxebizitzaren parkearen zati handi baten degradazioa. Hezetasun-arazoak eta ekipamendu sanitarioen gabeziak bereziki handiak dira Hungarian (A.4., A.5. eta A.6. grafikoa). Zenbait azterlanen arabera, etxebizitzaren % 10 – % 12 inguru egoera txarrean daude edo oso kalitate txikikoak dira eta berritzeke lan handiak behar dituzte (MRI, 2009).

Hungariako etxebizitza-sistemaren beste arazo batzuk dira segregazio sozial handia, alokairuko etxeen falta (alokairu sozial eta pribatuaren segmentu osoa parkearen % 8 baino ez da) eta eskaerei erantzuteke etxebizitza falta nabarmena (A.2. grafikoa). Premia guztiei erantzuteke, gure ustez lehendik dauden etxebizitzaren % 8 eraiki beharko lirakeke (eta haietako asko ekonomikoki eskuragarriak izan beharko lirakekeela).

Testuinguru horretan, familiak zeregin garrantzitsua du Hungariako etxebizitza-sisteman. Familien arteko laguntzak oso ohikoak dira (Hegedüs eta Somogyi, 2006); horrenbestez, jatorrizko familiaren errenta-maila etxebizitzari lotutako bazterketa-arriskuaren adierazle sendoa da. Zenbait azterketatan egiaztatu da, gazteen artean, bizileku-baldintza desegokietan bizitzeko arrisku handia dagoela, eta etxebizitzari lotutako bazterketa-arriskua nabarmen handiagoa dela seme-alabak dituzten eta familia-laguntzarik eta diru-sarrerara egonkorrik gabeko familien artean (MRI, 2009).

Etxebizitza-politikaren alorrean berriki abian jarritako ekimenen artean azpimarratu behar dira honako bi hauek: alde batetik, neurrizko prezioa duten alokairuak sustatzeko programa abian jartzea, etxebizitza hutsen jabeek eta alokairuko etxebizitzaren jabeek pizgarriak eskaintzearen bitartez; eta bestetik, Etxebizitza Agentzia Nazionalaren sorrera. Agentzi horren helburu nagusia da porrot egin duten zordunen etxebizitza erostea, eta haiei alokairuan ematea. Alabaina, krisia dela-eta, ordaindu gabe geratzen diren etxebizitzaren kopurua handiegia da, eta Agentziaren baliabideak ez dira nahikoak premia guztiei erantzuteko. Hala ere, erregimen sozialistaren osteko trantsizioa hasi zenetik, etxebizitza sozialen garapenerako egin den programarik handiena da.

Amaitzeko, azpimarratu behar da zenbait irabazi-asmorik gabeko erakundek, gobernu kanpoko erakundek eta erakunde konfesionalek duten eginkizuna Hungariako etxebizitza-sisteman, biztanleen bizileku-premiei erantzuteko, eskuarki, talde zaugarrienak kontuan hartuta (esate baterako, etxegabeak).

7.3. KOMUNISMO OSTEKO HERRIALDEETAKO GAZTEEN ENPLEGURAKO POLITIKAK

7.3.1. Alderdi orokorrak

Komunismoaren garaian, langabezia desagerrarazi zuten sobietar blokeko herrialdeetan, ekonomiaren estatu-plangintzari esker; hezkuntza eta lanbide-heziketa unibertsal bihurtu ziren; eta familia-politikaren sistema zabal batek bideratu zuen emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzea.

Erregimen politiko eta ekonomikoa aldatu ostean, lan- eta produkzio-sistema erabat aldatu zen. Langabezia ezezaguna zen, ordura arte, komunismo osteko herrialde guztietan, baina gorakada handiak edo apalagoak izan zituen, batez ere kapitalismoaren lehen urteetan eta gizonen artean, bereziki kaltetutako sektoreetan (adibidez, industrian) proportzio handiagoan lan egiten baitzuten gizonak. Halaber, emakumeen eskulana lan-merkatuan sartzeari dagokionez, atzerakada handia izan zuen (Funk, 2009). Kapitalismoaren bidean egindako trantsizio ekonomikoan printzipio neoliberalak abian jartzea ere ez zen lagungarria izan. Enplegu-politika aktiboetan egiten den gastu publiko urriak gaur arte jarraitu du herrialde horietan, politika aktibo zein pasiboen alorrean (A.19. grafikoa). Eskulanaren lanbide-prestakuntza urria, langabeen artean bereziki eskasa dena, hobetzeko programak ez dira nahiko izaten; eta ekintzailetzak eta autoenpleguak ere ez dute beharrezko laguntza tekniko eta finantzarioa jasotzen. Horregatik guztiagatik, ez da harritzekoa langabezia orokorra eta luzaroko langabezia oso handiak izatea herrialde horietan, eta lan-aukera gehiago ematen dituzten beste ekonomia batzuetara emigratzea irtenbide egokiena izatea langabe askorentzat.

Gazteen artean, sozialismo osteko ekonomietan lan-alorreko krisialdiak lau adierazpide ditu: (i) ez-ez fenomenoak, alegia, hezkuntza-sistema utzi ondoren lanik egiten ez duten eta prestakuntza- edo gaikuntza-programaren batean ere ez dauden gazteen portzentajearen hedapen handia; (ii) gazteen enplegu-tasa txikia eta

lanbide-prestakuntza urria; (iii) gazteen lan-prekarietate handiagoa, iraupen jakineko kontratuetan duten proportzio handiagoan ikusten den bezala; (iv) eta lana lortzea eta ekonomia hobetzea xede duen emigrazioa.


Lan-merkatuaren dualizazioa trantsizio-ereduaren beste berezitasun bat da. Argi eta garbi bereizten dira “insider” eta “outsider” direnak; hau da, alde batetik, kontratu etengabea eta mugagabea duten pertsonak, legez babestuek eta hainbat eskubide dituztenak (*insider*), eta bestetik, lan-merkatuan sartu berriak (gazte asko, bai eta emakume helduak eta pertsona adinduak ere), ia babesik ez dutenak, legedi berriek malgutasunari lehentasuna ematen baitiote, lan-eskubideen aurretik.

7.3.2. Txekiar Errepublikako gazteen enplegurako politikak

Krisiak Txekiako lan-merkatuan ere eragina izan du, batez ere gazteen artean. Krisia hasi zenetik, gazteen langabezia-tasa ia bikoiztu da: 2008an % 9,9koa zen, eta 2012an, berriz, % 19,5koa. Hala ere, Europarekin oro har alderatuta, batez bestekoaren (2012an % 22,8) zertxobait azpitik dago oraindik ere (7.1. grafikoa).

7.1. grafikoa

25 URTEK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. TXEKIAR ERREPUBLIKA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)


Krisiak eztanda egin aurretik, Txekiako gobernua Txekiar Errepublikako Haur eta Gazte Plana egin zuen 2007-2013 epealdirako, eta plan horretan kontuan hartu zen gazteen langabeziaren arazoa. Gazteen langabezia murrizteko, gobernua hiru helburu handi hauek ezarri zituen: (i) gazteak laneratzeko prestakuntza-baldintza egokiak jartzea; (ii) gazteen enplegua sustatzeko berariazko programak garatzea, ikasketak utzi zituzten gazteak bereziki kontuan hartuta; (iii) eta hezkuntza- eta prestakuntza-programak egokitzea Txekiako eta Europako lan-merkatuko premien arabera. Halaber, ministerio guztiek zeharka parte hartuta, gazteen enplegua hobetzeko sei jardueraren arteko baterako programak garatzen laguntzea; (ii) bigarren zikloko hezkuntza-eskaintza egokitzea, eskualde bakoitzaren eta dagokion lan-merkatuaren premien arabera; (iii) gazteen lanbide-heziketa egokitzea, lan-merkatuaren eskaeraren arabera; (iv) gazteen gizarteratzea eta laneratzeko neurriak implementatzea, gazteen familia-kargekin

harmonizatuta, Europar Batasunak definitutako Lisboako Estrategiaren esparruan; (v) laneko aholkularitza eta informazioa emateko zerbitzuak ebaluatzea eta hobetzea; (vi) eta hezkuntza- eta prestakuntza-sistema informalak publikoki aintzatesteko mekanismoak ezartzea.

Krisiak eztanda egin ondoren, Europaz Batasunak gazteen langabezia murrizteko sustatutako gomendio eta planak ikusita, Txekiako gobernuak Gazteen Enplegurako Programa (*Stáže pro mlade*) sustatu zuen. Programa horren bidez, ikasketen azken urtean ari diren ikasleei aldi berean lan-esperientzia eskuratzeko aukera ematen zaie, lan-merkatuan berehala eta bete betean sartzera errazteko. Baina, Janickok (2012) adierazitakoari jarraituz, Txekiako gazteen lan-arazoak askoz ere zabalagoak dira, lan-esperientzia ez izatetik haratago. Haren iritziz, gazteen enpleguaren alorrean, hiru arazo nagusi daude gaur egun: (i) hezkuntza-sistema kaotikoa da eta ez dator bat lan-merkatuarekin; (ii) hezkuntza- eta prestakuntza-sistema gero eta gehiago pribatizatzen ari da Txekian, eta horrek laneratzeko gaitasun desberdinak dakartza, gazteen eta familien estatus sozioekonomikoaren arabera; (iii) eta gobernuak enplegu-politika aktiboetara bideratzen dituen arreta eta baliabide eskasak. Azken alderdi horri dagokionez, enplegu-politiken kategoria guztietako gastuak, 2008tik aurrera zertxobait igo baziren ere, Europako txikienetakoak dira (7.2. eta A.19. grafikoak).

7.2. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKETAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. TXEKIAR ERREPUBLIKA, 2005-2011




Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

7.3.3. Hungariako gazteen enplegurako politikak

Krisiak bereziki eragin die Hungariako gazteen lan-baldintzei. 2007an, gazteen langabezia % 18,1eko zen jada; harrezkero gora egin du, eta 2012an % 28,1ekoa zen; hau da, Europako Erkidegoko batez bestekoaren gainetik zegoen, sei puntu inguruko aldearekin (7.3. grafikoa). Horrez gainera, luzaroko langabezia goraka doa, bai eta lan-prekarietatea ere, sasoiko edo aldi baterako enpleguen bidez.

7.3. grafikoa

25 URTEKIK BEHERAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA. HUNGARIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2003-2012 (%)



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Gazteen laneratzean, faktore erabakigarriena egindako ikasketen gehieneko maila da. Goi-mailako ikasketak egindako pertsonen artean enplegu-tasa % 56koa da; aitzitik, oinarrizko ikasketak soilik egin dituzten artean % 19,4koa baino ez da. Horregatik, gazte asko hezkuntza-sistemara itzultzen dira, kualifikazio handiagoak lortzeko eta lan-merkatuan hobeto txertatzeko. Kasu askotan, lana bilatzeko beste herrialde batera emigratu behar dute. Hungariako Estatistika Bulego Zentralak emandako datuen arabera, 2004tik 2010era bitartean 25.000 - 27.000 biztanle inguruk emigratu zuten urtero enplegu-bila, baina. krisiaren ondorioz, emigrazio horrek berebiziko gorakada izan zuen 2011n. Urte hartan 85.000 pertsona inguruk alde egin zuten herrialdetik, lan-aukera hobekak aurkitzeko. Alemaniara, Erresuma Batua, Suediara eta Kanadara joan ziren batez ere. Atzerriratu haien artean, % 60 ziren 22 urtetik 29 urtera bitarteko gazteak.


Testuinguru horretan, Hungariako gobernuak gazteen enplegua sustatzeko neurrien pakete bat onetsi du. Neurri horietako bat da enplegatzaileak ordaindu beharreko kontribuzioen % 50 murriztea, kontratatutako pertsona 25 urtetik beherakoa izanez gero. Beste neurri interesgarri bat da finantza-laguntza ematea, itzuli beharrik gabe, enplegu bila hiru hilabetetik gora egin dituzten gazteen enpresa-ekimenak bultzatzeko. Mugikortasuna errazte aldera, enplegu-bulegoan hiru hilabetez inskribatuta egon ondoren ohiko bizilekutik kanpo lana aurkitzen duten gazteek etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzak jasotzeko eskubidea izango dute automatikoki. Halaber, Ikaskuntza Babesteko Programari esker, sei hilabeteko laguntza ekonomikoa ezarri zen enplegatzaileentzat, baldin eta lanbide-karreraren hastapenetan zeuden eta horren ondorioz lanbide-gaitasun nahikoak ez zituzten pertsonak kontratatzen bazituzten.

Bestalde, hezkuntza-sistema ere berrikusten ari dira. Alemaniako eredu erreferentziatza hartuta, aldaketa berrien xedea da gazteen prestakuntzan ezagutza handiagoa eta lanbide-gaitasunak txertatzea, ikasketak amaitzean berehala laneratzeko. Ildo horretan, eta Europar Batasunak gazteen langabeziaren aurka bultzatutako laguntzen programaren esparruan, gobernuak bultzatu du "Zure ezagutza zure etorkizuna da" programa (*Tudásod a jövőd*). Programa horren helburua da atzerriko hizkuntzen eta informatikaren alorreko ezagutzak hobetzea oinarrizko hezkuntza-maila duten 18 urtetik gorako pertsonen artean.

Alabaina, Hungarian enplegu-politiketarako bideratutako gastu publikoa, sozialismo osteko herrialde gehienetan baino handiagoa bada ere, oso apala da, eta ildo horretan bultzatutako politiken irismena mugatzen du (7.4 eta A.19 grafikoa).

7.4. grafikoa

ENPLEGU-POLITIKEN KATEGORIA BAKOITZEAN EGINDAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARABERA. HUNGARIA, 2005-2011



Iturria: Eurostat, Labour Market Policy Interventions (LMP)

Europako Batzordeak Hungariari eman dion gomendioa da Gazte Bermea eta antzeko neurriak balia ditzala, gazteen langabeziari aurre egiteko. Zehazki, honako premia hauek jakinarazi dizkio: (i) nazio-estrategia bat aplikatzea, eskola goizegi uzteari aurre egiteko, eta hezkuntza-sistemak lan-merkatuan sartzeko ezagutza, gaitasun eta kualifikazio egokiak ematen dituela bermatzea; (ii) hezkuntza-prozesuko etapa desberdinetan eta lan-merkatuak bidean trantsizio-prozesuan laguntzea; (iii) eta goi-mailako ikasketen erreforma egitea, maila horretako tituludun gehiago izatea bideratzeko, batez ere egoera ahulean dauden ikasleen artean (European Commission, 2013b).

7.4. KOMUNISMO OSTEKO HERRIALDEETAKO EMANTZIPAZIO-EREDUA

7.4.1. Alderdi orokorrak

Robertsek (2010) adierazitakoari jarraituz, garai bateko sobietar blokeko herrialdeen artean gazteriaren alorrean dauden desberdintasunak gorabehera, ezaugarri komun batzuk badaude, emantzipazio-eredu propioaz jarduteko bidea ematen dutenak. Eredu horren bereizgarri dira gazteek emantzipatzeko dituzten zailtasun handiak, eta horren ondorioz, familiarekiko dependentzia luzea eta handia da, bai eta elkarrekin bizi diren belaunaldi anitzeko familien proportzio

handia ere. Lana daukaten gazte askok ere ezin diote aurre egin etxebizitza baten alokairuari edo hipoteka-kredituari; horrenbestez, sarritan familiaren laguntzarako gaitasunak baldintzatzen du emantzipazioa (laguntza ekonomikoa ematea, familia-etxebizitza oinordetzan ematea edo lagatzea). Praktika horiek ohikoak ziren komunismoaren garaian, eta erregimen berriarekin areagotu dira; horrenbestez, haustura sozial handia eragiten dute: alde batetik, seme-alaben emantzipazio-prozesuan laguntzeko baliabideak dituzten familietako gazteak daude, eta bestetik, halako baliabiderik gabeko familietako gazteak. Beste modu batera esanda, familiaren estatusa da, gaur egun, emantzipazio-prozesua baldintzatzen duen faktore nagusia, eta horrek taldeen arteko zatiketa soziala eragiten du.


Emantzipaziorako dauden arazo horien kausa bat da komunismo osteko etxebizitza-politiken ahulezia. Herrialde gehienetan etxebizitza sozialen parkea hondarrekoa da, alokairuko etxebizitzaren eskaintza oso txikia da, eta etxebizitza ordaintzeko laguntza publikorik ez dago, edo laguntza urriak dira, eta sarritan etxebizitza erosteko ematen dituzte, eta horretarako diru-sarreraren maila jakin bat eta egonkortasun ekonomikoa behar dira, gazte gehienek lortzen ez dutena, urte batzuk igaro arte.

7.4.2. Txekiar Errepublikako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Erraztasunik ez dagoenez, gurasoekin bizi diren 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazteen portzentajea zertxobait handiagoa da Txekian, Europar Batasuneko batez bestekoa baino. Hala ere, krisia hasi ondoren ez da ia aldatu eta egonkorra da, % 52 – % 54 ingurukoa (7.5. grafikoa). Baliteke langabezia-tasa txiki samarra izateak, EB-27ko batez bestekoa baino txikiagoa (7.1. grafikoa), modu erabakigarrian lagundu izana krisialdian emantzipazio-tasei eusteko.

7.5. grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. TXEKIAR ERREPUBLIKA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Gurasoekin bizi diren gazteen bilakaeran gertatu bezala, 2007tik 2011ra bitartean, emantzipatutako gazteek etxebizitzaren gastuak ordaintzeko batez beste egin beharreko ahalegin ekonomikoa ez zen ia aldatu, ez eta gehiegizko ahalegin ekonomikoa egiten zuten gazteen portzentajea ere, eta herrialdeko 16 urtetik gorako biztanleria osoari dagozkionak baino zertxobait handiagoak baino ez ziren izan (A.87. eta A.88. taulak). Egonkortasun-joera berdina ikusten da hipoteka-kuotak edo alokairua ordaintzean atzeratutako gazteen proportzioan (A.89. taula), bai eta etxebizitzako zerbitzuak ordaintzean ere (A.90. taula), eta pobrezia energetikoan daudenei dagokienez (A.91. taula). Etxebizitzak dakarren zama ekonomikoaren irudipen subjektiboan soilik ikusten da gazteentzat epealdi horretan karga ekonomikoa handitu dela (7.6. grafikoa).

7.6. grafikoa

18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZAREN GUZTIRAKO KOSTUAK DAKARREN KARGA EKONOMIKOARI BURUZKO IRIZPEN SUBJEKTIBOAREN ARABERA. TXEKIAR ERREPUBLIKA, 2007-2011




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Etxebizitza edukitzeko erregimenari dagokionez, 2007-2011 epealdian etxebizitza sozialen proportzioaren pixkanakako beheraka gertatu zen, bai gazteen artean, bai biztanlerian oro har, parke sozialen etengabeko pribatizazio-prozesuaren ondorioz (7.7. grafikoa).

7.7. grafikoa

18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZA EDUKITZEKO ERREGIMENAREN ARABERA. TXEKIAR ERREPUBLIKA, 2007-2010



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Txekiako etxebizitza-politika ahularen pixkanakako atzerakada horrek eragina du, halaber, etxebizitza ordaintzeko laguntzen kopuruan. Emaitzetan aldakortasuna ikusten bada ere, laginaren errore estatistikoaren ondorioz, datuek adierazten dute 2008-2011 epealdian onuradunen portzentajeak behera egin duela (A.92. taula).


Txekiako gazte emantzipatuen etxebizitzaren egoera fisikoari dagokionez, 2007tik 2011ra bitarteko bilakaeran ikusten da etxebizitza horiek zertxobait hobera egin dutela, bai argi naturalaren faltari (A.93. taula), bai hezetasun arazoei eta ura sartzeari (A.94. taula), bai ekipamendu sanitarioaren gabeziei erreparatuta (A.95. eta A.96. taula).

7.4.3. Hungariako gazteen emantzipazioa eta bizilekuen baldintzak

Gaur egun, alokairu sozialeko etxebizitza gutxi ditu Hungariak (etxebizitza guztien % 3,7, Laino eta Pittini, 2011), sustapen berririk ez dago, eta etxebizitzak ordaintzeko laguntza publikoak neurritsuak dira, 16 urtetik gorako biztanleen % 7 - % 12 inguru eta gazte emantzipatuen % 11 inguru soilik onuradun direla (A.105. taula). Hungariako gazteen emantzipazioa familien baliabideen mende dago, neurri handi batean, edo enplegu egonkorra eta ondo ordaindua aurkitzeko zailtasunen mende. Horrenbestez, emantzipatzeko adina gero eta gehiago luzatu da. 2006tik 2011ra bitarteko urteetan, gurasoekin bizi ziren gazteen portzentajeak hamar puntu gora egin eta % 61,9an jarri zen, Europako Erkidegoko batez bestekoaren gainetik hamahiru puntu eta gehiago (7.8. grafikoa). Zalantzarik gabe, bilakaera hori lotuta dago herrialdeko gazteen langabezia-tasa handiarekin. 2008 aurretik handia bazen, % 18tik gorakoa, krisia iristean biziki handitu da, % 28tik gora (7.3. grafikoa).

7.8. grafikoa

GURASOekin BIZI DIREN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. HUNGARIA ETA EUROPAR BATASUNA (EB-27), 2006-2011




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Batez ere langabezia-tasa handiak kolokan jartzen ditu, halaber, gurasoen etxetik jada alde egin zuten gazteen etxebizitza-alorreko independentzia. 2008tik aurrera, hipoteka, alokairua edo zerbitzuak berandu ordaindu dituzten gazteen portzentajea handitu da (7.9. grafikoa), bai eta etxebizitzaren kostua zama astuna izatearen irudipen subjektiboa ere (7.10. grafikoa).

7.9. grafikoa

HIPOTEKA, ALOKAIRUA EDO ZERBITZUAK NOIZBAIT (ELKARRIZKETA EGIN AURREKO 12 HILABETEETAN) BERANDU ORDAINDU ZITUZTEN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA. HUNGARIA, 2007-2011



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Alabaina, dinamika hori ez da ikusten etxebizitza ordaintzeko ahalegin ekonomikoaren eta gehiegizko ahaleginaren adierazleen bilakaeran; izan ere, 2007-2011 epealdian ez da ia aldaketarik ageri, ez gazteen artean, ez Hungariako gizartean oro har (A.97, eta A.98. taulak).


Etxebizitza edukitzeko erregimenaren araberako banaketari dagokionez, 2011ko emaitzek adierazten dute gazteak alokairuaren alde egiten hasi direla zertxobait. Hala ere, jabetza da aukera hedatuena, % 70 inguru 18 urtetik 34 urtera bitarteko gazte emantzipatuen artean (A.100. taula). Beste herrialde batzuetan ikusi dugun bezala, alokairuaren goraldi hori da, neurri batean, krisiak eragindako ziurgabetasunaren ondorio, gazteen artean handia baita ziurtasunik eza.

Bestalde, gazte emantzipatuen etxebizitzaren baldintza fisikoek ez dute aldaketarik izan krisiaren ondorioz, eta herrialdeko batez bestekotik ez daude urrun (A.101.etik A.104.era bitarteko taulak). Datu horietan nabarmentzen dena da Hungariako etxebizitzaren parkearen egoera txarra, eta bereziki ekipamendu sanitarioan ageri diren gabeziak.


7.10. grafikoa

18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTE EMANTZIPATUEN ETA BIZTANLERIA OSOAREN PORTZENTAJEEN BILAKAERA, ETXEBIZITZAREN GUZTIRAKO KOSTUAK DAKARREN KARGA EKONOMIKOARI BURUZKO IRIZPEN SUBJEKTIBOAREN ARABERA. HUNGARIA, 2007-2011

GAZTEAK



BIZTANLERIA OSOA



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

8

8. Etxebizitzaren eta enpleguaren alorreko politika publikoen eta emantzipazioaren arteko erlazioa

8.1. SARRERA

Kapitulu honen helburua da Europar Batasuneko herrialdeetan 2005-2011 epealdian dauden korrelazio estatistikoak aztertzea, gurasoekin bizi diren gazteen portzentajearen eta honako faktore hauen artean:

- (i) gazteen enplegu- eta langabezia-tasak eta enplegu-politika aktiboetan egindako gastua;
- (ii) eta etxebizitza-politikaren tresna nagusiak.

Azpimarratu behar da, korrelazio bat kausa-erlazioaren frogatzat hartu ezin bada ere, politika jakin batzuek emantzipazio-tasekin duten erlazio estatistikoa jakiteak, herrialdeen arteko alderaketak eginda, informazio garrantzitsua ematen digu, batez ere tresna jakin batzuk emantzipazioan duten eraginari buruz, hartara gai horretan efizientzia eta eraginkortasun handiena duten politika publikoei buruzko erabakiak hartzeko.

8.2. ENPLEGUAREN ETA EMANTZIPAZIOAREN ARTEKO ERLAZIOA

Gazteriaren lan-egoerak eragin handia du emantzipazio-prozesuetan. 2005-2011 epealdian Europar Batasuneko herrialde bakoitzean gurasoekin bizi ziren gazteen portzentajearen eta enplegu-tasen (8.1. grafikoa) eta langabezia-tasen (8.2. grafikoa) aldagai biko erregresioen bidez jakin dezakegu bi alderdien arteko erlazio estatistikoa.

Emaitzek adierazten dute aldagai horien arteko korrelazio neurritsua, zertxobait sendoagoa enplegu-tasarekin (Pearson-en korrelazio-koefizientea¹⁶ = -0,557, 8.1. grafikoa) langabezia-tasarekin baino (Pearsonen korrelazio-koefizientea = 0,505, 8.2. grafikoa). Izan ere, lehenengoak gazte guztien lan-egoerari buruzkoa da, eta bigarrena, berriz, biztanleria aktibo gazteari buruzkoa soilik da. Logikari jarraituz, lehenengo erlazioa negatiboa da; hau da,

¹⁶ Pearsonen korrelazio-koefizientea da bi ausazko aldagai kuantitatiboen arteko erlazio linealaren neurketa, -1etik +1era bitartekoa izan daitekeena, eta balio horietara hurbiltzen den hainean, bi aldagaien arteko korrelazioa handiagoa da.


gazteen arteko enplegu-tasak zenbat eta handiagoak izan, joera da orduan eta portzentaje txikiagoa bititza gurasoen etxean. Aitzitik, langabeziak eragin negatiboa du emantzipazioan; beraz, korrelazioa positiboa da.

Bi erregresioetan, alderdi garrantzitsuena da gazteen enplegu- eta langabezia-tasen gaitasun mugatua herrialde bakoitzeko emantzipazio-tasak esplikatzen. Horrek berresten du beste faktore erabakigarri batzuk daudela, enplegu- eta langabezia-tasetan jasota ez daudenak. Faktore horien artean azpimarratzekoak dira:

- (i) lan-baldintzak (kontratuaren iraunaldia, lanaldiaren iraupena, soldata-baldintzak eta abar),
- (ii) herrialde bakoitzeko etxebizitza-sistema eta gazteek sistema horretan duten egoera,
- (iii) eta ongizate-estatu bakoitzak ematen duen gizarte-babesaren maila (8.6. grafikoa).

8.1. grafikoa

EUROPAN¹⁷ GURASOEKIN BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA 20 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN ENPLEGU-TASAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC) eta European Union Labour Force Survey (EU-LFS)

¹⁷ AT (Austria), BE (Belgika), BG (Bulgaria), CY (Zipre), CZ (Txekiar Errepublikak), DE (Alemania), DK (Danimarka), EE (Estonia), ES (Espainia), FI (Finlandia), FR (Frantzia), RO (Errumania), EL (Grezia), HU (Hungaria), IE (Irlanda), IT (Italia), LV (Letonia), LT (Lituania), LU (Luxenburgo), MT (Malta), NL (Herbehereak), PL (Polonia), PT (Portugal), SE (Suedia), SK (Eslovakia), SI (Eslovenia), UK (Erresuma Batua). Batzuetan ez dira herrialde guztiak agertzen daturik ez dagoelako.

8.2. grafikoa

EUROPAN GURASOEKIN BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA 20 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC) eta Labour Market Policy Interventions (LMP)

Baina, politika publikoen ikuspegitik, interesgarriena da enplegu-politika aktiboek emantzipazioarekin eta gazteen enplegu- eta langabezia-tasekin duten erlazioa aztertzea. Erregresioa eginez gero, Europar gurasoekin bizi diren 18 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen portzentajearen (2005-2011 epealdiko batez bestekoa) eta enplegu-politika aktiboetan egindako gastu publikoaren artean (BPGd-ren portzentaje gisa neurtua, kontzeptu horretan enplegu-zerbitzu publikoen kostua sartuta: aholkularitza, enplegua bilatzeko laguntza, bitartekotza eta abar), emaitzak adierazten du bi aldagaien arteko korrelazio negatibo sendoa (Pearsonen korrelazio-koefizientea = -0,740, 8.3. grafikoa). Hau da, enplegu-politika aktiboetara baliabide gehien bideratzen dituzten herrialdeek emantzipatu gabeko gazteen portzentaje txikiagoa izan ohi dute.

8.3. grafikoa

EUROPAN GURASOEKIN BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOETARA (AHOLKULARITZA, ENPLEGUA BILATZEKO LAGUNTZA, BITARTEKOTZA ETA ABAR) ETA ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOETARA (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA, SALBUESPEN HAUEKIN: ZIPRE, 2006-2011; GREZIA, 2005-2010; MALTA, 2006-2011; ERRESUMA BATUA, 2005-2009) BIDERATUTAKO BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARTEKO KORRELAZIOA




Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC) eta Labour Market Policy Interventions (LMP)

Baina, enplegu-politika aktiboetan egindako gastua erlazionatzen badugu 20 urtetik 34 urtera bitarteko pertsonen enplegu-tasarekin, korrelazioa estatistikoki neurritsua da (Pearsonen korrelazio-koefizientea = 0,458, 8.4. grafikoa); eta langabezia-tasarekin erlazionatzen badugu, korrelazioa are eta txikiagoa da (Pearsonen korrelazio-koefizientea = -0,328, 8.5. grafikoa).

8.4. grafikoa


20 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN ENPLEGU-TASAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOETARA (AHOLKULARITZA, ENPLEGUA BILATZEKO LAGUNTZA, BITARTEKOTZA ETA ABAR) ETA ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOETARA (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA, SALBUESPEN HAUEKIN: ZIPRE, 2006-2011; GREZIA, 2005-2010; MALTA, 2006-2011; ERRESUMA BATUA, 2005-2009) BIDERATUTAKO BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARTEKO KORRELAZIOA



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS) eta Labour Market Policy Interventions (LMP)

8.5. grafikoa

20 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ENPLEGU-ZERBITZU PUBLIKOETARA (AHOLKULARITZA, ENPLEGUA BILATZEKO LAGUNTZA, BITARTEKOTZA ETA ABAR) ETA ENPLEGU-POLITIKA AKTIBOETARA (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA, SALBUESPEN HAUEKIN: ZIPRE, 2006-2011; GREZIA, 2005-2010; MALTA, 2006-2011; ERRESUMA BATUA, 2005-2009) BIDERATUTAKO BPGD-REN PORTZENTAJEAREN ARTEKO KORRELAZIOA



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS) eta Labour Market Policy Interventions (LMP)

Horren ondorioz, aurreko hiru erregresioak batera aztertuta (8.3., 8.4. eta 8.5. grafikoa) honako ondorio hauek ateratzen dira:


- (i) enplegu-politika aktiboetan egiten den gastuan herrialdeen artean dauden desberdintasunek zati batean soilik esplikatzeko dutuzte gazteen enplegu- eta langabezia-tasetan dauden desberdintasun handiak; beraz, gazteen lan-egoeran duten eragina mugatua da. Bistakoa da gazteen lan-merkatuan duten inpaktuan eragiten dutela, bideratutako baliabideek ez ezik, beste faktore batzuek: zer-nolako neurriak diren, gazteen enplegarritasuna hobetzeko berariazko neurriak sartu ote diren, eta herrialde bakoitzeko lan-merkatuaren ezaugarriak nolakoak diren.
- (ii) Enplegu-politika aktiboetan egindako gastu handiaren eta gurasoen etxean bizi diren gazteen portzentaje txikiaren arteko erlazio sendoak (8.3. grafikoa) partzialki baino ez dio erantzuten politika horiek gazteen

lan-egoeran duten eragin positiboari. Beraz, pentsatu behar dugu badaudela zerikusia duten beste faktore batzuk. Adibidez, enplegu-politika aktiboetara baliabide gehien bideratzen dituzten herrialdeek gizarte-babeserako sistema eta etxebizitza-politika garatuagoak izan ohi dituzte, eta faktore horiek emantzipazioaren alde egiten dute.

Azken puntu horri dagokionez, adierazi behar da gizarte-babeserako sistemen garapen handiak (BPGd-ren portzentaje gisa neurtuta) erlazio estatistiko negatibo nabarmena duela gurasoekin bizi diren gazteen portzentajearekin (Pearsonen korrelazio-koefizientea = -0,646, 8.6. grafikoa). Hau da, gizarte-babes handiagoa ematen duten herrialdeek emantzipazio-tasa handiagoak izan ohi dituzte.

8.6. grafikoa

EUROPAN GURASOekin BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA GIZARTE-BABESERAKO BIDERATUTAKO BPGD-REN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA



Iturria: Eurostat, European Union Labour Force Survey (EU-LFS) eta European System of Integrated Social Protection Statistics (ESSPROS)

8.3. ETXEBIZITZA-POLITIKAK ETA EMANTZIPAZIOA


Hartzailearen arabera, etxebizitza-politikak bi multzo handietan sailkatzen dira: (i) “harriari” emandako laguntzak, sustatzaileek eta eraikitzaileek jasotzen dituztenak, neurrizko prezioa izango duten etxebizitza sozialak eraikitzeko; (ii) eta pertsoneri emandako zuzeneko laguntzak, prestazio ekonomiko gisa edo antzeko formularen bat baliatuta, etxebizitzaren alokairua edo erosketa ordaintzeko modua izan dezaten. Petrolioaren krisiaren aurretik, etxebizitza-politikak lehenengo bidean oinarrituta garatu ziren, laurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera zuzeneko laguntzak gero eta gehiago nagusitu ziren, eta aurrekoek behera egin zuten.

Batzuek eta besteek emantzipazio-tasan duten eragina edo erlazioa zehazteko, aldagai biko erregresio linealen bidezko azterketa egin dugu, gurasoen etxean bizi diren gazteen portzentajeak (2005-2011 epealdiko batez bestekoa) honako faktore hauekin duen loturari erreparatuta:

- (i) etxebizitza ordaintzeko laguntzetarako bideratutako gastu publikoa (1995-2009 epealdiko batez bestekoa), BPGd-ren portzentaje gisa neurtuta (8.7. grafikoa),
- (ii) etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntzetarako bideratutako gastu publikoa (1995-2009 epealdiko batez bestekoa), BPGd-ren portzentaje gisa neurtuta (8.8. grafikoa),
- (iii) etxebizitza ordaintzeko laguntzak jaso dituzten gazte emantzipatuen portzentajea (2007-2011 epealdiko batez bestekoa) (8.9. grafikoa),
- (iv) alokairu sozialeko etxebizitzaren portzentajea (8.10. grafikoa),
- (v) eta alokairu sozialeko etxebizitzetan bizi diren gazte emantzipatuen portzentajea (8.11. grafikoa).

8.7. grafikoa

EUROPAN GURASOEKIN BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ETXEBIZITZA ORDAINTZEKO LAGUNTZETARAKO GASTU PUBLIKOAREN (BPGD-REN PORTZENTAJEAREN 1995-2009 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA



Oharra: Etxebizitza ordaintzeko laguntzearako gastu publikoa kalkulatzeko, ondoko herrialdeetan beste epealdiak hartu dira kontuan: Bulgaria (2005-2009), Estonia (1999-2009), Zipre (2000-2009), Hungaria (1999-2009), Polonia (2000-2009) eta Eslovakia (1995-2004)


Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Lehenengo hiru erregresioen emaitzak kontuan hartuta, ikusten da, oro har, etxebizitza ordaintzeko laguntzek korrelazio negatiboa dutela gurasoekin bizi diren gazteen portzentajearekin. Hau da, zenbat eta laguntza handiagoak (bai onuradunen kopurua, bai kontzeptu horretarako bideratutako BPGd-ren portzentajea kontua hartuta) orduan eta handiagoa da gazte emantzipatuen portzentajea. Baina hiru erregresio horien korrelazio-mailan alde handiak daude. Lehenengo korrelazioan, etxebizitza ordaintzeko laguntzearako bideratutako gastu publikoa eta emantzipatu gabeko gazteen portzentajea aztergai hartuta, bi aldagaien arteko erlazio partziala dago (Pearsonen korrelazio-koefizientea = $-0,545$, 8.7. grafikoa). Bigarren korrelazioan, berriz, alokairua ordaintzeko laguntzearako bideratutako gastu publikoa eta emantzipatu gabeko gazteen portzentajea aztergai hartuta, korrelazioa neurritsua da (Pearsonen korrelazio-koefizientea = $-0,641$, 8.8. grafikoa). Etxebizitza ordaintzeko laguntzearako bideratutako gastu publikoari

buruz kontuan hartutako bi aldagaien arteko aldea da lehenengoan laguntza guztiak sartzen direla, bai alokairua ordaintzekoak, bai erosketa xede dutenak; bigarrenean, ordea, alokairua ordaintzeko laguntzak soilik kontuan hartzen dira. Ateratzen den ondorioa da alokairua ordaintzeko ez diren laguntzak (hau da, etxebizitza erosteko laguntzak) ez dutela erlaziorik emantzipazio-tasa handiagoarekin. Ziur asko, horren arrazoia da etxebizitza erosteko egin beharreko ahalegina askoz ere handiagoa dela, jasotako laguntza baino, eta horren ondorioz, gurasoen etxean denbora luzeagoa egiten dutela gazteek, dirua aurrezteko.

8.8. grafikoa

EUROPAN GURASOekin BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ALOKAIURUA ORDAINTEZKO LAGUNTZETARAKO GASTU PUBLIKOAREN BPGD-REN PORTZENTAJEAREN (1995-2009 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA




Iturria: Laino & Pittini (2011), eta Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Baina, gurasoekin bizi diren gazteen portzentajearen eta etxebizitza ordaintzeko laguntzak jasotzen dituzten gazte emantzipatuen portzentajearen artean korrelazioa are eta handiagoa da (Pearsonen korrelazio-koefizientea = $-0,662$, 8.9. grafikoa). Horrek adierazten du, emantzipazioa errazte aldera, alokairua ordaintzen laguntzeko programak garatzeaz gainera, bermatu behar dela hartzaileak gazteak direla, bai berariazko programen bidez, bai horretarako irizpideak ezartzearen bitartez.

8.9. grafikoa

EUROPAN GURASOEKIN BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ETXEBIZITZA ORDAINTZEKO LAGUNTZAK JASOTZEN DITUZTEN GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2007-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA




Oharra: (1) Errumania (2007-2011), (2) Malta (2009-2011) eta Bulgaria (2007-2008).

Iturria: Laino & Pittini (2011), eta Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Bestalde, alokairu sozialeko etxebizitzaren tamainak erlazio handiagoa du emantzipazio-tasekin, etxebizitza ordaintzeko laguntzek baino. Parke horren tamainaren eta emantzipatu gabeko gazteen portzentajearen artean korrelazio neurritsua dago (Pearsonen korrelazio-koefizientea = $-0,656$, 8.10. grafikoa); baina, erreparatzen badiogu soilik emantzipazioaren eta etxebizitza sozial batean bizi diren gazteen portzentajearen arteko erlazioari, korrelazioa nabarmen handiagoa da (Pearsonen korrelazio-koefizientea = $-0,798$, 8.11. grafikoa). Diferentzia horien arrazoia da, etxebizitza sozialen parkearen tamainak ez ezik, eragina duela, batez ere, gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten aukerek, bai etxebizitza berrien sustapenen bidez, bai parke barruko errotazio handiaren bitartez. Horregatik, esate baterako, Txekiar Errepublikako, Poloniako, Austriako edo Holandako alokairu sozialeko parkeak ez du erlazio proportzionala emantzipazio-tasa handiagorekin, gazteek etxebizitza horiek eskuratzeko dituzten arazoengatik. Horrenbestez, herrialde horiek erregresio-lerroaren gainetik daude, argi eta garbi (8.10. grafikoa).

8.10. grafikoa

EUROPAN GURASOekin BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ETXEBIZITZEN PARKE OSOAN ALOKAIRU SOZIALEKO ETXEBIZITZEK DUTEN PORTZENTAJEAREN (2011 URTEA) ARTEKO KORRELAZIOA




Iturria: Laino & Pittini (2011), eta Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)

Labur esanda, etxebizitza sozialen sustapena eta alokairua ordaintzeko laguntzak ezartzea erlazioatuta daude emantzipazio-tasa handiagoekin Europar Batasunean oro har, batez ere politika horien zati baten onuradunak gazteak izango direla bermatzeko berariazko irizpideak baldin badituzte.

Etxebizitza-politikako bi tresna horiek elkarren osagarri dira, merkatutik kanpo dauden eskatzaileek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazoak konpontzea dute helburu, eta inplementazio-denbora oso desberdinak dituzte. Zuzeneko laguntzek epe laburrera eragiten dituzte ondorioak, berehala eragiten baitute hartzaileen etxebizitza eskuratzeko arazoetan; aitzitik, etxebizitza sozialen sustapenak, onesten denetik hasita, askoz ere epe luzeagoak behar ditu emaitzak lortzeko eta zaila da hiru urte baino lehenago eragina izatea, prozesua luzea baita (erabakia hartzea, lursaila aukeratzea, proiektua egitea, obra egikaritzea eta esleipenak egitea). Bistakoa da ez direla ahaztu behar zuzenean edo zeharka parke osoan etxebizitza sozialek duten proportzioa handitzeko lagungarriak izan daitezkeen etxebizitza-politikako beste tresna batzuk. Funtsean neurri hauei buruz ari gara: etxebizitza sozialak eraikitzeke lurzorua lortzea bideratzen duten hirigintza-politikak (adibidez, lurzoru-erreserbak), eta bitartekotza eta abal publikoa alokairuko etxebizitzaren parkean, etxebizitza sozialen eskaintza handitzea eragin baitezakete.

8.11. grafikoa

EUROPAN GURASOEKIN BIZI DIREN 18 URTETIK 34 URTERA BITARTEKO GAZTEEN PORTZENTAJEAREN (2005-2011 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ETA ETXEBIZITZA SOZIALEN PARKEAN BIZI DIREN GAZTE EMANTZIPATUEN PORTZENTAJEAREN (2007-2010 EPEALDIKO BATEZ BESTEKOA) ARTEKO KORRELAZIOA



Iturria: Eurostat, European Survey on Income and Living Conditions (EU SILC)



Ondorioak

EMANTZIPAZIOA MUGATZEN DUTEN EGITURAZKO DIMENTSIOAK

Gazteen etxebizitza-emantzipazioaren prozesuetan eragin handia du herrialde bakoitzeko testuinguru politiko, sozial eta ekonomikoak eta une jakin bateko egoerak, eta horren arabera, gazte gehienek emantzipazio-estrategia bat edo bestea hartzen dute.

Emantzipazio-prozesu horien faktore erabakigarrienak bana ditzakegu lau multzo handi hauetan: familiak gizartean duen eginkizuna, testuinguru makroekonomikoa (bereziki, enpleguan duen eragina), ongizate-estatuaren garapena, eta etxebizitza-sistema. Baina dimentsio horiek ez dira eremu bakartuak, elkarri eragiten diotenak baizik. Ongizate-estatuak etxebizitza-alarrean duen garapen-mailak etxebizitza-sistema baldintzatzen du; familiaren zeregina, babesa ematen duen elementu gisa, ongizate-estatuak bermatzen duen gizarte-babesaren mailaren arabera aldatuko da; gaur egun dugun bezalako krisialdi ekonomikoan langabeziak biztanlerian duen eragina aldatzen da, baliatutako enplegu-politika aktibo eta pasiboen arabera, higiezinaren burbuilaren eraginaren arabera, eta jakina, herrialdearen garapen ekonomikoaren arabera. Eta ez dezagun ahaztu hazkunde ekonomikoaren eta ongizate-estatu zabala eta oparoa garatzeko aukeraren artean dagoen lotura estua. Horregatik, gazteen etxebizitza-trantsizioak erraztea helburu duen edozein politika publikoren abiapuntua izan behar du diagnostiko integral bat egitea, lehen aipatutako egiturazko faktore guztiak kontuan hartuta, eta diagnostiko horren arabera, neurri egokienak planteatu behar dira.

KRISIALDI EKONOMIKOAK, ONGIZATE-ESTATUA ETA EMANTZIPAZIOA

Ikuspegi historiko batetik, ongizate-estatu Bigarren Mundu Gerraren ondoren garatu zen, batez ere, Mendebaldeko Europako herrialde gehienetan (Espainia, gerra zibilaren eta diktadura frankistaren ondorioz, salbuespenetako bat izan zen), kapitalismoaren urrezko garaia esaten zaionari esker. Etengabeko sokan bateratu ziren soldaten, kontsumoaren eta jarduera ekonomikoaren hazkundera; 50eko eta 60ko hamarkadetako hazkunde ekonomiko indartsuari eta garai hartako konpromiso politiko eta sozial sendoari esker, politika fiskal eta sozial birbanatzailea ezarri zen eta gizarte-prestazioak inoiz izandako mailarik handienetara iritsi ziren hainbat alorretan; gizarte-segurantza, hezkuntza, langabezia, pentsioak, etxebizitza eta abar).

Garai hartan, gazteen etxebizitza-emantzipazioa prozesu labur, lineal eta estandarizatua zen, nahiko gazterik gertatzen zena, lan-merkatuan sartzearekin batera; izan ere, langabezia-tasak oso txikiak ziren, eta langileak oso babestuta zeuden.

Petrolioaren krisiak, hirurogeita hamarreko hamarkadan, oparoaldiaren amaiera ekartzeaz gainera, haren printzipio teorikoak suntsitu zituen. Urrezko garaian ezarritako eredu interbentzionista edo keynestarra (teoriko eta defendatzaile nagusia John Maynard Keynes izan baitzen) alde batera utzi eta haren lekua pixkanaka hartu zuen eredu neoliberalak, bestelako printzipio batzuk oinarri hartuta: liberalizazioa, desaratzea, pribatizazioa, lan-prekarietatea eta estatuaren esku-hartze ahalik eta txikiena, bai biztanleen premiei erantzuteari dagokionez (estatu-ongizatearen murrizketa), bai ekonomian (*laissez faire*). Hala eta guztiz, herrialde guztiek ez zuten berotasun berdinez onartu dekalogo neoliberalak. 80ko hamarkadan, Thatcher-Reagan binomioaren eskutik, Estatu Batuak eta Erresuma Batua izan ziren eredu horren inplementazioaren adierazgarri nagusi. Bitartean, Europako iparraldeko herrialdeetan, eta, maila apalagoan, herrialde korporatibistetan, printzipio keynestarrei eutsi zieten neurri batean.

Etxebizitza-alorrean, ideario neoliberalaren aplikazioak eragin du alokairu sozialaren parkearen geldialdia, eta sarritan, parke horren murriztea. Onenera jota, etxebizitza ordaintzeko laguntza ekonomikoak ezarri dira. Baina, horrez gainera, higiezinaren merkatuaren inguruko espekulazio handiagoa sortu du, bai eta jabetzarako joera handiagoa ere. Alde batetik, babes-mekanismo gisa, etxebizitza-politika murriztearen ondorioz; eta bestetik, dimentsio handiagoa duelako, inbertsio-ondasun gisa.

Enpleguari dagokionez, lan-merkatuaren malgutzeak, alde batetik, eskulanaren babes juridiko eta ekonomiko murriztu du, eta bestetik, prekarietatea eta egonkortasun eza handitu ditu, aldi bateko kontratuen, lanaldi partzialen eta ordainsari txikien bitartez.

Dinamika horien ondorioz, industriondoko gizarteetan emantzipazio-prozesuak konplexuagoak, ezezagunak, norabiderik gabeak, iragarrezinak, itzulgarriagoak, laneratzearekin lotura gutxiago dutenak eta dualak dira. Norbanakoei lotutako faktoreen mende daude, gero eta gehiago; hau da, familiaren baliabideen mende, eta laneratze-prozesuaren arrakastaren mende. Aitzitik, prozesu horiek erakundeekin duten lotura gero eta lausoagoa da. Hala eta guztiz, lehen esan dugun bezala, herrialde guztiek ez zituzten berotasun berdinez onartu printzipio neoliberalak, eta oraindik ere funtsezko desberdintasunak daude ongizate-estatuaren eredu bakoitzak emantzipazio-prozesuei jarritako laguntza eta oztopoetan. Horrek ondorioak ditu, jakina, etxebizitza eskuratzeko dauden aukeretan, eta horrenbestez, gazte emantzipatuen portzentajeetan eta egoeran.

Higiezinaren burbuilaren eta ondorengo leherketaren ondorioz, emantzipazio-eredu berri hori areagotu eta hedatu da. Gaztaroa garrantzi eta zaurgarritasun handiko garaia da, egungoa bezalako krisialdietan oso sentibera izan daitekeena. Izan ere, krisiarekin larriagotu dira gazteek etxebizitza eskuratzeko dituzten arazo ekonomikoak eta langabezia, inoiz ezagutu gabeko mailara iritsi arte, eta oso litekeena da arazo horiek egiturazko dimentsioa hartzea, egungo krisialditik haratago.

Dinamika horiek ikusita, behar bada Europako gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak ugarituko dira ondorengo urteetan. Emantzipazio-prozesuetan gero eta desberdintasun gehiago izango dira, batez ere honako faktore hauekin lotuta: (i) familiaren eginkizunaren garrantzi handiagoa, babesa eta laguntza ematen duen elementu gisa, horretarako duen gaitasunaren arabera; (ii) mugikortasun geografikoa laneko arrazoiengatik. Joera horiek direla-eta, desberdintasun sozialak belaunaldi batetik bestera eta bakoitzaren baitan irauteko arrisku handiagoa dago.

ONGIZATE-ESTATUAREN EREDUAK ETA EMANTZIPAZIOA

Ongizate-estatuaren eredu bakoitzak bere emantzipazio-eredua garatu du, eta hor jasota daude gaztaroari buruzko kontzeptua, bai eta etxebizitzaren eta enpleguaren alorrean gazteei dagozkien eskubideak ere. Eredu sozialdemokratikoan, gizarte-estaldura handia, langabezia-tasa txikia eta asmo handiko etxebizitza-politika

lagungarriak dira gazteen etxebizitza-emantzipaziorako. Aitzitik, trantsizioko ereduari edo komunismo osteko ereduari, eta eredu mediterraneoko ongizate-estatuaren ahuleziak, bereziki etxebizitza- eta enplegu-politika aktiboetan, eta garapen ekonomiko txikiagoa izateak ikaragarri zailtzen du gazteen emantzipazio-prozesua; hortaz, gurasoekin bizitzea gehiago luzatzen da, laneko egoera eta egoera ekonomikoa hobetu zain. Bestalde, eredu korporatibista eta eredu liberala tartean daude, bakoitza bere berezitasunekin. Herrialde bakoitzaren etxebizitza-politikatik haratago (oso aldakorra dena, ikusi dugun bezala), bi eredu arteko diferentzia nagusia da gazteak laneratzeko prozesua nolako den. Eredu korporatibista familiaren, Estatuaren eta hezkuntza-mailaren eginkizuna funtsezkoak dira prozesu horretan; eredu liberalean, berriz, aktore nagusia lan-merkatua bera da.

Hala eta guztiz, ongizate-estatuaren ereduak emantzipazioaren testuinguru politiko eta soziala ulertzeko lagungarriak badira ere, desberdintasun nabarmenak daude herrialdeen artean, nazio-mailako azterketa zehatzago baten bidez soilik azal daitezkeenak. Adibidez, ongizate-estatuaren eredu bakoitzean, 2005-2011 epealdian gurasoekin bizi ziren gazteen portzentajearen bilakaeran desberdintasun handiak zeuden (A.18. grafikoa). Funtsean, gaur egun, ongizate-estatuaren ereduez gainera emantzipazio-prozesuak baldintzatzen dituzten faktore nagusiak hauek dira:

- (i) Higiezin burbuilak herrialde bakoitzean izan dituen ondorioak eta familia gazteek etxebizitza eskuratzeko egin beharreko ahalegin ekonomikoaren handitzean eragin duen inpaktua.
- (ii) Krisiak zenbateraino okertu duen gazteen laneko egoera, bai langabeziagatik, bai soldaten murrizketagatik, bai lan-prekarietateagatik.
- (iii) Etxebizitza-politikaren garapen-mailan dauden diferentziak, bereziki alokairu sozialean eta alokairua ordaintzeko laguntzetan, eta azken urteotan arlo horretan egindako murrizketen irismena.
- (iv) Gazteek testuinguru horretan jarraitutako estrategia; esate baterako, gurasoen etxean denbora gehiago geratzea (Suedian eta Erresuma Batuan) edo lan bila emigratzea (Irlandan).

EMANTZIPAZIOA BULTZATZEKO POLITIKA PUBLIKOAK

Emantzipazio-ereduak hainbat faktoreen arteko interakzioen emaitza dira, egiturazko faktoreak eta banakakoak barnean hartuta; baina, zalantzarik gabe, etxebizitza- eta enplegu-politikak dira prozesu horietan eragin eta erraztasun handi eta zuzenak sortuko dituzten sektore-politikak.

Lehenengoei dagokienez, erlazio estatistiko sendoa dagokienez erlazio estatistiko sendoa dago emantzipazio-tasa handiagoen eta tresna jakin batzuen artean (etxebizitza ordaintzeko laguntzak, etxebizitza sozialen sustapena...). Tresna horien arazoa da aurrekontu handiak behar direla, eta, etxebizitza sozialen kasuan, eraikitze eta esleitzeko denbora behar dela.

Alokairu pribatuaren urritasuna, higiezin burbuilaren eta jabetzaren hedapenaren ondorioz, arazo larria da, eta etxebizitza-politikek gai horri heldu behar diote. Etxebizitzaren eta lanaren alorreko trantsizio-prozesuen ziurgabetasun handiagoaren ondorioz, etxebizitza edukitzeko formula malguak behar dira, alokairua bezala. Gazteek alokairu pribatuaren sortutako etxebizitza-eskaeraren presioa nabari da jada hainbat herrialdetan, eta presio hori gero eta handiagoa izango da. Eskaintza handitzea eta etxebizitza edukitzeko erregimenen arteko nolabaiteko oreka berreskuratzea helburu hartuta, pizgarriak garatu behar dira, etxebizitza berriak merkaturatzeko; halaber, jabeen segurtasun juridiko eta ekonomikoa eman behar zaie, eta baliabide nahikoak ez dituzten familiei laguntza ekonomikoak eman behar zaizkie.

Enplegu-politika aktiboei dagokienez, azterketa konplexuagoa da. Zalantzarik gabe, enplegu-tasa handiagoa lagungarria da emantzipazio-tasa handiak lortzeko. Beraz, kontua da jakitea zer neurri diren egokienak gazte landunen proportzioa handitzeko. Gaur egun, arlo horretako ekimen gehienak bost alderdi hauen ingurukoak dira:

- (i) Enplegu-zerbitzu publikoen ets lan-merkatuari buruzko informazio-sistemen eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.
- (ii) Gazteen lanbide-gaitasunak hobetzea eta lan-eskaintzari egokitzea.
- (iii) Gazteen artean ekintzaitelza sustatzea, aholkularitza, finantziatorako laguntzak eta abar ematearen bitartez.
- (iv) Enpresa-sektoreari pizgarri fiskal eta ekonomikoak ematea gazteak kontratatzeko.
- (v) Lan-merkatura sartzen diren gazteei lan-esperientzia eskuratzen laguntzea.

Bistakoa da neurri horiek guztiak gazteen enplegarritasuna hobetzen laguntzen dutela, baina nahikoak al dira? Herrialde batzuetako gazteen langabezia-tasa kontuan hartua, nahitaezkoa dirudi lantoki berriak sortzea, enpresa-ehun berria eratzea; baina, politika horiek eskulana hartzen dute ardatz, batez ere.

Europako gazteen enplegurako politika aktiboen egungo arazo bat da politika horiek gero eta uniformeagoak direla (ez gastu publikoari dagokionez), Europako Batzordeak eta Europako Gizarte Funtsak gazteen enplegurako programa nazionalen finantziazio partzian duden eginkizunaren ondorioz. Esate baterako, Europar Batasunak bultzatzen duen Gazte Bermea Europako iparraldeko herrialdeetako eredian oinarritzen da. Alabaina, gazteen langabezia-tasa handiak dituzten herrialdeak eredu sozialdemokratikotik urrun daude. Langabezia-tasa handiko herrialde horietan erakundeekiko konfiantza txikia izan ohi da, ekonomia informalaren tamaina kontuan hartzekoa da, politika aktiboetan egiten den gastu publikoa ia beti askoz ere txikiagoa da, eta enpresa-ehuna ere zeharo bestelakoa da. Emaitza berdinak lor al daitezke hain desberdina den testuinguruan? Halaber, ez da ahaztu behar Europako iparraldeko herrialdeetan langabezia gero eta handiagoa dela gazteen artean, horrelako programak hainbat urtetan inplementatu ostean. Horrek zalantzan jartzen du programa horiek gaur egungo krisiari aurre egiteko izan dezaketen eraginkortasuna.

Amaitzeko, azpimarratu behar da gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak ez direla jo behar adin-talde jakin batek dituen arazo sozioekonomiko gisa. Gaur, inoiz baino gehiago, arazo horien hedapena eta izaera kontuan hartuta, belaunaldi bati dagozkion alderdietatik haratago dago. Bai familietan duen inpaktuagatik, bai beste arlo batzuetan dituen ondorio ekonomikoengatik, gizarteari, oro har, dagokion gaia da, eta hori kontuan hartuta heldu behar zaio.

EMANTZIPAZIOA EGUNGO EREDU EKONOMIKO ETA SOZIALEAN

Krisia sortu duten arrazoiak, neurri handi batean, gehiegizko desarautze finantzarioan eta higiezin burbuilan badaude ere, petrolioaren krisian ez bezala, gaur egun ez da zalantzan jartzen egungo ereduaren oinarri teorikoa; aitzitik, printzipio neoliberalak Europa guztian hedatzen eta sendotzen ari dira, oraingoan, batez ere, Europar Batasunari eta gero eta gailenagoa den globalizazio-politikari esker.

Printzipio neoliberalak ezartzearen ondorio ezagunetako bat da desberdintasunak areagotzen direla. Are gehiago, gazteek emantzipatzeko dituzten arazoak desberdintasunaren adierazgarri dira; gehienetan, lan-merkatuan

duten integrazio desberdinaren ondorio, eta etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko dituzten arazo handiagoak adierazten dituzte. Fenomeno horren adierazgarri kezagarriena bazterketa-arriskuan dauden gazteen proportzio gero eta handiagoa, lana dutenak ere barnean hartuta.

